Goienkaria

2010eko otsailaren 19a > Egubakoitza > X. urtea > 410. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net TOKIKOM

"Ezkerreko gune iraunkor eta indartsua eraiki nahi dugu Euskal Herrian"

Oskar Matute Alternatibako bozeramailea > 07

BERGARA Historiari buruzko hitzaldi sorta antolatu du Udalak > 14

OÑATI Hitzaldiak, dokumentalak eta irteerak Ingurumen Astean > 18

ARETXABALETA Markoleko zelaiaren erabilera erabakitzeko batzarra bihar > 20

ELGETA Kezka du Udalak zenbait gaztetxok kalean eragindako kalteengatik > 27

JENDARTEA > GIZARTE ZERBITZUAK

Gizarte laguntzen arau berriak egoki ikusten dituzte bailaran

ALOKAIRUA Dirulaguntza kontzeptu berria dago, etxebizitzaren alokairua ordaintzeko errenta bat

ESKUBIDEA Alokairurako laguntza -etxebizitza osagarria- eskubidea da oinarrizko errenta jasotzen duten guztiondako

ABANTAILA Ibarreko gizarte zerbitzu gehienek batez ere alde onak ikusten dizkiete dirulaguntzen arau berriei > 02-03

AURKEZPENA Martitzenean aurkeztu zuten dokumentala, Donostian. ARGAZKI PRESS

G2a

'Simplemente' Arrasatera iritsiko da egubakoitzean

Martitzenean Donostian estreinatu ostean, John Andueza arrasatearrak gidatutako *Simplemente* dokumentala Arrasaten ikusi ahal izango da hilaren 26an. > 31

MERKATARITZA > AZOKA

Merkealdi azoka Arrasaten

Gaurtik domekara arte egingo dute Merkemerkaua Uarkapen > 10

ZERBITZUAK > OSPITALEA

Ospitaleko aparkalekua ezbaian

Arrasaten eraikitzen diharduten Debagoieneko ospitale berrirako aparkalekuek zeresana ematen dihardute. Eztabaida sortu da aparkalekukok egitearen ardura nori dagokion erabakitzerakoan: Osakidetzari ala Udalari. > 04

'Ondo bizi' gehigarria

GOIENKARIarekin batera ginekologia, fisioterapia eta edertasunaren gaineko orrialde bereziak, barruan.

ONDO BIZI

Ekografien bidez fetuen malformazioak ikusten dira

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Iritzia > 06
Gutunak > 06
Elkarrizketa > 07
Herriak > 09-28
Kirola > 29-30
Kultura > 32
Gazteak > 34
Sailkatuak > 35
Telebista-Irratia > 36
Zerbitzuak > 36
Eskelak > 37
Non-zer > 38-39

Altzari denda
Ikerleku zeharbidea
BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK

Aroztegia
San juan 1a
BERGARA
Tel.: 943 76 54 91
Faxa: 943 76 08 04

- Proiektuak
- Koltxoiak
- Horma-armairuak
- Altzariak neurrira
- Ateak
- Eskailerak
- Leihoak
- Tarimak
- Egur lanak orokorrean



Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak

iKER
SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
FAGOR

JENDARTEA > DIRULAGUNTZAK

Arau berriak krisiak sortu dituen laguntza eskaerei erantzuteko

ESKUBIDE BERRIA Oinarrizko errenta jasotzen dutenek alokairua ordaintzeko dirulaguntza jasotzeko eskubidea dute, aurten hasita

LARRIALDI LAGUNTZAK Udaletako gizarte zerbitzuek jasotzen dituzten eskaera gehienak gizarte larrialdi laguntzak (AES) jasotzeko dira

Gizarte dirulaguntzak eskatzeko edo informazioa jasotzeko, norbera erroldatuta dagoen

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Arauak aldatu egin dira, baina krisia, ez. Adierazle makroekonomikoek esan dezakete, erakunde batzuen iritziz, krisitik irteten gabiltzala. Baina, gure herrietako errealitateak beste irakurketa bat uzten digu: alegia, udaletako gizarte zerbitzuetara oraindik jende askok joaten jarraitzen duela, oinarrizko premia batzuk ezin dituztela bete-eta, dirulaguntza eske edo, gutxienez, informazio eske. Iaz atenditu zituzten norbanako edo familia gehienek premia egoeran jarraitzen dute aurten, eta kasu berri batzuk ere badaude. Dirulaguntza mota nagusiak bi izan dira orain arte: batetik, gizarte larrialdi laguntzak (gaztelaniazko AES siglen bidez ere ezagutzen direnak); eta, bestetik, diru-sarrera berme errenta, orain arte oinarrizko errenta deitzen zena.

Aurten, aldaketa nagusi bat dago, eta hasieran dirudien baino eragin handiagoa izan dezake errenten mende dauden herritarrongan. Kontzeptu eta dirulaguntza berri bat sortu da: etxebizitza osagarria. Horrek balio du etxebizitzaren errenta ordaintzeko, eta hori jasotzeko bi baldintza garrantzitsuenak dira, batetik, alokairuan bizi izatea, eta bestetik, diru-sarrera berme errenta jasotzea. Aurten, 43,1 milioi euro dago etxebizitza osagarrirako, eta onuradunak 250 eta 320 euro artean jasoko ditu hilero, kasuaren berezitasunen arabera. Diru-sarrera berme errenta jasotzeko baldintza da hilean 1.011,4 euro garbi baino gehiago ez irabaztea, eta hilero 650 euro jasotzen ditu onuradunak. Batera doazen bi laguntza horiek, urtarrila ezkero, Foru Aldundiak ematen ditu. Etxebizitza osagarria, gainera, eskubide izaerarekin jaio da, eta hori oso garrantzitsua da: AESak ez bezala, erakundeak behartuta daude, batetik, baldintzak betetzen dituen edonori ematera; eta, bestetik, ematen jarraitzera, hau da, bere egoera finantzarioaren, krisiaren eta bestelako egoeren gainetik eman beharko dio dirulaguntza hala dagokionari. Aurten, urtarriletik aurrera hasi dira udalak, ofizioz, oinarrizko errenta jasotzen duten onuradunen kasu guztiak Foru Aldundira bideratzen, denek baitute etxebizitza osagarria jasotzeko eskubidea.

Bailarako gizarte zerbitzu gehienek nagusiki alde onak ikusten dizkiote arau aldaketari: oinarrizko laguntza bat ziurtatu egiten du

Gerta daiteke lehen onuradun zen bat orain dirulaguntza barik geratzea, baina orain arte bailaran ez da halakorik izan

IAZKO AURREKONTUAREN ERDIA

Dirulaguntza eskubide berria dagoenez, Eusko Jaurlaritzak erdira jaitsi du udaletako gizarte zerbitzuen bidez ematen diren gizarte larrialdi dirulaguntzen aurrekontua. Premia egoera asko estaltzeko balio dute AESek, eskatzaileak horiek ordaintzeko beste biderik ez duenean: etxerako altzariak edo etxetresna elektriko beharrezkoak erosteko, semealaben oinarrizko gastuetarako, botikak erosteko... Orain arte, alokairua ordaintzeko balio zuten; are gehiago, AESak eskatzen zuten gehienek beharrizan horixe argudiatzen zuten. Dirulaguntza eskatzerakoan, zehaztu eta dokumentatu egin behar baita zertarako eskatzen den. Espedienteak urte hasieran onartzen dira, baina onuradunaren egoera nahikoa hobera aldatzen bada, dirulaguntza kendu ahal zaio.

Iaz bezala, bailarako gizarte zerbitzuek eskaera asko dituzte, eta dirua erraz doa gizarte larrialdi laguntzetan, izan ere, unean uneko premiei baina baita egoera baten ondorio diren premiei erantzuteko balio dute; orain arte, etxearen alokairua ordaintzeko eskatzen zen nagusiki.

Iaz, urte hasieran emandako dirua bukatuta, urte erdialdera, beste diru partida bat etorri zen Jaurlaritzatik, beharrak aginduta. Udalek ere diru partida bat bideratzen dute urte hasieran, eta iaz, urte erdialdean ere, udal askok erabaki zuten diru kopuru bat gizarte dirulaguntzetara bideratzea. Dena dela, AESak ez dira eskubide bat, dirulaguntza mota bat baizik; horrek esan nahi du administrazioak ez daudela behartuta horiek kasu guztietan eta urte osoan zehar bermatzera, eta hala egiten badute, borondatez da. Horrez gain, kasu bakoitza aztertu ondoren, gizarte zerbitzuei dagokie erabakitzea dirulaguntza eman behar den edo ez.

Gizarte larrialdiko dirulaguntzaren kopurua ez da itxia; onuradunaren diru-sarreren arabera kalkulatzen da, eta izan daiteke urteko 1.100 euro eta 3.840 euro artekoa. Horien onuradun izateko eskatzen duten gutxieneko diru-sarrera maila altuagoa da diru-sarrera berme errenta jaso-

Eskubide berri batek dakarren aldaketa

> LEHEN

Laguntzak bi multzo nagusitan banatzen ziren: batetik, premia handienak zituztenek eta baldintza administratibo eta ekonomiko jakin batzuk betetzen zituztenek eskubidea zuten gutxieneko diru-sarrera berme errenta –lehengo oinarrizko errenta- jasotzeko. Horretarako muga gainditzen zutenek aukera zuten gizarte larrialdi laguntzak eskatzeko; udal bakoitzak neurtu eta erabakitzen zuen eskatzaile bakoitzari laguntza ematea zegokion edo ez. Orain arte, gizarte larrialdi laguntza jasotzen zuten gehienek etxeko alokairua ordaintzeko erabiltzen zuten.

> ORAIN

Aldaketa nagusia da dirulaguntza berri bat dagoela, eta eskubide gisa sortu dela: etxebizitza osagarria. Hori gutxieneko diru-sarrera errentadunek bakarrik jaso dezakete, eta bi laguntzok beti batera doaz. Oinarrizko errentadunen kasuak automatikoki Foru Aldundira bideratzen dituzte udaletako gizarte zerbitzuek urtarrila ezkero.

ESANAK

"Dirulaguntza berrien alde ona da urte osoan emango direla; txarra, egotekotan, batzuek gutxiago jaso dezaketela "

Maider Aizkorbe > Teknikaria

"Etxebizitza osagarria eskubide gisa sortu izana aurrerapauso garrantzitsua da, bermatuta geratzen delako"

Iñigo Garitano > Ongizate burua

"Gure eskatzaile askok ezin dute jaso oinarrizko errenta, eta alokairurako dirulaguntza barik gera daitezke"

Veronica Solaguren > Gizarte laguntzailea

herriko udal zerbitzuetara jo behar da. Argazkian, Arrasateko BAZ. UBANE MADERA

tzekoa baino. Aurten, 17,3 milioi euroko aurrekontua du Eusko Jaurlaritzak AESetarako. Onuradun izateko, norbanakoak ezin du hileko 1.035 euro garbi baino gehiago irabazi, baina oso kasu desberdinak daude. Gainera, bi multzoak bateraezinak dira: hau da, pertsona berberak ezin du jaso oinarrizko errenta eta etxebizitza osagarria, batetik, eta AESak, bestetik.

"AURRERAPAUSOA DA"

Orain arte, etxebizitza osagarri dirulaguntza ez zegoenez, alokairua ordaintzera ailegatzen ez zirenek AESak jaso ahal zituzten, eta horien bidez ordaintzen zuten errenta. Hipoteka ordaintzen dabiltzanek, aldiz, jarraitu ahal izango dute AESak eskatzen berau ordaintzeko, etxebizitza osagarria alokairurako bakarrik delako. Arau aldetik datozen berritasun horiek AESen legearen errebisioan txertatuta daude, eta zehaztapen handiagoak etorriko dira Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika saila bukatzen dabilen dekretu osagarri baten.

Berritasun horrek arrisku bat ekar dezake: egoerak pertsonak bezain desberdinak direnez, une jakin baten dirulaguntza barik eta dirulaguntza eskatzeko aukera barik gera daiteke bateren bat. Izan ere, hilero-hilero onuradunek dagokien gizarte zerbitzuetara joan behar dute eta euren egoeraren berri eman, eta egoera hori frogatzen duten agiri guztiak aurkeztu: alokairuaren kontratua, adibidez, alokairua ordaintzeko dirulaguntza jasotzen badute. Era berean, derrigortuta daude euren egoeran gertatzen diren aldaketen berri emateko. Hala, Arrasateko Udal Ongizate zerbitzuburuak, Iñigo Garitanok, azaltzen du zer gerta daitekeen: "Orain arte, AESen kasuan, %80tik gorako gastua etxeko errenta ordaintzeko zen. Orain, etxebizitza osagarria kobratzen dutenek ezingo dituzte AESak eskatu. Kasu batzuetan, galtzen irten daitezke".

Iaz, Arrasateko Udalak 500.000 euroko gastua egin zuen AESetan. Aurten, ikusteko dago, baina kopuru hori dezente jaitsiko da. Dagoeneko 90 dirulaguntza eskaera onartu dituzte Arrasaten.

Beste ñabardura bat, eta beste egoera hipotetiko bat: etxebizitza bakoitzeko ezin dira bi dirulaguntza baino gehiago eman, iruzurrak saihesteko; baina, errealitatean, familia-unitate desberdinek etxe bakarra konpartitzen dute, direla norbanakoak, direla batera bizi izatera joan behar izan duten familia osoak.

Bestalde, bailaran, orain arteko dirulaguntza eskaera gehienak AESetarako izaten ziren. Eta, hasieran, datu positiboa den horrek ondorio txar bat izan dezake: izan ere, bailarako kasu asko muturrekoak ez direnez, AESak eskatzen jarraituko dute. Horrek ekar dezake dirua gura baino agudoago gastatzea, Eskoriatzako Udaleko gizarte laguntzaileak dioskunez: "AESak murriztu egin dituzte, aurreikusi dutelako etxebizitza osagarriarekin helduko dela behar horiek asetzeko. Baina gure kasuan, kontuan hartu behar da etxebizitza osagarrirako ez dagoela jende asko. Eta eskatzaile askok ez dituenez betetzen oinarrizko errenta jasotzeko baldintzak, ezin dute etxebizitza osagarria eskatu, biak batera doazelako".

Hala ere, errealitatean, erakundeetako arduradunek, eta batez ere udaletako gizarte laguntzaileek –egoera eta pertsona aurrez aurre eta ondoen ezagutzen dutenek– zuhurtziarekin, sentsibilitatearekin eta zentzu onarekin jokatzen dute, batez ere arauak aldatzen doazen honetan. Bestalde, bailarako gizarte zerbitzu gehienek alde on baino txar gehiago ikusten dizkiete aldaketei; adibidez, etxebizitza osagarria eskubide gisa sortu izanari "aurrerapausoa" dela deritzote hainbatek. Gainera, orain arte bailarako udal zerbitzu gehienek ez dute jaso zalantzak aurkez ditzakeen kasurik.

DENBORAK ESANGO DU

Euskadin, krisiaren eraginez gehien hazi direnak diru-sarrera berme errentarako eskaerak dira. Hala, 2009. urte hasieran, 34.568 eskatzaile izan zituen errenta horrek, eta urte bukaerarako 48.489 ziren.

Horrez gain, krisiaren ondorioak: ERE-en eraginez-eta, lanik gabe geratu den eta hipoteka ordaintzen dabilen jendea hasi da joaten gizarte zerbitzuetara galdezka; lehen gizarte dirulaguntzak zeudenik ere ez zekitenak, askotan, eta orain egoera berri baten aurrean daudenak. Gehienen asmoa da lana topatzea, baina informazio bila ere joaten hasiak dira. Langabe berrien horien kasuan, arazoa izaten da gizarte dirulaguntzak diru-sarreren arabera ematen direla, eta ez zorren arabera.

Urteak aurrera egin ahala ikusiko da aldaketak onerako diren; administrazioendako baino gehiago, azken baten, errenta horien premia dutenendako.

Diru-sarrera berme errenta

> BALDINTZAK
Dirulaguntza oinarrizkoena da, lehen oinarrizko errenta izena zuena, hilean 1.011,4 euro garbi edo gutxiagoko diru-sarrerak dituztenendako. Eskubidea da. Erroldatuta egon behar da, beste baldintza batzuen artean.

> ORDAINKETA
Foru Aldundiak bideratzen du, eta hileko 650 euroko laguntza da.

> PLAN AITZINDARIA
Jaurlaritzak plan aitzindari bat abian jarriko du (plan pilotua), errenta hori lotzeko lana bilatzeko konpromisoarekin.

Etxebizitza osagarria

> BALDINTZAK
Sortu berria da, eta eskubidea da: baldintzak betetzen dituzten guztiei, eskatuz gero, eman behar diete. Bi baldintza daude: diru-sarrera berme errentaduna izatea, eta alokairuan bizi izatea.

> AURREKONTUA
Aurten, 43,1 milioi euroko partida gorde da horretarako. Dena dela, eskubidea denez, aurrekontua bukatzea ezin daiteke arrazoia izan dirulaguntza eteteko.

> ORDAINKETA
Hilean 250 eta 320 euro artean.

Gizarte larrialdi laguntza

> BALDINTZAK
Udalek ematen dute, Eusko Jaurlaritzak horretarako duen dirua baliatuz. Ez da eskubidea, hau da, gizarte zerbitzuek erabakitzen dute, kasu bakoitza aztertu eta gero, dirulaguntza jaso behar duen edo ez. Espedientea urte hasieran onartzen da, eta ordainketak hilero egiten dira.

> AURREKONTUA
Aurten, Eusko Jaurlaritzak 17,3 milioi euro aurreikusi ditu laguntza hauetarako.

> ORDAINKETA
Urtero 1.100 eta 3.840 euro artean.

DESKONTUAK
bigarren eskuko arropa, oinetako eta osagarriak
%50
Emaús
Nafarroa Etorbidea, 23. ARRASATE
943367534

Carrascal aroztegia
SUKALDERAKO ALTZARIAK
BAINURAKO ALTZARIAK
HORMA ARMAIRUAK
BESTELAKO ARMAIRUAK
Ekutio 4, Pab. 14-15
Uribarri Auzoa
20500 Arrasate
Tel./Faxa: 943 79 01 82
scarrasc_1@infonegocio.com
FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA

ESKAINTZA BEREZIAK!

ZERBITZUAK > DEBAGOIENEKO OSPITALEA

Ospitaleko buruek diote "astakeria" dela aparkalekuen arazoagatik obrak geldiaraztea

Arrasateko alkatea ez dator bat aparkalekuak egiteko ardura Udalarengan bakarrik uztearekin

J. IRIONDO/J. BEREZIARTUA > ARRASATE

Debagoieneko ospitaleko aparkalekuen auzia puri-purian dago. Are gehiago, ospitale berriaren instalazioen obrak martxa onean doazela ikusita. Izan ere, gauza jakina da Arrasateko eskualde ospitale inguruan aparkatzea ez dela batere erraza, eta herritarrak horren kexu dira aspalditik. Aparkaleku premia agerikoa da, eta autoa uzteko toki gehiago egokitzeak ezinbestekoa dirudi. Horretan ados daude bai Arrasateko Udala eta baita ospitaleko zuzendaritza ere.

Eztabaida sortu da aparkalekuok egitearen ardura nori dagokion erabakitzerakoan. Ospitaleko arduradunek asteon salatu dute Arrasateko Udalak mehatxu egin duela ospitale berriaren lanak geldiaraziko dituela Osakidetzak aparkalekuak egiten ez baditu. Hori urtarril amaieran ateratako ebazpenean ezagutarazi zuen Udalak. Hori dela eta, Jose Luis Angulo Debagoieneko ospitaleko gerenteak adierazi du "astakeria" litzatekeela aparkalekuen arazoengatik ospitaleko instalazio berrien lanak geldiaraztea: "Hedabideetan agertu denaren eta Udalak bidali digun ebazpenaren arabera, Osakidetzak ustez adostutako 300 aparkalekuak egin ez dituelako, ospitalea eraikitzeko lizentzia bertan behera utziko dute. Gatazka hau konpondu egin beharko da dagokion tokian; onargarria iruditzen ez zaiguna da ospitale berriaren lizentzia bertan behera uztearen mehatxua egitea. Astakeria handia iruditzen zaigu".

Aparkatzeko arazoak ospitalean. J.I.

"BEHAR DEN MODUAN ULERTU"

Ino Galparso Arrasateko alkateak adierazi du Osakidetzak proposamen egokirik egin ezean lanak geldiaraziko zituela ohartaraztea "behar den moduan" ulertu behar dela. Hau da, ez du uste horrelako neurririk hartu beharko denik: "Normala da presa eskatzea; administrazioak beti jartzen ditu epeak adostutako konpromisoak betetzeko.

Izan ere, Angulok hartutako konpromisoa ulertzen badu eraikin berrian langileendako 127 aparkaleku egokitzearekin, bestelakoa da alkatearen iritzia; hau da, Galparsoro ez dator bat gainontzeko aparkalekuen ardura Udalarengan bakarrik uztearekin: "Denon interesa da, eta inorena baino lehen ospitaleko gerentearenak izan behar du hara doan jendea modu erosoan joan ahal izatea". Gainera, gerenteak esandakoaren aurka, alkateak dio ziur dela beste ospitale publikoetako aparkalekuak Osakidetzak ordaindu izan dituela, nahiz eta gero besteren batek kudeatu.

Dena den, ika-mikak utzi eta adostasuna lortzeko asmoa agertu du Udalak, helburua aparkalekuak direlako.

ESANAK

"Astakeria deritzogu ospitale berriaren lizentzia bertan behera uztearen mehatxua egiteari"

Jose Luis Angulo
> Debagoieneko ospitaleko gerentea

"Gerentearen interesa izan behar da, beste inorena baino lehen, jendea modu erosoan joan ahal izatea"

Ino Galparsoro
> Arrasateko alkatea

> ZERBITZUAK

Merkealdia dago Emausen: dena erdi prezioan egongo da

Arrasateko Nafarroa etorbideko 23. zenbakian dagoen Emauseko dendan merkealdia hasi zen otsailaren 15ean: produktu guztiak erdi prezioan daude.

Izan ere, urriaren 31n denda zabaldu zenean eroslerik ez zitzaien falta izan, baina orain erritmoa asko moteldu dela diote. Erosleak erakartzeko saiakera da, ahaztu barik, noski, Emausen helburu bikoitza: gizarteratzea eta ingurumenaren zaintza.

> BATZARRA

Bailarako Agifesek batzarrerako dei egin die bazkideei

Debagoieneko Agifesek jakinarazi nahi die elkarteko kideei batzar informatiboa egingo duela otsailaren 24an, eguaztenean, 18:30ean, Bergarako kultura etxean.

Batzarrean berba egingo dute, besteak beste, Bergaran duten egoitza laga beharraz eta horren ondorioez; Donostiako batzar orokorrean landutako gaiez; eta zuzendaritza batzorde berriaren osaketaz.

AZPIEGITURAK > ABIADURA HANDIKO TRENA

Eskoriatza eta Aramaio arteko Uriarteko zubia egiten hasi dira

Bi herrien arteko zati osoak bost kilometro eta erdi izango ditu; bi herenak lur azpitik joango dira

JOKIN BEREZIARTUA > ESKORIATZA

Adif erakunde publikoa hasi da Abiadura Handiko Trenak Eskoriatza eta Aramaio lotuko dituen tartearen barruan joango den Uriarteko zubia eraikitzen. Mikel Cabieces Espainiako Gobernuaren EAEko ordezkariak prentsa ohar baten bidez jakinarazi duenez, Uriarteko biaduktuaren luzera 282 metro izango da. Zubiak bost oinarri izango ditu eta oinarriok 17 eta 38 metro arteko altuera izango dute.

Gainera, Eskoriatza eta Aramaio arteko zatiak bost kilometro eta erdi izango dituela zehaztu du eta horietatik bi herenak, hau da, hiru kilometro eta erdi, lur azpitik joango direla gaineratu du. Espainiako Gobernuko ordezkariak, bestalde, Uriarteko zubia egiten hasteak azpiegituraren "etengabeko aurrerapena" islatzen duela adierazi du, dioenez, Euskal Herriaren "bilakaerako ezinbestekoa" izango den azpiegitura amaitze aldera. Azkenik, Eskoriatza eta Aramaio arteko zatia Uruburu I, Uruburu II, Induspe eta Mazmelako tunelekin eta Zarimutz eta Uriarteko zubiekin osatuko dela gogoratu du Cabiecesek.

DATUA

282

METROKO LUZERA

Uriarteko zubiak 282 metroko luzera izango du eta bost oinarri izango ditu. Oinarriek 17 eta 38 metro arteko altuera izango dute.

BERGARA-ANTZUOLA, LEHIAKETARA

Bergara eta Antzuola arteko zatia egingo duen enpresa aukeratzeko lehiaketara. hamabi hautagai aurkeztu dira; horietatik hamar aldi baterako batu diren enpresak dira –UTE– eta beste bi indibidualki aurkeztu dira. Obraren aurrekontua 125 milioi euro da eta enpresa arduradunak 36 hilabeteko epea izango du lanak amaitzeko. Zati osoaren luzera 4.289 metro izango da, eta, orografikoki oso konplexua denez, AHTren obra guztian orain arte aurreikusi den tunelik luzeena eskatuko du: 3.706 metro izango dituen Kortatxo-Sakon tunela, hain zuzen.



MIREIA BIKUÑA

1.000 txerriki-pintxo banatu dituzte jardunaldi gastronomikoetan

Aratusteak zirela aprobetxatuta, Debagoieneko IV. jardunaldi gastronomikoen aurkezpena egin zuten martitzen arratsaldean Oñatin. Mankomunitateak antolatzen dituen jardunaldien laugarren edizioa da oraingoa eta txerrikia izango da produktu izar. Hori dela-eta, Oñatiko ekitaldian Basatxerri txerriki ekoizlearen produktuekin egindako 1.000 pintxotik gora egin eta banatu zituzten: txistorrarenak, odolkiarenak, trufa eta patearenak.

AZPIEGITURAK > ARAMAIOKO LUR-JAUSIA

Betiko bidea konpontzeko exijitu dute hamar elkartek

Udalaren arabera, Suñaboluetan, errekaren beste aldean behin betiko errepidea egingo dute

M.B. > ARAMAIO

Aramaioko hamar elkartek Arabako Diputazioari, Jaurlaritzari eta Adif Ute-Ave Mondragoneko teknikariei eskutitza bidali diete asteon, eskatzen Aramaio eta Arrasate lotzen dituen A-2620 errepidea "ahalik eta azkarren" zabal dezatela, "erabateko" segurtasun bermearekin. Horrekin batera, exijitu diete arazo horren gainean hartzen diren erabakien berri emateko herriari.

Esan bezala, hamar taldek sinatu dute eskutitza: Aramaio Pilota Elkartea, Aramaio Zainduz, Aramaioko Sagarzaleen Elkartea, OBT, Itur Zuri Emakume Elkartea, Lagun Artea Dantzari Taldea, Orixol Mendizale Elkartea, San Martin Eskolako Guraso Elkartea, Trikitixa Eskola eta Txirritola Euskara Elkarteak.

Salatu dute Azkoaga, Zabola, Untzilla eta Suñatik doan bideak ez dituela moztutako errepidetik zebilen zirkulazioari bidea emateko baldintzak betetzen.

ERREKAREN BESTE ALDEAN BIDEA

Bestalde, Udalak iragarri duenez, Suñabolueta inguruan, errekaren beste aldean, behin betiko izango den errepidea prestatu behar dute. Dena dela, lan horiek egiten dituzten bitartean, Zabola-Untzillako bidea erabiltzen jarraitu beharko dela esan du.

POLITIKA > 'ZUTIK EUSKAL HERRIA' DOKUMENTUA

Ezker abertzaleak bide politiko eta demokratikoen aldeko mezua zabaldu du

Asteon aurkeztutako agirian, indar borroka molde guztiak indar metaketaren zerbitzura jarriko dituztela iragarri dute

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Azken hilabeteotako eztabaida prozesuari amaiera emanaz, ezker abertzaleak eztabaida horren emaitzak ezagutarazi ditu asteon *Zutik Euskal Herria* izeneko dokumentuan. Aurrerantzean jarraitu beharreko estrategiaz hitz egiten du horretan. Besteak beste, indar borroka molde guztiak indar metaketaren zerbitzura jarriko dituztela iragarri dute eta indar politiko eta demokratikoak bakarrik erabiltzeko konpromisoa berresten dutela dio.

Ezker abertzaleak uste du aldaketa politikorako baldintzak sortuta daudela eta baliatu beharra dagoela: "Hamarkadotako lan, esfortzu eta borrokaren bidez zabaldutako ate hori zeharkatu eta aldaketa politikoa gauzatzea da orain erronka". Bestalde, prozesuan atzera bueltarik izan ez dadin, indarrak biltzera deitu ditu euskal gizartea eta indar aurrerakoiak.

ZUBIZARRETAREN IRITZIA

Horren harira, ezker abertzaleko kide Xabier Zubizarretak hausnarketa horren gaineko xehetasuna egin digu. Haren arabera: "Herritarren borondatea baldin bada errespetatu behar dena, indarraren erabilpena baztertu beharra dago eta guk horren aldeko apustu garbia egiten dugu. Noski, alde guztietatik errespetatu beharko da baldintza hori".

ERREAKZIOAK

Lourdes Idoiaga
EAJ

"Altsasun esandakoa berresteaz gain, salto kualitatiboa egin du ezker abertzaleak, nahitaez bide demokratikoetatik jo behar dela esanda. ETAk ekintza bat egingo balu, hau sinatzen dutenei desmarkea eskatuko zaie, idatzita geratu delako. Borondatearen bidea da".

Inazio Garro
Aralar

"Pozgarria da Aralarrek egin zuen moduan, gaur egun Batasunak ordezkatzen duen ezker abertzalearen zati handiak horrelako hausnarketa egin izana eta horrelako mezuak zabaltzea. Dena dela, bestelako aurrerapausoak ere eman beharko dira".

Aritz Arrieta
PSE

"Agiri horretan ez dute gauza berririk esaten eta euren sinesgarritasuna galduta dago aspalditik. Arraroa iruditzen zait Irlandako negoziazioekin egiten duten konparazioa. Funtsezko ezberdintasuna dago tartean: Sinn Feinek IRAren indarkeria gaitzesten zuela".

Itziar Lamarain
PP

"Hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko siglak aurkitzeko modu bat dela iruditzen zaigu. Bidea bilatzen ari direla uste dut; ez dago gaizki. Baina bidea benetan bilatu behar da ETAri ezetz esanaz. Hori horrela denean bide hobea aurkituko dute ezker abertzalekoek".

Pello Urizar
EA

"Adierazpena berria eta ausarta da. Aro berri batean gaude eta hor garrantzitsuena zera da: alderdi subiranisten arteko adostasuna autodeterminazio eskubidearen aitorpenaren aldeko edozein aurrerapausok soilik bide zibilen eta demokratikoei jarraituz etorri behar duela".

Juan Carlos Bengoa
H1!

"Eztabaida positibotzat jotzen badugu ere, etsipena eta desengainua agertu nahi ditugu jasota dauden edukiengatik, eta eduki horietan esaten ez denagatik ere. Testuak ETA aipatu ere egiten ez du eta ezker abertzaleak prozesu demokratiko bezala ulertzen duena salatzen dugu".

Juan Luis Merino
EB-Berdeak

"Proposamena bide onetik doa. Dena dela, gogoan izan behar du ETA hor dagoela eta, hortaz, bere disoluzioa exijitu behar du. Modu horretan euskal gizarteari erakutsiko dio bide politiko eta demokratikoen aldeko apustua garbia dela. Egindako apustua positiboa bada ere, ez da berria".

Ander Rodriguez
Alternatiba

"Ezker abertzaleak emandako pausoa positiboa eta itxaropentsua da. Asmo horiek behin betiko bakea ekar dezaten nahi dugu. Baina horretarako ezinbestekoa da hitzetatik gertaeretara pasatzea. Bake prozesu batek guztien inplikazioa eskatzen du".

zabalik

Oskar Elizburu

Berrikusi? Bai ba!

Berrikusi behar dira, jakina! Badakit asmoa murriztailea dena; badakit PPk eta PSEk gutxiago eskatzea nahi dutena. Ezer ez eskatzea nahiko luketela…

Eztabaida zabaltzea da, baina, niri gustatu zaidana.

Gehiegitan aipatzen digute Hizkuntza Eskakizunetan gehiegi eskatzen zaiela lanpostu publikoetara aurkezten direnei, erdaldunenganako diskriminazioa dagoela; izan gaitezen serioak!

Lanpostu publikoetan mailakako eskakizunak egon behar dutela jakinekoa da; batzuetan gehiegi eskatuko zela ere onar daiteke (adibideak egongo dira); baina kontuan hartu al dituzte, inoiz, alderantzizko kasuak?

"Baliabideak jarri beharko lituzke Hizkuntza Politikak: laguntzak, sariak..."

Nork onartuko luke suhiltzaile bat (adibidez), gaztelania ulertzen ez duelako, istripu baten behar den bizkortasunez ez aritzea? Eta iritsi denean azalpenak edo laguntza eskeak euskaraz jasoko balitu, zelako zerbitzua emango luke euskaraz ez baleki?

Jendearekin harremanen bat duten guztiek izan beharko lukete 1. eskakizuna, gutxienez. Maila apalean bada ere, bezeroei ulertzeko eta haiei erantzuteko maila izan beharko lukete; nahiz eta idatzi beharrik ez izan, leihatiletan egon ez…

Hortik gorako mugak labainkorrago ikusten ditut eta eginbeharren inguruko hausnarketa egin beharko genuke; baina, argi dago jendaurrean zerbitzua ahoz eta idatziz ematen duten guztiek beharko luketela, gutxienez, 2. eskakizuna.

Eta hori guztia bideratzeko baliabideak jarri beharko lituzke Hizkuntza Politikak: ikasteko laguntzak, denbora, erabilera guneak, ikasten eta erabiltzen dutenei sariak, prestigioa…

Zerbitzu publikoa denontzat da eta denok dugu eskubidea aukeratzen dugun hizkuntza ofizialean jasotzeko. Hori besterik ez dut eskatzen!

usteak uste

Mirian Biteri

Etxea teilatutik hasi dute ostera

Eguaztenean Elgetako eskolan egon nintzen, Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako Eskola 2.0 egitasmoaren harira, 5. mailakoen gelan jarritako arbel digitala ikusten. Arbela hor dago, baina oraindik inork ez daki erabiltzen. Irakasleek horren gaineko formazioa jaso beharko lukete aurretik, eta gero, materiala ikastetxeetara eraman. Gainera, han 5. eta 6. mailetakoak batera dauden arren, ikasle batzuek bakarrik izango dute ordenagailua; beraz, besteek koadernoarekin konformatu beharko dute. Non ikusi da hori?

gutunak

Bidegabekeria hauen guztien amaiera

Xabier Arregi Imaz
(Fontcalenteko espetxean preso)
Alacant

Alacanteko espetxean gatibu gaituzten euskal preso politikook, espainiar eta frantziar estatuetako suntsipen espetxeetan preso dauzkaten gainerako burkideekin batera, borroka eta errebindikazio dinamikari ekin diogu. Pasa berri den urtarrilean jarri dugu lehen mugarria.

Hasteko eta bat, beraz, ondorengo ideiara bildu nahi zaituztegu: borrokara. Borroka ez baita urruneko zelaietan egiten; kalean, instituzioetan, ikastetxeetan, lantegietan… bakoitzak bere duen esparru horretan garatzen baita.

Guk, hemen eta orain, espetxea dugu gure borroka esparru. Euskal herritarroi, oro har, ukatzen zaizkigun eskubide ezberdinen artean bai baitira beren-beregi, euskal preso politikooi sistematikoki ukatzen zaizkigunak.

Espetxeetan bizi dugun egoera ezin da gure herrian bizi den jazarpen egoeratik bereizi. Aspaldidanik uztarri berean jarriak dituzte gobernu espainol zein frantsesak herri eskubideen ukazioa eta espetxeratuta gaituztenon eskubide funtsezkoenen zapalketak. Azken urteotan maiz goratu dugu gure boza ukatzen zaizkigun eskubide hauen aldarrikapenean, eta oraingo honetan ere, horiexek gure protestaldiaren arrazoiak:

- Gaixo larri eta sendaezinak dituzten euskal preso politikoak kaleratzea eskatzen dugu. Espainiar espetxe legediak bere 92. artikuluan dioena betetzea, eta honenbestez, euskal herritarroi ezartzen zaizkigun salbuespeneko lege interpretazio ankerrei amaiera ematea.

- Bakartze politikarekin amaitzea. Espetxe berberetan gaituzten hainbat euskal herritar elkarrengandik bakartuta gaituzte. Politika honi amaiera ematea eskatzen dugu.

- Bizi arteko espetxe zigorrik ez. Espetxe legediaren salbuespenezko aplikazioek ahalbidetzen baitute euskal militante politikoek espetxean 30 edota 40 urte arteko zigorrak bete behar izatea. Politika bidegabe eta anker hau amai dadila eskatzen dugu.

Ikus daitekeenez, gizaki bezala, gure erabateko suntsiketa bilatzen duen, eta militante politiko garen heinean, gure errendizioa (garen horri uko egitea) jomuga duten neurriak ezartzen zaizkigu. Amaitzeko:

- Euskal preso politikoon Euskal Herriratzea. Dagokigun eskubideen jabe gure senideengandik gertu; inolako txantajearen objektu izan ez gaitezen. Estatuek gure senideen bizia eta osasuna txantajerako elementu gisa erabil ez dezaten.

- Estatus politikoa onartua izan dagigula. Euskal Herriaren, eta euskal herritarren, askatasunaren aldarrikapen eta defentsan aritzearen ondorioz, espetxeratu gaituzte.

Zio politikoek, beraz. Honenbestez, estatus horretxen onarpena errebindikatzen dugu.

Horra hor zuregana jotzearen arrazoia, irakurle: Euskal Preso Politikoen kolektiboak hasi duen borroka dinamikaren berri ematea, batetik; eta, zure ekarpena eskatzea, bestetik.

Borroka, hasieran, esan bezala, ez baita balio abstraktu bat, ezta urruneko mendi zelaietako jarduera bakarrik. Jarrera bat baita. Zuk, irakurle zaitugun horrek, zure ekarpena, aldarrikapen hauen alde eginez, edota berauek zabalduz, egin dezakezu.

Zuk hortik bultza eginez, eta guk hemendik tira eginez, bidegabekeria hauen amaiera gertuago izango den ustetan, besarkada estu bat.

IRAKURLEAREN GUTUNAK

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33
20570 BERGARA

Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Telefonoa:
943 25 05 01

Faxa:
943 25 05 13

Bergaran, patinajearekiko zaletasuna sustatzen

Jose Luis Gallastegi
(Hanka Labanka patinaje taldea)
Bergara

Aurten ere, orain dela bi urte egin genuen bezala, Bergarako Hanka Labanka patinaje taldeak urtarrilaren bian antolatu zuen, Labegaraietako kiroldegian, Bergaran patinajearekiko zaletasuna sustatzeko eguna. Hanka Labankaren ustez, oso arrakastatsua izan zen.

Goizez, 80 bat ume 8 urtetik 13 bitartekoak, eta, arratsaldez, jokeian aritu ginen hiru kanpotan, beste 40 bat pertsonak,

Honekin batera nahi dugu eskertu Bergarako udaleko kirol arduradunei, urtean zehar Labegaraietako kiroldegia erabiltzen uzteagatik, horrek ez du preziorik-eta.

Txiki eta handi, ondo pasatu zenutelakoan, datorren urtean berriz ikusiko gara Gabonetako patinaje ekintzetan.

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak eta Goienka2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Jendarte osoarendako "ezkerreko politikak" bultzatu nahi dituztela dio Oskar Matutek. "Ezker berri eta erradikalaren" alde egiten dutela eta beste euskal ezker bat sortu nahi dutela, "demokratikoa eta horizontala", abangoardiaren gidaritzape bakoa. 250 bat lagunek osatzen dute, oraingoz, Alternatiba, baina dio ekaineko sorrera batzarrean gehiago izango direla.

Oskar Matute > Alternatibako bozeramailea

"Ezkerreko gune iraunkor eta indartsua eraiki nahi dugu Euskal Herrian"

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Oskar Matute (Bilbo, 1972) da Alternatibako bozeramailea. Ekainean egingo dute lehenengo biltzar nazionala eta orduan aukeratuko dituzte karguak. Alternatibak zer izan nahi duen eta EB zergatik utzi zuten kontatu digu, besteak beste.

Oskar Matute da EBtik irten eta Alternatiba alderdi berria sortu dutenen bozeramailea. ARGAZKI PRESS

Zergatik joan zineten EBtik?

Alderdiak erakundeen kudeaketan buru-belarri ziharduen eta alderdiaren bizi iraupenaz arduratuago, jendartearendako ezkerreko politikak bultzatzeaz baino. Hausnarketa hori behin eta berriro egin genuen alderdiaren organo ezberdinetan, baina ez genuen erantzunik jaso.

Kaltegarria izan zen EBrendako zortzi urtez Jaurlaritzan egon izana EAJ eta EArekin?

Gauza on asko egin ziren, baina gobernu haien eskumako politikei makurtzeak ondorio txarrak ekarri zizkigun. Ez Ibarretxe Plana edo erabakitzeko eskubidea babestu izangatik, orain EBkoek dioten moduan, baizik eta aurrekontuei babesa emateagatik edo gobernu hartako beste sail batzuetako politika eskumakoei babesa emateagatik.

Zer eskaini nahi dio Alternatibak jendarteari?

Beste euskal ezker bat sortu nahi dugu: demokratikoa eta horizontala. Bestalde, feminismoan, burujabetzan, internazionalismoan, ekologismoan egon daitezkeen askapen borrokak batu nahi ditugu. Edozein gai denon artean erabaki nahi dugu, ezer egon barik zuzendaritza kupula batek erabakita aldez aurretik. Euskal Herria osatzen duten zazpi herrialdeak dira gure eragin eta jardun eremua. Ezker berri eta erradikalaren alde egiten dugu. Frantziako MTA edo Portugalgo Bloco de Esquerdas dira gure erreferentziak.

Berez zatituta dagoen ezkerra zatituago dago orain zuen aukerarekin.

Bai, eta horrek eskumari mesede egiten dio. Baina ezkerreko alderdien sakabanaketa hori zerbaitegatik dela ere pentsatu beharko dugu. Uste dugu Euskal Herrian badagoela hazirik eskerreko joera guztiak erein eta batzeko alderdi indartsu bakarrean. Batasunera ailegatzeko sakabanaketatik abiatzea ona izan daiteke. Mugimendu sozialekin bat egingo duen eta erakundeetako borroka beste borroka modu bat bezala hartuko duen ezkerreko alderdi indartsua osatu nahiko genuke. Gustuko ez ditugun politika neoliberal horiei aurre egiteko benetako alternatiba sortzeko gauza izan beharko genuke. Amestea ona da.

Gaur egungo zein alderdi ikusten duzue ezker berri horretan?

Siglei begiratu baino gehiago, funtzionamendu parametro argiak zehaztu beharko ditugu. Batetik, pertsona guztiendako eskubideak aintzat hartzen dituen ezkerra izan beharko du, Euskal Herriko pertsona ororen giza eskubide eta eskubide zibil eta politiko guztiak bermatuko dituen alternatiba. Bestetik, jendartea eraldatzeko mugimendu sozialek ezinbestekoak izan beharko dute. Azkenik, Euskal Herrian ezkerreko alderdien batasunaz gutxiago berba egin eta, benetan, hori gauza dadin lanean has gaitezen, abangoardia barik, inor baztertu barik eta denon parte-hartzearekin. Hiru ardatz horiek abiapuntu ona lirateke.

EB-TIK KANPO

"EBko buruzagitza arduratuta zegoen, batez ere, alderdiaren bizi iraupenaz"

ALTERNATIBA

"Beste euskal ezker bat sortu nahi dugu: demokratikoa eta horizontala"

BATASUNA

"Hitzak eta ekintzak konpas beretik doazela erakutsi behar du ezker abertzaleak"

Alternatiba hurrengo hauteskundeetan egongo da?

Bai. Ez gara sortu presio *lobby* izateko, ezta ideien laborategi huts izateko ere, eta ez gara intelektual talde bat. Talde politiko bat osatu nahi dugu, batuko duena ezkerreko sentitzen den jendearen zati bat. Euskal ezker pluralaren zati bat gara. Ondo goazen ikusteko hauteskundeetara aurkeztu behar dugu, ezinbestean.

Bakarrik aurkeztuko zarete?

Oraindik ez diogu eztabaida horri heldu. Une honetan gabiltza auto-antolatzen. Ez inoren aurka. Bestetik, esan dudan moduan, euskal ezker guztia batzeko ahaleginak egingo ditugu. Hori da gure borondatea. Tokian tokiko errealitatea aintzat hartuko dugu aukera ezberdinak aztertzerakoan. Betiere, ezkerreko ikuspegitik eta naturaren aurkako hitzarmenak egin barik.

Ze iritzi daukazu legez kanporatutako ezker abertzalearen azken hausnarketen ondorioen gainean?

Positiboa da. Aintzat hartzekoa, bide politiko eta biolentziarik bakoen aldeko apustu garbia egin dutelako. Hitzetatik ekintzetara pasatzea ezinbestekoa da, halere. Testuak soinu ona dauka, baina egunerokora ekarri behar dute, hitzak eta ekintzak konpas beretik doazela erakusteko. Zalantzak handiak dira: batetik, gobernuak darabil hauteskunde ikuspegi hutsa, eta, bestetik, ikusteko dago ETAk zer egingo duen. ETA traba besterik ez da normalizazio politikorako.

Legez kanporatutako ezker abertzalea ordezkatuta egongo da hurrengo hauteskundeetan?

Zaila da hori jakitea. Barne Ministerioak dauka giltza, hark bultzatu zuen-eta Alderdien Lege arbitrarioa, propio Batasunaren inguruko ezker abertzalea legez kanporatu, joko arauak aldatu eta indar konstituzionalistak boterera iristeko helburuarekin sortutakoa. Une honetan, hori da sozialisten eta polularren lehentasuna, baita Rubalcabarena ere, eta gutxiago behin betiko konponbide politikoa eta bakea lortzea.

ETAren amaiera gertuago?

Konplikatua da hori, saiakera asko egon dira-eta. Baina gehiengoa bide politiko eta baketsuen aldekoa da, eta, hortaz, ETA soberan dago eta desagertu egin beharko luke.

Polo subiranista horretan kokatzen du bere burua Alternatibak?

Euskal Herriaren, burujabetzaren eta autodeterminazio eskubidearen alde gaude. Baina ezkerrak motibatzen gaitu. Nazioa eta jendartea era askotara osa daitezke, baina bakarrik ezkerretik eraikitzen da berdintasunean. Aniztasuna, gardentasuna eta abangoardiei uko egitea dira baldintzak. Euskal Herrian ezkerreko espazio indartsu eta iraunkorra eraikitzeko borondatea daukagu. Polo subiranistan bada, ederki; bestela, beste nonbaiten eraiki beharko dugu.

Debagoieneko **GREMIOAK**



AROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

DEKORAZIOA

J. ORTIZ
Bergara
• Mota guztietako pladur lanak
• Igeltsu-lanen dekorazioa
• Sabai eta apaletan espezialistak
• Isolamendu akustikoa
• Gremioen koordinazioa
Alkabieta kalea z/g.
T: 943 76 03 51 / 663 90 93 18

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

IMANOL ITURGINTZA
Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

OYANGUREN ITURGINTZA
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

VALES ITURGINTZA
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

ION LEIHOAK
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

YOSU THERMIK
Arrasate
• Lehio eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko lehioak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

LOREZAINTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Herriak

Arrasate > 18-23 **Bergara** >24-29 **Aretxabaleta** > 31-33 **Eskoriatza** > 34-35
Antzuola > 36 **Aramaio** > 37 **Elgeta** > 38 **Leintz Gatzaga** > 39

> ARRASATE
Emakumeendako 'Takarraran' lasterketa aurkeztu dute, 2. urtez **> 11**

> OÑATI
Ingurumen Astean, Zumaiako flysch-a bisitatzeko irteera izango da **> 18**

> ARETXABALETA
Berdegunean zer egin erabakitzeko berriz batuko dira bihar, zapatua **> 20**

> ELGETA
Arbel digitala ipini dute 5. eta 6. mailakoen gelan, eskolan **> 27**

ELGETA > MEMORIA HISTORIKOA

Gerraren gaineko ibilbidearen harreraguneko lanak hasita daude

APIRILA
Dena ondo bidean, lan handienak apirilerako bukatuta egotea espero du Udalak

BIDEA
Intxorta barreneko bidearen lan nagusiak ekainean egingo dira, eguraldi onarekin

Espaloia antzokian izango da harreragunea; honako itxura izango du. INTXORTA 1937 KULTURA ELKARTEA

LEIRE KORTABARRIA > ELGETA

Datozen hilabeteotan aurrerapauso handia emango du *Gerra Zibila Euskal Herrian: Ibilbide tematikoa Intxortaren magalean* proiektuak. Hiru lan ildo ditu proiektu horrek: ibilbidearen harreragunea, Espaloia antzokian egongo dena; ibilbidea bera; eta 1936ko gerraren gaineko panelak ipintzea. Bada, harreraguneko lanak hasita daude, panelen diseinua oraingo astean bukatzekoak ziren, eta ibilbideko lanak eguraldiak laguntzen duenean hasiko dituzte, Elgetako alkate Oxel Erostarbek laburtzen duen moduan. Dena ondo bidean, apirilerako, hilabete esanguratsua gerraren historian Elgetan, emaitza batzuk ikusi ahal izango dira: "Apirilaren 28an hartu zuten Elgeta, eta espero dugu egun horretarako lan handienak bukatuta egotea. Hori gurako genuke", dira Erostarberen hitzak. "Eguraldia ez dabil laguntzen, baina espero dugu apiril bukaerarako lanak aurreratu samar egotea, bai behintzat harreragunea, eta panelak ipinita egotea. Bidean egin beharreko hainbat lan seguruenik ekainean egingo ditugu, orain lanak egiten hasten bagara arriskua dago-eta lubakiak apurtzeko".

HERRITARREI DEIA

Harreragune eta erakustoki izango dena badoa forma hartzen, hortaz. Bi gune izango ditu: beheko aldean maketa egongo da, eta goiko gelan panel informatiboak, Izen Guztiak, Aurpegi Guztiak gunea Debagoieneko errepresaliatu guztien argazki eta izenarekin, bideo gela eta hainbat erakusketa-bitrina.

Bitrina horietan, besteak beste, gerra garaiko elementuak erakutsiko dituzte, eta, alkatearen esanetan, hainbat herritarrek laga egingo diote Udalari daukaten materiala. Halako objektuak dituztenei dei egiten die Udalak eurekin harremanetan jartzeko, materiala uzteko gertu baldin badaude. Dena dela, dagoeneko badute material asko: Elgetan aurkitutako hainbat arma –fusilak eta metrailadoreak– eta munizioa egongo dira, eta baita gudarien materiala ere: kaskoak, intsigniak, identifikazioak, txanponak... Garaiko eguneroko bizitzako gauzak ere izango dira: etxeko tresnak, adibidez. Dokumentuak ere bai: gerrako jakinarazpen eta agiriak, administrazioenak, alderdi politikoenak, sindikatuenak, abonuak...

Proiektua iaz apirilean aurkeztu zuten arduradunek. ARTXIBOA

Intxortatik Salbadorrerako bidea berreskuratuko da, trazatua aldatu ondoren

Intxortako frontearen barreneko ibilbidearen trazatuan aldaketa bat egin du Elgetako Udalak: hain zuzen, Intxortatik Salbadorrerako bidea berreskuratuko da, eta trazatuak ez du Antzuategitik joko, hasieran aurreikusten zen moduan. Hala, ibilbidea Elgetan hasi eta Asentziora joango da; Asentziotik Intxortako magaleko lubakiak ikusteko aukera izango da, La Belga izeneko gunera ailegatuta, eta horren ondoren, Salbadorrera jaitsiko da. Bidea bera egokitzeko lan gehienak ekainean, eguraldi onarekin egingo direla espero du Elgetako Udalak.

Elgetako ibilbide tematikoaren proiektu osoak 400.000 euroko aurrekontua dauka, eta Udalak lortu du Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak parte har dezaten proiektuan. Hala, orain arte, Jaurlaritzako Turismo Sailak 120.000 euro eman ditu; Foru Aldundiko Kultura Sailak, 22.000 euro, eta Turismo Sailak, 17.000. Elgetako Udalak harremanetan jarraitzen du beste departamentu batzuek ere finantzaketan parte har dezaten.

JENDARTEA > BEHERAPENEN AZOKA

Gaurtik domekara ateak zabalik ditu aukeren azokak Uarkapen

Aurtengo Merkemerkaua zerbitzu berriekin dator: umeendako puzgarriak, adibidez

UBANE MADERA > ARRASATE

Gaur, egubakoitza, 16:00etan zabalduko ditu ateak merkealdien herriko azoka gorenak: Merkemerkauak. Uarkaperen bueltan 18 saltoki ipini dituzte, "15 Arrasatekoak, bi Bergarakoak eta bat Aretxabaletakoa; gehienak dira arropa dendak, umeenak, gazteenak eta ohikoak", kontatu du Eñaut Iraetak, Arrasateko merkataritza sustatzeko bulegoko ordezkariak.

ORDUTEGI BERRIA ETA PUZGARRIAK

Gaur 21:00ak arte izango da Merkemerkaua zabalik. Bihar eta etzi, berriz, 10:30ean zabalduko dute, zapatuan 21:00ak arte eta domekan 15:00ak arte. Berria da ordutegia, "saltzaileek eurek hala eskatuta", ikusita domeka arratsaldeak motel samarrak zirela.

Berria da, baita ere, umeendako puzgarriak izango direla. Eta azokan bertan Ibai Arte txartela eskatzen dutenek botila bat ardo eskuratuko dutela ere bai.

Ez dena berria da Ibai Arte txartelarekin ordaindu ahal izango dela, "Ibai Arte txartelarekin bakarrik; bestela, esku dirutan ".

Kontuan hartu beharrekoa, berriz, da erositakoa bueltatzeko edo aldatzeko aukera saltoki bakoitzaren araberakoa dela.

BASERRITARREN AZOKA

Arrasateko baserriko produktuen lehen azoka

Merkemerkaua, baina, ez da izango asteburuko azoka bakarra; bihar, zapatua, baserriko produktuen azoka egingo dute (09:00-14:00, Seber Altuben). Gabonetako atsedenaren osteko lehena da, eta berritasunekin dator; besteak beste, Arrasateko baserritarren saltokiekin batera (10-12 bat), kanpoko gonbidatuak ere badatozelako: "Urteko lehena izanda, kanpotik ekarriko dituzte postu bereziak: arbola-landare hiru mintegi, baserrirako erreminta saltzaileak, otzaragile bat, orturako landara ekologiko saltzaile bat eta beste pare bat baserri produktu bereziekin (ekoizpen sistema ekologiko edo antzerakoak lantzen dituztenak)", kontatu du Marga Garmendia udal teknikariak.

AZOKA DAGOEN BAKOITZEAN ZOZKETA

Oparieki ere badator baserritarren azoka 2010ean: "Erosleei txarteltxo batzuk banatuko zaizkie, euren datuak ipintzeko, eta azoka bukaeran egun horretako bezeroen artean zozketatuko dute baserriko produktu sorta bat", dio Garmendiak. Bukatzeko, azokara joateko dei egin du: "Produktu oso kalitate onekoa, bertan ekoiztutakoa, garraiatu gabea eta hemengo klimatologia eta lurraldearekin bat datorrena" dagoelako.

bere ustez

Ander Etxeberria

'Normalité', 'normalité', 'normalité'

Aurrekoan amets bitxia izan nuen. Iberiar penintsulan, 2010ean, Parisek agintzen zuen. Nolatan? Berrehun urte lehenago Napoleonen tropak penintsulan sartu ziren, baina ez zuten alde egin. Gainera, orduan ahotan zebiltzan hitzak *liberté, égalité* eta *fraternité* baziren, azkenaldian *normalité* gailendu zen. Historia-fikzioko ametsak pasarte ezberdinak zituen: Zarzuelan, Espainiako presidente karguaren zin egite ekitaldian gendarmeen buruak gonbidatuta zeuden. *Normalité*, zioten agintean zeudenek. *Fête nationale*-an, uztailaren 14an, Madrileko buruzagiak Parisen zeuden ospakizunetan. *Nomalité*, egun horretan han egon beharra zen-eta. Gabonetan, TVEren bidez eman zuten Nicolas Sarkozyren mezu tradizionala. *Normalité*, eskubidea baitzen. Beste batean, *Armée française*-ko soldaduek hiru koloreko bandera Anetoko gurutzean jarri zuten. *Normalité*…

Irratiak iratzarri ninduen. Jaurlaritzako bozeramaile Idoia Mendia zen hitzaldia amaitzen: "…azken batean, hartu dugun neurria normaltasunaren adierazgarria da".

Horixe ba, normaltasuna hainbeste aipatzeak berak erakusten du egoera ez dela normala.

"Normaltasuna hainbeste aipatzeak berak erakusten du egoera ez dela normala"

> ELKARTASUNA

Arrasatearrak mediku lanetan nikaraguarrekin

Bost urtean Nikaraguan osasun arloan egindako borondatezko lanaren emaitza erakusteko hitzaldia eta argazki erakusketa antolatu dituzte datorren asterako. Gobernuz kanpoko Amsogra erakundeak egin ditu hitzorduak. Hitzaldia Kulturateko areto nagusian egingo dute otsailaren 25ean, eguena, 19:00etan, Nikaraguan lanean diharduten Ima Escribano eta Iñaki Agiriano medikuek . Erakusketa (*Una vueltecita por Nicaragua*), berriz, Harresi aretoan da, otsailaren 26 eta 27an, 12:00eatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

> ERLIJIOA

Gurutz bidea eta hainbat hitzaldi, garizumaren bueltan

Aratusteen ostean garizuma sasoia dator, fededun katolikoendako hitzordu garrantzitsuekin. Hala, egubakoitzero meza aurretik gurutze bidea errezatuko dute, parrokian. 18:30erako egin dute hitzordua.

Horrez gain, datozen lau eguenetarako hitzaldiak antolatu dituzte: "Aita karmeldar bat etorriko da, gogo-jardun edo antzeko hitzaldiak egitera, Jainkoaren esperientziari buruzkoak; interesgarriak izango dira", kontatu du Jon Molinak, parrokoetako batek. 19:45ean izango dira hitzaldiok, San Andresko lokaletan.

Mesedeetako ahizpak (parean), katekista eta bizilagunekin, jantziak paketetan sartzeko aukeraketa lanak egiten. U.M.

JENDARTEA > ELKARTASUNA

Arrasatearrengandik Haitirako elkartasun uholdea jaso dute Mesedeetako mojek

Hiru astean batu dituzten produktu guztiengatik eskerrak eman gura dizkiete arrasatearrei

U.M. > ARRASATE

Egunotan Mesedeetako ikastetxeko ikasgelak materiala biltzeko areto eta biltegi bilakatu dira. Eta mojak, katekistak eta bizilagunak, paketegile. Izan ere, lana barra-barra egin dute Haitirako arrasatearrengandik jasotako guztia paketetan sartzen.

Astelehena zen gauzak eramateko azken eguna, eta ordurako 174 kaxa bete produktu zituzten: jakiekin 50 kaxa (pasta, lekale, galletak, kontserbak…); jantzi eta etxerako bestelakoekin beste mordoxka bat…Aipamen berezia egin diete Santa Agedakoei, uniforme mordoxka ematearren. Baita Astorekoei ere, jantzi berriz eta baloiz betetako kaxa "mordoa" emateagatik. "Ospitalean ere batu dugu asko", kontatu dute.

HEMENDIK BEASAINERA

Hori guztia Beasainera eramango dute laster, Fernando Hernandez kamioilari arrasatearraren borondatezko laguntzarekin. Han, Arrasaten eta inguruan batutakoarekin edukiontzia bete eta itsasoz bestaldera bidaliko dute gero. Han gertu izango dira Mesedeetako ahizpa gehiago, hemendik bidalitakoa hartu eta Haitin banatzeko.

HITZORDUAK

Ardo bira berezia Haitiren alde

Otsailaren 27an Arrasate Bizirik ostalaritza elkarteak eta gobernuz kanpoko Harreman erakundeak "ardo bira berezia" antolatu dute. Barra bat ipiniko dute Biteri plazan, edari eta pintxoak "salneurri berezietan" saltzeko. Batutako guztia eta "ekimenera atxikitako tabernetan kontsumitzen den botila ardo bakoitzeko euro bat" Haitira bidaliko dute.

Bestalde, Harreman erakundeak badihardu Arrasaten dirua batzen Haitiren alde. Euskadiko Kutxan, Kutxan, CANen, La Caixan eta BBVAn kontu korronteak zabaldu dituzte.

eli senda

Elikadura • Naturopatia
Erreflexologia
Buruko masaje indiarra

Aurretiazko zita:
943 79 05 77

Iturriotz 33, behea 2
ARRASATE

Eguaztenean Emakume Txokoan egin zuten ekimenaren aurkezpena. JONE INUNTZIAGA

BERDINTASUNA > EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

'Takarraran' bigarren urtez, berdintasunera heltzeko asmoz

Emakumeen lasterketa martxoaren 6an egingo da; Portaloian hasi eta hotelean amaituko da

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Berdintasuna helmuga eta emakumeak bakarrik lasterketan, Emakumearen Nazioarteko Egunaren atarian: badator *Takarraran*. Emakumeen lasterketa bigarren urtez egingo dute aurten Arrasaten; eguaztenean aurkeztu zuten ekimena Emakume Txokoan. *Takarraran* Udaleko Berdintasun Sailaren eta Aukearen ekimenez jarri da martxan eta aurkezpenean izan ziren, besteak beste, Yolanda Perez de Arenaza eta Oihana Aranburu zinegotziak eta Iratxe Aranburu Aukeako kirol teknikaria.

PARTE-HARTZAILEAK, IRABAZLE

Lasterketa martxoaren 6an izango da, 12:30ean. Irteera Portaloian jarri dute eta erdialdean zehar ibilbidea egin ondoren, hotelean amaituko dute. Bestalde, parte-hartzea da ekimenaren esentzia, guztiak dira irabazle. Hala, hamar sari banatuko dituzte: lehen hirurei, beste sei zozketa bidez eta azken saria helmugan azken postuan sartzen denari. Azkenak ere merezi duelako.

OSPAKIZUNA > ARATUSTEAK

Haur, gaztetxo eta gurasoak izan ziren protagonista martitzenean

J.B. > ARRASATE

Ez zen joan den zapatuko jendetzarik bildu, baina martitzenean ere ez zen kolorerik falta izan Arrasateko kaleetan. Azken urteotan ohiko bihurtu denez, martitzeneko festan haurrak, gaztetxoak eta gurasoak izan ziren protagonista nagusiak. Arratsaldean Herriko Plazan egin zen mozorro desfileak hainbat ume batu zituen eta iluntze aldera musikak hartu zuen erreleboa, Samasuki txarangaren, Egan taldearen eta Arrasate Musikaleko neska-mutikoen eskutik.

SARDINA-EHORZKETA

Aratusteak ez dira sardina-ehorzketa egiten den arte amaitzen. Horretaz SUDC elkartekoak arduratzen dira eta aurten ere ez dute hutsik egin. Hala, herriko kaleetan segizioa egin ondoren, Herriko Plazan erre zuten sardina.

Piraten abordatzerik ez zen falta izan martitzen arratsaldean. UBANE MADERA

Hainbat arrasatear elkartu ziren sardina-ehorzketan; ekitaldi horrekin datorren urtera arte agurtu zituzten Aratusteak. MONDRABERRI

Mozorro desfilea Herriko Plazan. U.M.

Sevillana koadrila, desfile aurretik. U.M.

Kiss taldearen bisita izan genuen. U.M.

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Zenbaki
Aholkulariak
TÜV TÜV Internacional Grupo TÜV Rheinland
EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000

• **Juridikoa:**
- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

•**Laborala:** Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...
•**Fiskala:** Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak,...
•**Kontalibilitatea:** Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • *www.zenbaki.es*

> ESKUBALOIA

Ford Mugarrik Portugaleten jokatuko du bihar

Joan den asteko garaipenari esker Ford Mugarri Arrasatek hirugarren postuan jarraitzen du Euskadiko txapelketan. Bihar (18:30) Edu Orgazen mutilek Portugaleteren kantxan batu beharko dituzte puntuak, laugarren dagoen Askartzak ez harrapatzeko.

Gainera, aurrealdean kontrario zuzen diren Barakaldok, Egiak eta Askartzak ez dituzte asteburuan ligako kontrario gogorrenak izango, nahiz eta jaitsiera postuetan lehian dagoena askotan arriskutsuena izaten den.

> PILOTA

Arrasateko AGT pilota taldeak gaur emango ditu angulak

Arrasateko pilota taldeari laguntzeko egindako zozketako saria emango dute gaur, Eguren arrandegian (18:30). Lehenengo sarituak kilo bat angula eramango du etxera; ez da sari makala, baina ez da saridun bakarra izango, bigarren sarituak bi bisigu fresko jan ahal izango ditueta asteburuan.

SASKIBALOIA > LEHENENGO MAILA

Kategoriari eusteko beste pauso bat eman dezake MUk bihar

Javi Zurbanoren mutilek postu bat gorago dagoen ATE Asesoren La Salle izango du bihar kontrario, 18:00etan

MUko jokalari bat, La Sallekoekin kontrarioez ingurutatuta. GOIENKARIA

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak jaitsiera fasean kontrario zuzen izango duen La Salle izango du bihar aurrean (18:00, Iturripe). Eta Zurbanoren mutilek bihar erakusten badute joan den domekan Urdanetaren kontrako 20 minutuetan erakutsitako amorru eta garaipen gosea, La Sallekoek larri behar dute.

Zapatuan MUkoek 30 puntuko aldeagatik galdu zuten UPV Arabaren kantxan (97-67), baina domekan Urdanetak egurra jaso zuen Iturripen. Argindar arazoengatik urtarrilean bertan behera geratu zen partiduko 20 minutuak jokatzera etorri ziren Loiukoak, eta norbait damutuko zen bidaia alferrik egiteaz. Markagailuak 32-31 erakusten zuela hasi zituzten 20 minutu horiek, eta denbora tarte horretan etxekoek ia dena egin zuten ondo (82-64). Gainera, Urdanetaren kontrako puntu aldea ere MUren aldekoa da.

EUSKAL LIGAN, HASIERA ONA

Bestalde, MUko gazte mailako taldeak ondo hasi du Euskal Liga, jokatutako bi partiduak irabazi egin dituzte-eta. Hori bai, Baltzategiren mutilek azken segundora arte borrokatu behar izan dute bi garaipen horiek lortzeko, eta orain, kategoria horretako aurreko postuetan dira, Easorekin batera. Asteburuan Baskonia izango dute aurrean.

Zaldibar

EMAITZAK

Abokajarro-Komando Alpargat	2-7
Lasagabaster-Iluntz	7-4
Dribling-Cipris	2-4
Betrayer-Dublin	8-4

PARTIDUAK

Otsailak 20, zapatua EPAILEAK

10:30 Dribling-Abokajarro **Steaua del grifo**
11:30 Lasagabaster-Steaua del. **Dribling**
12:30 Cipris-Katenatxio **Lasagabaster**
16:00 Ekaitz-Fidel & Disc. **Betrayer**
17:00 Betrayer-McAwenDauen **Ekaitz**

Otsailak 21, domeka EPAILEAK

10:30 AT Celaya-Komando Alp. **Aldapa**
11:30 Aldapa-Iluntz **At Celaya**
12:30 Dublin-Iriztu **Iluntz**

SAILKAPENA

		P	J
1.	Dublin	27	9
2.	Dribling	24	9
3.	Iriztu	22	9
4.	Abokajarro	19	9
5.	Betrayer.	17	9
6.	Cipris	15	9
7.	AT Celaya	14	9
8.	Lasagabaster	14	9
9.	McAwenDauen	12	9
10.	Fidel & Disc	12	9
11.	Ekaitz	12	9
12.	Komando Alpargat	5	9
13.	Iluntz	4	9
14.	Aldapa	4	9
15.	Katenatxio	3	9
16.	Steaua del grifo	0	9

Antzezlaneko protagonista bi. KRI KRA KRO

ANTZERKIA > HAURRAK

Irudiek eta galderek mundu poetikoa irudikatuko dute

Rosa A. Gartzia, Iñaki Alfaro eta Asier Martinez igoko dira Amaiako taula gainera bihar, zapatua

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Galderek eta irudiek bat egingo dute mundua zirriborro poetiko bat egiteko *Kri, kra, kro* antzezlanean. Paraiso antzerki taldeak eskainiko du aipatutako lana bihar, zapatua, 17:00etan, Amaia antzokian.

ELKARLANEAN EGINDAKO LANA

Belgikako Guimbard antzerki taldearekin batera egindako lana, 3 eta 6 urte bitarteko haurrentzako eta familia guztiarendako ikuskizuna da *Kri, kra, kro*.

Protagonistak Bera mutila eta Bera neska dira; eta irudiz eta soinuz betetako espazio batetako biztanleak dira. Euren irudimenarekin, mundu magiko baten jolasten dute, unibertso berri bat sortuz, ikusle txikien begiradapean. Irudiek eta aktoreen jokoak errealitatea ikasi, erakutsi eta marrazteko metafora osatzen dute. Irudi horiek basoa, hiria, museoa... gogorarazten dute eta galderaz betetako antzerki poema osatzen dute.

30 URTEKO TALDEA

Rosa A. Gartzia eta Iñaki Alfaro dira laneko protagonistak; baina, horiez gain, Asier Martinez haurra ere igoko da taula gainera.

Paraiso taldeak 2007an 30 urte bete zituen. Antzerkiarekin, haurtzaroarekin eta hezkuntzarekin erlazionatutako proiektuak garatzen dituen taldea da.

MUSIKA > ARRASATE MUSIKAL

Andoaindik urrezko bost domina ekarri dituzte

A.E. > ARRASATE

Arrasate Musikaleko piano-jotzaile gaztetxoek oso lan txukuna egin zuten Andoaingo jaialdian. Horren erakusle dira handik ekarri dituzten dominak; hain zuzen, bost urrezko domina, zilarrezko 12 eta brontzezko hiru irabazi zituzten gaztetxoek. Piano-jotzaileen arduradunak dira Isabella Blezien eta Raquel Hernandez.

BIG BAND

Bestalde, Arrasate Musikaleko Big Band taldeak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, 22:00etan, Durangoko Plateruena kafe antzokian.

Besteak beste, latin jazz, rock, bossa nova eta salsa estiloak lantzen dituzte. 25 musikari eta Juan Sangre abeslaria igoko dira taula gainera, Zigor Martinezen zuzendaritzapean.

Arrasate Musikaleko piano-jotzaile ikasleak, irakasleekin. ARRASATE MUSIKAL

> OSPAKIZUNAK

Iamai kafetegiaren 10. urteurrenaren harira hainbat ekitaldi antolatu dituzte

Urteurren borobila ospatuko dute datozen hilabeteetan Iamai kafetegian; 10. urteurrena, hain zuzen. Horren harira, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Otsaileko ekitaldiei erreparatuz, hilaren 26an Suso Seca eta Rafa de la Llave izango ditugu Arrasaten.

Jai nagusia maiatzaren 1ean egingo dute; egun horretan, DJ Makala lehenengo aldiz izango da Arrasaten.

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Mu Xa
Gozotegia
fotokopiak
prentsa
edariak
gozokiak
festak
eta abar
Elkano 3 (Zigarrola) • Arrasate

IAMAI kafe ANTZOKIA X. URTEURRENA
ARRASATE
OTSAILA
26 Suso Seca eta Rafa de la LLAVE
MARTXOA
5 Angelito, El Largo
12 Kike Biguri
19 Miguel Lago
26 Gorka Aguinagalde "El txou de Patxi"
APIRILA
9 Sebas, El Rayo
16 "100 años de perdón"
23 Dani Fontecha
30 Cesar Bueno. Magia 2. atala
MAIATZA
1 IAMAIko X. urteurren jaia. (lehenengo aldiz Arrasaten) DJ Makala

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA
- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

JENDARTEA > HITZALDI SORTA

Euskal Herriko historiari buruzko hitzaldi sorta antolatu dute bigarrenez

Nafarroako konkistaren 500. urteurrenaren harira antolatu dituzte, martxorako; guztira, bost

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Bergarako Udalak eta 1512-2012 Nafarroa Bizirik! ekimenak elkarlanean hitzaldi sorta antolatu dute Euskal Herriaren historia modu sakonagoan ezagutzeko. Bost hitzaldik osatzen dute sorta hori eta, Mikel Lizaso 1512-2012 Nafarroa Bizirik! ekimeneko kidearen esanetan, "gure historian berezko garrantzia izan duten gertaera eta pasarteak aztertuko" dira, "hamarkadetan barna ezkutatuak eta itxuraldatuak izan direnak, gehienak".

Enara Minguez, Agurne Barruso eta Mikel Lizaso aurkezpenean. MONIKA BELASTEGI

Lizasok eguaztenean egindako aurkezpenean azaldu zuenez, besteak beste, azalduko dute hitzaldiotan Nafarroako Erresumak Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba galdu zituenekoak; Nafarroak bere erresumaren sorreran izandako bilakaera ere aztertuko da eta euskaldunek monarkia baten inguruan euren egitasmoa sendotu zutenekoa ere; eta azalduko dute, baita ere, espainiarren eta frantziarren menpean egonda ere euskaldunek berezko grina izan dutela euren nortasuna eta erabakitzeko gaitasuna bermatzeko. Bestalde, Agurne Barruso alkateak hitzaldiotara joateko gonbita egin zien herritarrei.

Hitzaldien egutegia

Otsailak 24
Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabaren galerarainokoa. IX. mendetik 1300era
Hizlaria: Angel Rekalde

Martxoak 3
Izenburua: *Iruñeko Erresumaren sorrerarainokoa. Historiaurretik, IX. mendera*
Hizlaria: Beñi Agirre

Martxoak 10
Izenburua: *Nafarroa Garaiaren konkista. Aitzindariak eta ondorioak.* 1512
Hizlaria: Mikel Lizaso

Martxoak 17
Izenburua: *Lapurdi, Baxenafarre eta Zuberoa Frantziapean*
Hizlaria: Antton Curutcharry

Martxoak 24
Izenburua: *Soberaniaren aztarnak*
Hizlaria: Floren Aoiz

OHARRA
Hitzaldi guztiak 19:00etan izango dira, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Gaztetxoak igerileku handian jolas egiten. ARTXIBOA

GAZTEAK > AISIALDIA

Hilean behin gaztetxoendako ur jolasak Agorrosinen

Bihar, zapatua, izango da lehenengo saioa: jolasak eta puzgarriak egongo dira

M.B. > BERGARA

Iaz izandako arrakasta ikusita, aurten ere ume eta gaztetxoendako ur-jarduerak antolatu ditu Udaleko Kirol Zerbitzuak, Agorrosin Ekintza Gunean.

Hilean behin antolatuko dituzte halako jolasak, bihar, zapatua, hasita, eta uda denboraldira arte lau egingo dituzte. Hurrengo hitzorduak hauek dira: martxoaren 27a, apirilaren 24 eta maiatzaren 29a. Guztiak ala guztiak, 17:00etatik 19:00etara.

UME ZEIN GAZTETXOENDAKO

Bada, 8 urtetik beherako umeendako ekintzak igerileku txikian antolatuko dituzte eta 8 urtetik gorakoendakoak, berriz, igerileku handian. Hain zuzen ere, txikienendako jolasak egongo dira eta nagusiagoendako, puzgarriak.

UDALA > ZERBITZUAK

Soroan arratoiak dituztenei pozoia banatuko die Udalak

Bakar-bakarrik baserritarrei eta ortua duten herritarrei banatuko diete pozoia, arratoiak kontrola ditzaten

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Herriko arratoi kopurua kontrolatzeko zerbitzuaren barruan, baserritarrei eta ortua dutenei arratoien kontrako pozoia banatuko die Udalak. Pozoia kontrolpean banatuko da, eta, Udaletik azpimarratu dutenez, "soil-soilik baserritarrei edo ortuak dituztenei" emango diete pozoia, "eremu horietako arratoiak kontrola ditzaten".

Pozoia banatuko dute Udal Biltegian (Arruriaga 16), 07:30-14:30 ordutegian.

ISS Higiene Ambiental enpresako langilea arketa baten pozoia botatzen. ARTXIBOA

ARRATOI KOPURUA KONTROLATU

2008ko uztaila ezkero ISS Higiene Ambiental izeneko enpresa arduratzen da, Udalaren aginduz, udalerriko gune publikoetako arratoien kontrolaz.

Kontrol hori hiru modutan egiten da: batetik, baserritarrei eta ortua dutenei dagokien jarduera dago. Hain justu, enpresa horrek Udal Biltegian pozoi depositua du eta baserritarrek edo ortua dutenek arratoiekin arazoa izanez gero, han eskura dezakete pozoia. Betiere, "eremu oso berezietan ager daitezkeen arazo puntualak kontrolatzeko beharra badute".

Bestetik, hilero egiten duten lana dago: arrisku lekuak izan daitezkeenak ikuskatzen dituzte, eta, hala badagokio, arratoien aurkako pozoia jartzen dute, arketetan. Pozoi hori antikoagulantea denez, arratoia odolustu egiten da. Hala, 24 edo 48 ordutan hil egingo da arratoia. Udaberrian eta udazkenean indartu egiten dituzte neurriok, eta modu intentsiboan egiten da lana; izan ere, sasoi horietan arratoi askoz gehiago ibiltzen da.

Horrez guztiaz gain, herritarrek herriko gune publikoetan arratoiak daudelako abisua ematen dutenean ere ahalik eta azkarren erantzuten saiatzen dira Udaletik.

Betiere, kontuan izan behar da Udalak egiten duela lan leku publikoetan "leku partikularretan inoiz ez", Udaletik azpimarratu dutenez. Eta hau gehitu dute: "Ez dugu ezer egiten, ezta gune pribatuetako sagutxoen aurka ere".

KULTURA > ANTZERKIA

Antzerki tailerra antolatu du musika eskolak

Hilabeteko ikastaroa da eta izenematea zabalik dago martitzenera arte

M.B. > BERGARA

Bergarako Musika Eskolak antzerki tailerra antolatu du otsailaren 27an hasi eta martxoaren 27ra arte, zapatuetan, 10:00-13:00 ordutegian.

Tailerra bideratuta dago 15 urtetik gorakoei, eta oinarrizko baliabide eta teknikak erakutsiko ditu Aitziber Garmendia aktoreak.

Izenematea bukatuko da otsailaren 23an. Horretarako deitu behar da 943 76 57 80 telefono zenbakira edo *idazkaritza@bme.e.telefonica.net* helbidera idatzi. Tailerraren prezioa da 35 euro Musika Eskolako ikasle eta bazkideendako eta gainontzekoendako, 50 euro.

Aitziber Garmendia. GOIENKARIA

Eskolak esperientzia handia du antzerki musikatuetan; hala, etorkizuneko proiektuetarako eta beste lan eremu bat sortzeko antolatu dute tailerra.

oharrak

HITZALDIA

> Martin Mendizabalek euskararen jatorriaz jardungo du

Euskararen jatorria delako hitzaldia egingo du otsailaren 25ean, 19:00etan, kultura etxean. Batik bat, toponimiari emango dio garrantzia Mendizabalek. Lurraren eta gorputzeko atalen arteko uztarketa egingo du Arantzazuko abadeak hitzaldian eta euskara nondik datorren baino gehiago, euskararen berbak nola sortzen diren azalduko du. Jardun elkarteak antolatu du hitzaldia.

ARGAZKIAK

> Aratusteetako argazkiak eska daitezke Nahikari tabernan

Azkeneko urteetan egin izan duten moduan, Aratuste-zapatuan tabernara mozorrotuta joan direnei argazkiak egin dizkiete. Argazkiok *www.nahikari.com* helbidean daude ikusgai. Eskuratu nahi izanez gero, eskaria tabernan egin daiteke.

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Hanburgesak
• Sandwichak
• Entsaladak
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

BERGARA Margoak
Certificado ISO 9001 por BVQi
Kalitatea eta zerbitzua.
Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.:943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com

UREDERRA ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

ATLETISMOA > SEVILLAKO MARATOIA

Ines Iturricastillo eta Maria Rosa Agirre, maratoilariak

Bergararrek domekan Sevillan jokatutako maratoia egin zuten, euren kategorian 5. eta 31. postuan sailkatuz

Nere Atorrasagasti, Ines Iturricastillo, Maria Rosa Agirre eta Agurtzane Lete, Sevillan. A. LETE

EDU MENDIBIL > BERGARA

Beste bi maratoilari ditugu Bergaran: Maria Rosa Agirre eta Ines Iturricastillo. Aurreko domekan Sevillan jokatutako proba amaitzea lortu zuten biek.

Zapatuan joan ziren Sevillara, Nere Atorrasagasti eta Agurtzane Leterekin batera, eta domekan, 09:00etan ekin zioten probari. Sevillako maratoiaren 26. ekitaldia zen domekakoa.

Maria Rosa Agirrek 3 ordu, 46 minutu eta 35 segundoko denbora egin zuen eta 1.991. tokian sailkatu zen (5. bere mailan). Irtera eta helmuga La Cartujako estadio olinpikoan izan zuten. Ines Iturricastillok, berriz, 4 ordu eta 19 minutuko marka egin zuen. Sailkapeneko 2.782. postuan iritsi zen Ines (31.a bere mailan). Guztira, 3.124 lagun heldu ziren helmugara.

Bi bergararrak ondo baino hobeto moldatu ziren eta ez zuten inolako arazorik izan proba amaitzeko. Maria Rosa Agirreren arabera, urrian, Orreaga-Zubiri erdi maratoia egin eta gero, bururatu zitzaien maratoi bat egitea eta fetxa aldetik Sevillakoa zetorkien ondoen. Agurtzane Lete ere ibili zen maratoirako entrenatzen, baina lesionatu egin zen orain dela aste batzuk eta ezin izan zuen Sevillan parte hartu. Azken hilabeteotan egindako entrenamendu gogorrek saria izan zuten Iturricastillo eta Agirreren kasuan.

labegaraieta

EMAITZAK

Komando Piperrak-Zigalikatis	0-5
LSJ-Diego Valor Ile	4-13
Akabaoak-Alytis	5-0
Errotagain-Irish Pub	5-1
Monte taberna-Los Latinos	2-19
Internacional-Niu Tim	7-13

PARTIDUAK

Otsailak 21, domeka (barruan)	Epaileak
16:00 Internacional-Monte	**K. Piperrak**
17:00 K.Piperrak-Niu Tim	**Monte**
18:00 Akabaoak-Zigalikatis	**Niu Tim**
20:00 Errotagain-Diego Valor	**Los Latinos**
19:00 Irish Pub-Alytis	**Diego Valor**

SAILKAPENA

		P	J
1.	CM Errota-gain	49	17
2.	UD Akabaoak	45	17
3.	Niu Tim	42	17
4.	Diego Valor Ilea	39	17
5.	Los Latinos	36	17
6.	Alytis FK	25	17
7.	Komando Piperrak	13	17
8.	Zigalikatis	13	17
9.	Irish Pub	10	17
10.	Internacional	10	17
11.	Monte Taberna	6	17
12.	LSJ	3	17

Gauza asko erabakitzeko

Jardunaldi gutxiren faltan, gauzak estutu egin dira. Alytisek liderraren aurka berdindu zuen eta orain Errotagainek 4 puntu baino ez dio ateratzen Akabaoak taldeari. Hurrengo jardunaldietan, goiko guztiek euren artean jokatu behar dute; beraz, emozioz beteriko liga amaiera izango dugu.

> ZIKLISMOA

Lokatzako taldeen aurkezpena zapatuan Domingo Iralan

Bihar, zapatua, Lokatza Ziklismo Eskolak aurtengo denboraldirako osatutako taldeak aurkeztuko ditu herriko zaleen eta komunikabideen aurrean.

Aurkezpena Domingo Irala kalean egingo dute, eguerdiko 12:30ean. Lokatzako arduradunek, jai kutsua eman nahi diote biharko aurkezpenari eta musika ere ez da faltako. Amaieran, luntxa izango da.



BETI-BUSTI

Patxi Ugalde, Bretainiara

Beti-Bustiko Patxi Ugalde piraguista gaztea gaur, egubakoitza, eta hilaren 22an eta 24an lehiatuko da Frantziako Bretainian. Kadetea izan arren, junior mailan lehiatuko da Ugalde, K-1 proban, Errendimenduzko Zentro Nazionaleko taldearekin. Lochrist (gaur), Lannion (astelehenean) eta Cesson Servigne-ko (hilak 24) ur bizietan lehiatuko da Patxi Ugalde bergararra.

> PILOTA

Muguruza, Lau t'erdiko txapelketako final zortzirenetan

Ander Muguruza bergararrak aurrera egin du Lau t´erdiko Soraluce Txapelketan, martitzenean Lizasori 22-6 irabazi ondoren. Era berean, Onsalo emaitza berarekin nagusitu zitzaion Etcheverriri. Hurrengo martitzenean, hilak 23, Renobales-Iturriotz, Rico-Gorka- eta Mendizabal-Hernandez final zortzirenetako partiduak jokatuko dira Udal Pilotalekuan, 19:30ean.

> MENDIA

Pol-Poleko beteranoen irteera domekan, Bizkaira

Aurtengo denboraldiko lehen irteera egingo dute Pol-Poleko beteranoek domekan, hilak 21. Goizerako irteera izango da, Bizkaia aldera, Dima inguruko Artaun auzotik Mañarira, tartean Aramotz mendi zerra zeharkatu eta Mugarrapetik Mañarira. Bederatzi irteera aurreikusi dituzte aurten. Argibideak 943 76 48 51 telefonoan..

UNED-Bergara
EZOHIKO DEIALDIA
Tutore plazak
Informazioa:
943 76 90 33
www.uned.es/ca-bergara

disdira
ile apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Ion Murgizu Pinturak
Margoketa orokorrean
• Enpapelatuak
• Iztukoak
• Fatxadak
• Eskilarak eta patioak
• Pintura industriala
• Eskaiola eta pladurra
Zabalotegi 9, 2. esk • Bergara
Esozia 24- 2º behea • Soraluze
Tel.: 943 75 13 24
Mug.: 652 77 70 30

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Jaione Isazelaia > Bergarako gutun onena

"Azken unean ideia bururatu eta di-da idatzi ostean bidali nuen gutuna"

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

Arrasatearra bada ere, Bergaran bizi da aspalditik Jaione Isazelaia (Arrasate, 1959). Aranzadi ikastolako euskarako irakasle, Bergarako amodiozko gutunen lehiaketako 18. edizioan bergarar onenaren saria jaso zuen joan den zapatuan. Azken unean bidali zuen gutuna eta sariarekin "pozik" dagoela aitortu digu.

Nola piztu zitzaizun amodiozko gutunen lehiaketan parte hartzeko gogoa?

Ikastolan idazten oso trebeak diren ikasleak ditugu eta urtero saiatzen gara lehiaketetan parte hartu behar dutenei laguntzen. Batez ere, testuen zuzenketak egiten dizkiegu. Aurten, azken unean, ideia interesgarria bururatu zitzaidan eta di-da batean idatzi ostean gutuna bidali nuen. Ikasleak motibatzen aritu nintzen eta azkenean eurek motibatu nindutela esan daiteke...

Azken unean hartutako erabakia izan zen, hortaz.

Zalantza barik. Pentsa, aurkeztu diren 62 gutunetatik 61.a izan zen nirea; izenemate epea itxi baino apur bat lehenago bidali nuen gutuna.

Jaione Isazelaia kultura etxe kanpoan, *Maitasunez* liburua eskuan duela. J.B.

Bikotekidea galdu duen galtzerdia da istorioko protagonista. Zeren metafora da?

Azken egunak bizi izaten ari den pertsona irudikatu gura izan dut, eta horren metafora da alargun dagoen galtzerdia. Pertsonak hilzorian dagoenean bizi duen sufrimendua islatu gura izan nuen. Hala ere, epaimahaiak bizitzako pasarte arruntak batzen dituela ulertu du, eta, beraz, ez dut uste erabat ulertu dutenik nire metafora. Baina onartu beharra daukat ez zela oso erraz ulertzekoa. Edozelan ere, baten batek ulertu dit adierazi nahi nuena. Izan ere, lehen saria irabazi zuenak [Pasai Donibaneko Juan Mari Agirreurreta] sari banaketan galdetu zidan ea galtzerdiak hilzorian dagoen pertsona irudikatzen duen.

Mezua erabat ez ulertu arren, saria jasotzea pozgarria izango da, ala?

Noski. Azken unean parte hartzera animatu eta Bergarako gutunik onenaren saria jasotzea pozgarria da; pozik nago.

Zein iritzi duzu irabazle atera diren gutunez?

Oso originalak izan dira, forma aldetik irabazlearena eta besteak eduki aldetik, amodiozko gutun tradizionaletik aldentzeko joera ikusten da, manierismoa ari dela nagusitzen. Gaztetxoek idazten dituzte amodiozko gutun ohikoagoak; egia da gaiak ez duela askoz gehiagorako ematen.

Datorren urtean ere ikasleei laguntzeko gertu?

Hori da asmoa. Gure ezaugarrietako bat da euskara eta euskal kultura indartzea, eta horretarako ekimen aproposa da amodiozko gutunen lehiaketa ere.

PASARTEA

BERGARAKO ONENA

"Haize zakar hark nigandik urrundu zinduenetik dagoeneko bi hilabete igaro dira, harrezkero nire bizitzak bere zentzua erabat galdu du; izan ere, zer da ba bikotekidea galdu duen galtzerdia? Zure ondoan igarotako une goxoen oroimenek bakarrik laguntzen didate kajoi ilun honetan bikotekiderik gabe geratu ziren beste nire modukoren batzuekin ordu luzeak pasatzen". (...) "Gogoan dut Mari Asun Landa idazlearen ipuina, *Galtzerdi suizida*, Malentxok ez zuen sekula irakurri, azalarekin baino ez naiz gogoratzen, baina imagina dezaket galtzerdi hura zerk bultzatu zuen bere buruaz beste egitera, bikotea galtzeak ekarri zion bakardadea eta tristurak. Ausardia izan zuen bukatzeko, eta miresten dut, niri berriz koldarkeriak galarazten dit zentzungabekeria honekin bukatzen".

BESTE GUTUNETAKO PASARTEAK

1. SARIA
Juan Mari Agirreurreta
32 URTE / PASAI DONIBANE

Neskak mutilari bidalitako gutuna eta mutilaren erantzuna lan berean daude. Zuzenketa bidezko erantzuna da; horregatik zirriborroak.

"Gutun honen bidez espero ~~diat~~ [dinat] garbi ulertzea nire mina ~~benetakoa dela~~ eta, hiregana jo ~~badiat~~ [badinat], maite ~~izan~~ haudan seinale dela. ~~Erruak~~ [Erru bat], noski, ~~denok egin ohi ditiagu edo~~ denok egin ~~zitzakeagu~~ [zezakenagu]; gizatasunaren ezaugarria du~~k~~ [-n]. Baina ~~gizatasuna ere baduk~~ [egia ote dun hire] damutzea, eta horrekin ~~batera~~ [bakarrik] akatsak zuzentzea espero al dun?"
(...) "Ikusiko du~~k~~ [-n], berriro zerotik hasteak haize berria ekarriko ~~ziok~~ [zion] ~~harremanari~~; ~~oso~~ [horren] maite ~~haut-principito~~ [dunan askatasunari]".

2. SARIA
Iraitz Salegi
19 URTE / BERGARA

Euskal Herriko bertso txapelketako txapelak final handiaren biharamunean Maialen Lujanbiori zuzentzen dion gutuna.

"Duela lau urteko hitzorduan, gure artekoa lausotu egin zen. Ni, sekula ez nintzen horregatik kezkatu, bion barreneko ahotsaren arteko gauza baitzen guztia, ahotsak oihu bihurtzen zirela sentituz, indarra hartuz. Indar horrek ziurtarazi zidan lehenago edo beranduago elkarrekin egongo ginela."
(...) "*Sua*-rekin batera irabazi ninduzun ni, kartzelakoaren askatasun haizeekin gurekin falta ditugun guztiak, eta zure xarma, hitz eta sentimenduarekin gainontzeko denak. Eta atzo bai, Maialen, atzo bion begiradak su bilakatu zenituen".

26 urtetik beherako onenak
Deiane Lage
21 URTE / ARRASATE

Sorotan Bele taldearen *Mariñelaren zai* kantua abiapuntu hartuta idatzitako gutuna da, *arotzaren alaba*-ren kontakizuna.

"*Marinela maite dut aita* ez dut esango; ez da hori zehazki gaur zurekiko sentitzen dudana, baina bai esango dizut oso gustuko zaitudala. Bada, Irlanda aldera itsasoratuko naiz... zu lagun berezia baitzara niretzat! Lagunak daude, baina beti egongo dira zerbaitegatik berezigoak direnak. Niretzat zu zara (...) irribarrea zein malkoak ateratzen dizkidazun lagun bitxia.
(...) "Guztiz itsasoratu naizela dirudi, baina ipurdia busti barik gutxitan egoten da zerbait lortzerik! Irlandara heldutakoan zu bertan topatzea espero dut (...)".

26 urtetik beherako onenak
Silvia Maria
21 URTE / ARRASATE

New Yorken bizi den mutila da protagonista eta urruntasunak sortzen dizkion oroitzapenetatik abiatzen da eskutitza.

"Eman zenizkidan azkeneko laztanak gure bizitzako kementsuenak izan baitziren, eta horiek nire gorputza gosez hiltzen dagoenerako gordeko ditut. Inurriek negu gorrirako janaria batzen duten bezala. Egizu zuk berdina, eta hitz emango diogu geure buruari zu aske zaudenetik heriotzak banatzen gaituen eguna arte larrua joko dugula.
(...) "Hortaz, lasai maittia pazientziaz jarraituko dugu tunela zulatzen eta egin oihu behar duzun bakoitzean. Oihu horiek lehenago ala beranduago, niregana ekarriko zaituzte. Betiko."

DEIALDIA

Informatika ikastaroko izenematea bukatzear

M.B. > OÑATI

Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Merkataritza Departamentuak antolatu dituen informatika ikastaroetarako izenematea gaur bukatzen da. Interesatuek Ikas Hiru akademian (943 78 31 03) eman behar dute izena.

ASKOTARIKO IKASTAROAK

Apirilera arte emango dituzten ikastaroak dira: *Ofimatika II.maila*; *Ofimatika III. maila*; *Photoshop aurreratua*; *Segurtasuna eta biruskontrakoak*; *Zure gauzak nola grabatua CD edo DVDan*; eta *Erosketak Internet bidez*. Ikastaroak sei eta 30 ordu artekoak dira, eta Ikas Hiru akademian emango dituzte.

AUZOAK

San Andres ermitako teilatua konpontzear

M.B. > OÑATI

Joxean Larrañaga erretoreak Uribarri auzoko San Andres ermitaren teilatua eraberritzeko baimena eskatu du. Udal arduradunek eskaera onartu dute.

Teila berriak jarriko dituztela aprobetxatuz, teilatuko hodiak aldatu egingo dituzte. Larrañagak aurkeztu duen txostenean zehazten da lan-eremua sarez inguratuko dutela eta aldamioa jarriko dutela.

Bestalde, udal arduradunek esan dute San Andres ermitaren eta ondoko etxebizitzaren sarreratan babespasabidea jarri beharko dutela segurtasuna bermatzeko.

Zumaia eta Deba artean azaleratuta dagoen flysch-a mundu mailan oso garrantzitsua da. GOIENKARIA

INGURUMENA > EKITALDIAK

Zumaiako Flysch-a ezagutzeko irteera egingo dute martxoan

Atzo hasi zen Ingurumen Astearen baitan egingo dute ibilaldia; izenematea zabalik dute Natur Eskolan

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Zumaiako Flysch-a izango da atzo hasi zen Ingurumen Astearen protagonista nagusia. Besteak beste, ibilaldia egingo dute Deba-Zumaia itsaslabarrean azaleratuta dagoen flysch-a ikusteko, eta leku horri buruzko *Haitzen hitza* dokumentala emango dute. Dena den, Natur Eskolak antolatutako Ingurumen Astean, beste hainbat ekintza egingo dituzte: besteak beste, hitzaldiak, zineklub emanaldi berezia, eta bihar eta etzi egingo dituzten Zuhaitz Feria eta Zuhaitz Eguna (ikus ondoko taula).

60 MILIOI URTEKO SEKUENTZIA

Zumaiako Flysch-a ezagutzeko irteera martxoaren 7an egingo dute. Dagoeneko izenemate epea zabalik daukate. Interesatuek Natur Eskolako telefonora (943 71 64 04) deitu beharko dute izena emateko.

Ibilaldia ordu eta laurdenekoa izango da, gutxi gorabehera. Itsasoak lagundutako itsaslabar zoragarrietan milioika urtetako historio geologikoa biltzen da, eta horrenbestez gune horrek Biotopo Babestuaren izendapena lortu berri du. Bestalde, Itzurun hondartzako estratuetan Kretazeo-Tertziario muga ikus daiteke, iridio geruza batek markatuta. Flysch-aren geruza-sekuentziak ia-ia 60 milioi urteko (duela 110 milioi urtetik duela 50 milioi urte ingurura) segida jarraitua osatzen du, eta han Lurraren historiaren gertaera eta kataklismo garrantzitsuen arrastoa ikus daiteke.

ZUHAITZAK, ZUBILLAGAN

Bestalde, Ingurumen Astearen barruan, bihar eta etzi, Zuhaitz Feria eta Zuhaitz Eguna egingo dituzte.

Bihar, 09:00etatik aurrera, Zuhaitz Feria egingo dute zazpi mintegik. Euren landareen erakusketa eta salmenta egingo dute herriko plazan.

Azkenik, domekan, Zuhaitz Eguna egingo dute. Zubillagan, Oñati eta Urkulu errekek bat egiten duten lekuan landatuko dituzte zuhaitzak; besteak beste, lizarrak, haritzak eta gereziondoak. Guztira, 225 bat zuhaitz eroango dituzte. Zuhaitz Egunean parte hartu gura dutenak 09:00etan bilduko dira herriko plazan. Autoa eroatea gomendatzen dute.

Ingurumen Asteko egitaraua

HITZALDI-DOKUMENTALAK

Otsailak 19, egubakoitza
Darwin eta sexua.
Hizlaria: EHUko Biologia Zelularreko irakasle Ibon Cancio.

Otsailak 23, martitzena
Antartika, laborategi-kontinentea.
Hizlaria: Hidrogeologian katedradun Iñaki Antiguedad.

Otsailak 24, eguaztena
Flysch; Haitzen hitza dokumentala.
Hizlaria: Geologian doktore Asier Hilario.

Otsailak 26,egubakoitza
Praileaitz eta Arantzazuko aztarnategiak.
Hizlaria: Aranzadiko kide eta arkeologo Xabier Peñalver.

Hitzaldi guztiak kultur etxeko zinema aretoan, 19:00etan.

IRTEERAK

Otsailak 27, zapatua
Arantzazuko aztarnategi arkeologikoak ikustera, Xabier Penalver eta Eloisa Uribarri arkeologoekin.

Martxoak 7, domeka
Zumaiako Flysch-a txalupaz eta oinez ikustera.

ZUHAITZ AZOKA

Otsailak 20, zapatua
Mintegi ezberdinetako landareen erakusketa eta salmenta 09:00etan hasita herriko plazan.

ZUHAITZ EGUNA

Otsailak 21, domeka
09:00etan herriko plazan elkartuko dira. Autoa eramatea gomendatzen dute.

ZINEKLUBA

Otsailak 25, eguena
Antartida, encuentros en el fin del mundo pelikula emango dute 20:00etan, kultura etxean.

ERAKUSKETA

Otsailak 15etik 28ra
Benito Cantero eta Agustin Gurrutxaga bergararren argazki erakusketa. 25 urteetan egindako argazki onenak ikusgai, egunero 18:00etatik 20:00etara.

ZELAIA ONATI
www.zelaia.net
40 urte elkarrekin
1970-2010

2010eko
EROSKETA DOAN!

2010ean GURE DENDETAN EGINDAKO EROSKETAK DOAN IZAN DAITEZKE ZURETZAT!
Erosketa egiterakoan emango dizugun txartelaren zenbakiak Loteria Nazionalaren azkeneko hiru zenbakiekin bat egiten badu, egindako erosketaren zenbateko osoa bueltatuko dizugu.

Anima zaitez eta ospatu urteurrena gurekin!

Xabi Igartua > Saskibaloiko senior mailako entrenatzailea

"Bukatzeko asko falta da, baina igotzeko ezin dugu hutsik egin"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Denboraldi hasieran mailari eustea zuten helburu; baina orain, bestelako helburua dute: igoera lortzea. Santurtzi eta Askartza menderatu ondoren, senior mailako saskibaloi taldeak erakutsi du lehenengo mailara igotzeko hautagaietako bat dela. Xabi Igartua entrenatzaileak kontatu digu zein den taldearen gogo-aldartea.

Lehenengo lekutik, sailkapena beste modu batera ikusiko duzue!

Bai, hala da. Oso gustura gaude lehen tokian, baina oraindik 13 jardunaldi geratzen dira. Bidea oso luzea izango da.

Santurtziri irabazita lider jarri zineten, eta Askartza menderatu ondoren, igoera lortzeko hautagaietako bat zaretela erakutsi duzue.

Azken bi partiduak oso onak izan dira. Santurtziren kontra Zubikoan ikusi den saskibaloi partidu onena jokatu genuen bi taldeok. Joko ona, intentsitatea, jokalari onak... Norgehiagoka borrokatua izan zen.

Aurreko astean Leioan jokatu genuen Askartzaren kontra, eta merezimendu osoz irabazi genuen. Bagenekien eurek ondo jokatuko zutela eta irabazteko guk ere ondo jokatu behar genuela. Beldur apur bat genuen, baina joko ona egin genuen. Hasieratik abantaila hartu eta bukaera arte mantendu genuen.

Aloñak, Santurtzik, Lizuanek eta La Sallek 30 puntu eta Askartzak 28. Hiru toki bost talderendako.

Bai, baina nik beste talde bat sartuko nuke: UPV-Alava. Guk baino garaipen bat gutxiago dute eta talde sendoa dute. Bihar euren kontra jokatuko dugu eta irabaztea inportantea izango da aldea handitzeko.

"Sailkapeneko lehenengo biak zuzenean igoko dira eta hirugarrenak promozioa jokatuko du"

"Santurtzi, Askartza, Lizuan, La Salle eta UPV-Alava izango dira igoerarako aurkariak"

Dena den, gogorra izango da; kontuan hartu behar da sailkapeneko lehenengo biak zuzenean igoko direla lehen mailara eta hirugarrenak promozioa jokatuko duela. Ezin dugu hutsik egin.

Pentsaezina da denboraldi hasierako helburua mailari eustea zenik?

Maila berria estreinatzen duzunean igoeran pentsatzea astakeria da. Ez genekien taldea nola moldatuko zen maila berrira. Partiduz partidu joan gara, eta, oraingoz, emaitzek jarri gaituzte lehen tokian.

Zeintzuk dira taldearen ezaugarri nagusiak?

Joko azkarra eta erasokorra egiten dugu. Mailako talderik saskiratzaileena gara. Jokalariek kalitate izugarria dute erasoan. Aldiz, defentsan ahulagoak gara, baina oreka mantentzen saiatzen gara.

Entrenatzaile zaudenetik nolako bilakaera izan du taldeak?

Bi denboraldi hauetan talde izaten ikasi dugu. Arrasateko hiru jokalariak etorri zirenean, ez zuten oñatiarren moduan jokatzen. Hori horrela, talde jokoa hobetzen eta indartzen ahalegindu gara, eta Santurtziren kontra erakutsi genuen taldea egokituta dagoela eta talde joko ona egiten ikasi dugula.

Xabi Igartua, entrenamendu saioaren hasieran. MIREIA BIKUÑA

Nola ikusten duzu taldearen etorkizuna?

Oraingoz, ondo, baina gure asmoa da harrobiarekin lan egitea. Gazteak saskibaloira erakarri behar ditugu.

ESKIA

Mendi-eski irteera egingo dute martxoan

M.B. > OÑATI

Aloña Mendi elkarteko eski sailak mendi-eski irteera antolatu du martxoaren 12tik 14rako aste bukaeran. Baqueira-Beret inguruetan egingo dute eta hiru maila izango ditu: hasiera, ertaina eta goi maila. Informazio gehiago gura dutenak astelehenetan joan daitezke Aloña tabernara 18:30etik 20:00etara.

HIRU MAILA

Hasierako maila dutenek monitoreen laguntzarekin mendi-eskiaren oinarriak ikasi eta bi mendate txiki (Tuc de Clotos eta Tuc de la Serra) igoko dituzte. Aldiz, maila ertainekoek Tuc de Parros eta Tuc de la Entecad igoko dituzte. Azkenik, goi mailakoek Aiguestortes natura parkean ibilaldi zirkularra egingo dute.

Bestalde, mendi-eskia egin nahi ez dutenek elurreraketekin ibili edo snow taulekin ibilbidea egiteko aukera izango dute.

MIREIA BIKUÑA

Mozorroak protagonista martitzenean

Eguneroko jantziak erantzi eta mozorroak janzteko eguna izan zen martitzena. Aratusteetako azken egunean kolorea izan zen nagusi. Txikienak Zubikoako frontoian elkartu ziren Kiki, Koko eta Moko pailazoen emanaldia ikusteko. Ondoren, parrokiako Misio taldeak egindako txokolatea jateko aukera izan zuten. Txorimaloak eta buruhandiak ibili ziren kalerik kale, eta pintxo dastatzea egin zuten plazan. Afaltzera joan aurretik disko festa egon zen plazako kioskoan.

oharrak

BIRZIKLAPENA

> Traste zaharren bilketa eguenetan da

Debagoieneko Mankomunitateak etxeko traste zaharrak eguenetan batzen ditu Oñatin. Zerbitzua erabili nahi dutenek 943 71 19 38 telefonora deitu beharko dute abisua emateko. Traste zaharrak eguenean bertan 20:00etatik 22:00etara atera beharko dituzte. Hurrengo bilketak hilaren 25ean eta martxoaren 4an egingo dituzte.

DEIALDIA

> Arrantzako federatu txartelak eskatzeko epea

Interesatuek bi aukera dituzte: eguaztenetan Pago-Uso elkartean 20:00etatik 21:00etara edo Ugarte ile-apaindegian egunero.

DEIALDIA

> Asis sareko kideen otoitzaldi-bikura

Asis sareko kideek otoitzaldi-bilkura egiten dute hil bakoitzeko azken eguenean. Bidaurretako elizan biltzen dira, 19:30ean.

beteranuak

EMAITZAK

A TALDEA

Bundeswher-Albok ... bertan behera
Lozorromo-Indar 85 ... bertan behera
Gibel Boys-Gaur Bai ... bertan behera
Doolygans-Sasquatch. bertan behera3

B TALDEA

Txuskos-Nandrolona... bertan behera
Kalañatasaray-Ankarteko ..... b.b.

PARTIDUAK

B TALDEA, OTSAILAK 20

13:00 Nandrolona-Ankarteko/**Azpiazu**
14:30 Jari Ari-Txarrixak/ **Altube**
16:00 Etxaixat-kalañatasaray/ **Marku**
17:30 Joxely-Txuskos/ **Arrilla**

A TALDEA, OTSAILAK 20

19:00 Doolygans-Gibel Boys/ **Etxaixatç**

A TALDEA, OTSAILAK 21

14:00 Zorrobero-Lozorromo/ **Joxely**

SAILKAPENA

A TALDEA	P	J
1. Zorro Bero	18	6
2. Doolygans	15	6
3. The Gibel Boys	11	5
4. Indar 85	7	6
5. Gaur Bai	6	5
6. Sasquatch	4	5
7. Bundeswehr	4	5
8. Lozorromo	2	5
9. Albok	1	5

B TALDEA	P	J
1. Txarrixak	12	6
2. Xaguxar	11	7
3. Joxely	11	7
4. Nandro	10	5
5, Klaña	9	5
6. Txus	8	5
7. Etxa	5	6
8. Ankar	4	5
9. Jai	3	6

PARTE-HARTZEA > KUDEATUZ EGITASMOA

Markoleko berdeguneko proposamenen alderdi teknikoa aztertuko dute

Zelai horretan zer egin erabakitzeko bigarren saioa egingo dute bihar (10:00) Arkupen

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Kirol etxe aurrean dagoen berdegunean zer egin daitekeen erabakitzeko parte-hartze prozesua jarri zuen abian Udalak orain dela hilabete. Urtarrilaren 30ean egindako lehen saioan herritarren eta hainbat elkartetako ordezkarien ideiak eta proposamenak jaso zituzten. Bihar, hilak 20, bigarren saioa egingo dute Arkupen (10:00-12:00) eta proposamen horien bideragarritasuna aztertuko dute teknikariek.

Markole auzoko berdegunea, kirol etxe berriaren lanen aurrean. M.A.

TEKNIKARIEN IRITZIA

Eraikitzen dabiltzan kirol etxe berriaren proiektuan hainbat proposamen zituen jasota Udalak berdegunerako. Orain, herritarrekin adostu gura du zer egin, eta lehen saioan elkartutako 30 bat lagunek hainbat ideia bota zituzten: kanpoko igerilekua, aparkalekuak azpian, hainbat kiroletarako kantxak, parke handi bat... Horiek guztiak jaso zituzten parte-hartze prozesuari jarraipena egiten dabiltzan Aztiker kabineteko adituek. Eta bihar ideia horien bideragarritasuna aztertuko dute, Udaleko Hirigintza eta Kirol teknikariak lagun dituztela.

Ideia guztiak ondo aztertu ostean, adostasuna lortu beharko dute elkartutakoek, baina horretarako hirugarren saio bat egingo dute.

WEBGUNEAN IRADOKIZUNAK

Lehen saioan parte hartzerik izan ez zutenek ere zabalik izango dituzte ateak bihar. Eta Udalaren webgunean –*www.aretxabaleta.net*–, albisteen atalean lotura bat dago norberaren ideiak, proposamenak eta iradokizunak uzteko. Bertan, lehen saioko memoria ere badago, zer jaso zuten jakiteko.

IKUSKIZUNA > FLAMENKOA

Flamenko doinuak eta dantzak gaur 'La Pulga'-rekin

Jaiki elkarteak flamenko ikastaroa egingo du 'La Pulga' dantzariarekin

M.A. > ARETXABALETA

Askoa Etxebarrieta *La Pulga* dantzari euskaldunak *La Pulga y compañía* flamenko ikuskizuna eskainiko du gaur (19:00) Arkupen. Sarrera 4 euro da.

GITARRA ETA PERKUSIOA

Dantzak eta kantuak bateratuko dituzte flamenkoari eskainitako ikuskizunean. Javi Antoñanaren gitarra eta *Giliyo*-ren perkusio doinuak nahastuko dira *El Penique de Málaga* abeslariaren ahotsarekin eta *La Pulga*-ren dantzekin. Hala, izaera pertsonal eta zabala emango diote ikuskizunari.

IKASTAROA HILAREN 26AN

Bestalde, Jaiki elkarteak antolatuta ikastaroa eskainiko du *La Pulga*-k. Flamenko dantzen hastapen ikastaroa izango da eta otsailaren 26an hasita lau egubakoitzetan egingo dute (18:00-20:00). Zortzi orduko ikastaroa 25 euro ordaindu beharko dute langileek eta 20 euro langabeek eta ikasleek. Interesa dutenek Jaikiko kideekin harremanetan jarri behar dute: *jaikielkartea@yahoo.es*.

M.A.

Txatxoen jaialdia hotzari aurre eginez

Aratuste giroan ibili gara egunotan egubakoitzean hasita. Orduantxe egin zuten Aratuste jaialdia musika eskolako kideek plazan. Kolore biziz jantzitako txatxo mordoa –dantzariak, trikitilariak, txistulariak, bandako kideak...– elkartu ziren ilunkeran, hotzari aurre eginez, eta musikaren, dantzen eta jolasen bitartez Aratusteen berri eman zuten.

oharrak

ZINEMA

> 'Celda 211' eta 'Nico, el reno que quería volar' filmak

Gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00) *Celda 211* filma izango dute helduek, eta domekan, (17:00) *Nico, el reno que quería volar*, umeek.

IKASTAROA

> Etxearen osasunaren gainean

Errediestesia eta geobiologia aztertuko dituzte etxearen osasunaren gaineko ikastaroan hilaren 27an eta 28an. Izena aurrez eman behar da Arkupen eta 120 euro ordaindu.

Garbittu
Errekabarren 3, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
•
Obra bukaerako garbiketak
•
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
•
Kristalen garbiketak
•
Arropa garbiketak

Jon Díaz Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

PIENSOS SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY
Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

MA Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

GINEKOLOGIA

Ekografien bidez fetuen malformazioak ikusten dira

ARANTZAZU EZKIBEL

Javier Rodriguez Consultorio Ginecologicoko medikua da. Arrasaten izaten da, astean behin. Ekografiek duten garrantziaz berba egin digu; gainera, ekografien historia azaldu digu: saguzarren portaerak aztertu zituzten, eta, ultrasoinu bidez gidatzen zirela ikusita, bide hori lantzea erabaki zuten. Hala, 1954an egin zen lehenengo ekografia.

Javier Rodriguez medikua ekografia bat egiten. ITSASO BEREZIBAR

Ekografia da jaio aurreko diagnostikoak egiteko dagoen metodo onena eta aurreratuena. Egunetik egunera hobetzen doaz ekografiak egiteko modua eta gaur egun ekografiek eskaintzen duten ikusmena izugarria da. Hala ere, Javier Rodriguez ginekologoak azaldu du fetuen %65ek dituzten malformazioak ez dituztela diagnostikatzen.

"Lehenengo sei eta bederatzi aste artean haurdunaldia zenbatekoa den zehazten dugu; baita zenbat enbrioi dauden eta nola dauden. 12. astean berriro ere haurdunaldia zenbatekoa den zehazten dugu. Horrez gain, egon daitezkeen asaldura kromosomikoak identifikatzen ditugu", azaldu du Rodriguez medikuak.

20. ASTEA, ERABAKIGARRIA

Benetan garrantzitsua den ekografia 20. astean egiten dutela argitu digu Rodriguezek. Izan ere, ekografia horrekin fetua goitik behera ikusten dute eta izan ditzakeen malformazioak zehaztu. "Hala, bizitzarekin bateraezinak diren malformazioak baldin baditu fetuak, haurdunaldia eteteko aukera izan dezake haurdunak", azaldu du Rodriguezek. Espainian haurdunaldia etetea erabakitzeko muga 22. astean ezarrita dago, Rodriguezek azaldu duenez.

Fetua 20. astean goitik behera ikusi eta malformazioak antzematen dituzte

32. astean fetua zenbat hazi den aztertzen dute; eta izan dezakeen pisua ere zehazten dute. "200 gramo gorabehera ibiltzen gara pisua ematerakoan", dio Rodriguezek.

3D ETA 4D

Orain dela urte batzuk hiru dimentsioko eta lau dimentsioko (mugimenduan) ekografiak egiten hasi ziren. "Egia esan, guri ez digu informazio askorik ematen ekografia mota horrek. Hala ere, gorputz-adarren malformazioak ikusteko aukera ematen du. Egia da benetan ikusgarriak direla ekografia horiek; izan ere, fetuaren mugimenduak ikusteko aukera dago", dio Rodriguezek.

Ian Donald eskoziarrak 1954an lortu zuen lehen aldiz ekografia bat

IAN DONALD

Ekografia obstretikoaren aitzindaria Ian Donald eskoziarra izan zen. 1954an lortu zuen lehenengoz ekografia bidez fetu baten bihotz taupada antzematea.

XX. mende hasieran hasi ziren ekografia metodoa lantzen; hain zuzen, saguzarrei begira. Ikusmen barik ultrasoinuen bidez gidatzen zirela konturatu eta aztertzen hasi ziren.

Talde osoa emakumearen eskura

ESPEZIALITATEAK
- Jaioaurreko diagnostikoa-ekografia
- Menopausia
- Endoskopia ginekologikoa
- Laguntza bidezko ugalketa
- Titietako gaixotasunak
- Obstetrizia
- Nerabezaroko ginekologia
- Hezur dentsitometria

MEDIKUAK
- Bularra: **Txomin Murgiondo**
- Esterilitatea: **Jose Maria Gomez, M. Jose Iñarra, Laura Susperregui**
- Menopausia: **Fernando Cristobal**
- Haurdunaldiak: **Jabier Rodriguez, Miguel Gabarain**
- Endoskopia: **Alfredo Otalora**
- Arrisku handiko haurdunaldia: **Emerson Murua**
- Haurdunaldiaren kontrola eta ekografia: **Maria Jose Ruiz, Irina Krasteva**

CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

Policlinica Gipuzkoa

ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 21
Irun: 943 61 78 88

www.consugine.com

Lilurako lantaldea: eskuinetik ezkerrera, Guadalupe Gartzia, Amaia Arrieta, Izaskun Iztueta eta Mari Karmen Iñurrieta (eserita). MIREIA BIKUÑA

■ EDERTASUNA

Edertasuna zaintzen Bergaran 27 urtean

MIREIA BIKUÑA

Bergarako Lilura Edertasun Zentroan (Bidekurutzeta 7) lau tratamendu egiten dituzte, bereziki: aurpegiko tratamenduak, gorputzeko tratamenduak, laser depilazioa eta mikropigmentazioa. Bada, horren guztiorren gainean eta azken tendentziez egin dugu berba zentroko arduradun Guadalupe Gartziarekin. Lau pertsonak egiten dute lan Liluran.

Orain dela 27 urte zabaldu zuen Guadalupe Gartziak Bergarako Lilura Edertasun Zentroa. Asko aldatu dira emakumearen eta gizonaren edertasuna areagotzeko tratamenduak eta teknologiak. Ezinbestekoa da hobetzen joatea. "Ikastaroak egiten ditugu azken tendentziak ezagutzeko, besteak beste, ze tratamendu diren eraginkorrenak, eta horiek egiteko ze tresna behar ditugun jakiteko. Guregana datozen bezero gehienak ondo informatuta datoz. Hedabideen bidez eta batez ere Internet bidez informazio asko biltzen dute. Horrenbestez, ezinbestean, egunean egon behar dugu", esaten dute.

Lilurako lantaldean lau pertsonak dihardute. "Hiru lankide ditut, eta oso gustura nago eurekin. Oso profesionalak eta adituak dira. Punta-puntako zerbitzua emateko prestatuta daude", esan digu Gartziak.

ARRETA PERTSONALIZATUA

Lilurara joaten diren bezero guztiei arreta pertsonalizatua egiten diete. "Egin nahi dutena egin nahi dutela, azterketa pertsonala egiten diegu bezero guztiei. Ez daude bi gorputz berdin, eta ez daude bi tratamendu berdin. Norberak behar duenaren araberako azterketa egiten diegu, tartean elikadura-intolerantziaren gaineko testa. Emaitzak ikusi ondoren aukeratzen dugu ze tratamendu den egokiena bezero bakoitzarendako", dio Guadalupe Gartziak.

Lilurara doazen bezero guztiei arreta pertsonalizatua egiten diete

Ikastaroak egiten dituzte tendentziak eta tratamendu eraginkorrenak ezagutzeko

LAU TRATAMENDU

Gehienbat, lau dira egiten dituzten tratamenduak: aurpegiko tratamenduak, gorputzeko tratamenduak, laser depilazioa eta mikropigmentazioa.

Aurpegiko tratamenduetan, PHaren alterazioa, fotoaknea, zimurrak, gorritasuna, akneak, fotogaztetzea eta fotosendotzea egiten dituzte, besteak beste. Mikropigmentazio tratamenduetan, batez ere, bekainak, ezpainak eta begiak egiten dituzte.

EMAITZA ONAK LASER DEPILAZIOAN

Behin betiko gorputzeko ileak kendu nahi dituztenendako laser depilazioa egiten dute, aurpegian edo gorputzean. Gainera, ile ezberdinendako eta azal beltzaranendako laser ezberdinak erabiltzen dituztela esan digute. Laser depilazioa berme osoarekin egiten dute. "Emaitzak oso onak dira. Emakume zein gizonek erabiltzen dute laser depilazioa, aurpegian, gorputzean edo hanketan".

Azkenik, gorputzeko tratamenduak egiten dituzte. Besteak beste, zirkulazio-masajea, drainatze linfatikoa, zelulitisa kentzeko eta hanka astunak arintzeko, dieta pertsonalizatuak, gehiegizko pisuaren kontrola eta gorputzeko *peeling*-a.

LILURA
EDERTZE INSTITUTUA

Aurpegi eta gorputzeko laser depilazioa

Kontsulta eta proba
DOAN

Etorri eta ezagut itzazu gure eskaintza bereziak!

Bidekurutzeta 7, 1a · 943 76 31 71 · 20570 Bergara (Gipuzkoa) · *www.lilura.com* · *lilura@lilura.com*

ELKARRIZKETA: KOLDO ATXOTEGI / INSTITUTO OPTICO

"Proba egiteko uzten ditugu audifonoak erosi aurretik"

MIRARI ALTUBE

Laster 15 urte beteko ditu Arrasateko Instituto Opticok. Ikusmen arazoei konponbidea ematen dielako da ezaguna, baina entzumen kontuetan ere aditua da. Hain zuzen, entzumen protesien gainean goi mailako ikasketak dituen bakarretakoa da gurean Koldo Atxotegi. Amplifon etxearekin egiten dute lan, Europa mailan arrakasta handia duen marka.

Koldo Atxotegi aditua Arrasateko Instituto Opticoko bulegoan. MIRARI ALTUBE

Ikusmenaz gehiago arduratzen gara entzumenaz baino?

Berdin arduratzen gara, baina kontua da ikusmen arazoak goiz hasten direla eta askori eragiten dietela. Entzumen arazoak, ostera, beranduago hasten dira, 60 urte inguruan, eta ez dituzte guztiek izaten. Hortaz, erreparo apur bat ematen du belarrian aparailua jartzeak.

Noiz hasten dira sortzen entzumen arazoak?

Arazo ezberdinak daude. Batetik, gaixotasunen bat dutenak edo belarrian arazoak dituztenak daude, horiek medikuarengana jo beharra daukate. Eta bestetik, gorreria neurosentsoriala dago, barruko nerbioaren desgasteak sortzen duena; adinagatik dator desgaste hori. Horregatik, 60 urtetik gorakoen artean %20k dute arazoren bat edo beste.

Eta zer egin behar da ondo ez bada entzuten?

Arazoa pixkanaka hasten da, eta denborarekin txarrera egiten du. Horrek eguneroko bizitzan du eragina, ondo ez entzuteak, ondo ez ulertzeak isolatzea dakarrelako: lagunekin gutxiago egon... Horregatik, azterketak egitera animatuko nituzke zerbait igarriz gero.

> **"Arazoren bat dutenak audiometria egitera animatuko nituzke konpromiso barik"**

Zelako azterketa da?

Audiometria bat da. Intsonorizatuta dagoen kabina baten egiten dugu eta gorreria mota zehaztu. Hala, bada, lehenengo diagnostikoa egiten dugu eta jakin konponbiderik duen edo ez. Gero, adinaren eta arazoaren arabera audifono bat edo beste bat gomendatzen dugu.

Ez da samurra izango bezero-arendako audifono bat behar duela onartzea, ezta?

Bizi kalitatea hobetzen diola ikusterakoan oso ondo hartzen du. Horregatik, hilabeterako proba egiteko uzten ditugu audifonoak; belarriek ohitzeko behar duten denbora, hain zuzen. Tarte horretan, bolumena egokituko diogu eta jakingo du zelako hobekuntza izan duen entzumenak. Gustura badago, erosteko aukera izango du eta ez badago konbentzituta, bueltan hartuko diogu inolako konpromiso barik.

> **"Audifono txiki eta diskretuak daude orain eta oso erantzun ona ematen dutenak"**

Zelako audifonoak dira?

Ez daukate zerikusirik orain dela bost eta hamar urtekoekin. Oso diskretuak dira, txikiak, eta modelo asko daude. Digitalak izugarri hobetu dituzte eta oso ondo entzuten da horiekin.

Mantentze-lanik behar dute aparailu horiek etxean?

Ez, garbitasuna zainduz gero nahikoa da. Gauetan eta dutxatzerakoan kendu behar da, besterik ez. Gero, errebisioak egiten ditugu sei hilabetero, ondo dabilen ziurtatzeko.

Guztiz berreskura daiteke entzumena audifonoekin?

Ez, arazoa neurosentsoriala denean ez. Batzuek asko berreskuratzen dute eta beste batzuek ez. Horregatik, entzumenari behar duen garrantzia eman behar diogu eta gaztetatik zaindu: lanean, ehizatzerakoan... Tapoi bereziak egoten dira zaratekin lan egiten duten guztiendako. Berriz diot zaintzea oso garrantzitsua dela, behin galduta ez dagoelako guztiz berreskuratzerik.

Pentsatzen dut merkeak ez direla izango audifonoak.

Merkeak ez dira, baina prezio askotakoak daude eta ordaintzeko samurtasunak ematen ditugu –bi urtean ere ordain daitezke–. Eta diru arazoak dituztenendako, Aldundiak laguntzak ematen ditu.

ELKARRIZKETA: ARANTZAZU ILZARBE ETA LIERNI ERRASTI / OREKA FISIOTERAPIA ZENTROA

"Makinetan barik, eskuzko terapian sinesten dugu guk"

XABIER URTZELAI

Arantzazu Ilzarbe eta Lierni Errasti bergararrek Oreka fisioterapia zentroa jarri dute abian. Lehenago Clinica Columbian ibili ziren lanean, eta klinika horrek ateak itxi zituenean hutsetik hastea pentsatu zuten, leku berean (Fraiskozuri 8,1-A), baina lan egiteko beste modu baten oinarrituta.

Arantzazu Ilzarbe eta Lierni Errasti, Orekan. XABIER URTZELAI

Clinica Columbia zegoen tokian Oreka fisioterapia zentroa dago orain.

Bai, eta hasi aurretik argi utzi nahi dugu Oreka ez dela lehengoaren jarraipena, nahiz eta lehengo lekuan jarraitzen dugun. Gure kabuz hasi nahi genuen lanean, eta proiektu bat irudikatzen hasi ginen. Ondoren jakin genuen Columbiak ateak itxi behar zituela, eta kanpora joan beharrean erabaki genuen lokal hau hartzea.

Zer eskaintzen duzue Oreka fisioterapia zentroan?

Orain eskaintzen ditugun zerbitzuen gainean berbetan hasi aurretik garbi daukagu Orekan pazientearekin zelan lan egin nahi dugun: hona etortzen direnei atentzio pertsonalizatua eskaini nahi diegu; hau da, jendeari merezi duen arreta eskaini, daukan arazoa konpontzeko behar den denbora erabilita.

Dagoeneko zazpi hilabete daramatzazue. Zer moduz?

Oso ondo, ilusio handiarekin ari garelako lanean, eta lan askorekin, gainera. Lehengo bezero asko berriro hasi dira guregana etortzen, eta berriak ere badatoz. Horrekin batera, norberak uste duen moduan lan egin ahal izatea gauza handia da gaur egun.

> **"Orekan zerbitzu pertsonalizatua eskaini nahi dugu, pazienteari arreta eskainita"**

Ordutegiaren aldetik ere ahalegina egin duzue.

Bai, orain eguerdian ere lan egiten dugulako; izan ere, badakigu jende askorendako ordutegi aproposena hori dela. Hala, astelehenetik egubakoitzera 08:00etan irekitzen ditugu Orekako ateak eta 20:00ak arte egoten gara lanean.

Ze zerbitzu eskaintzen duzue?

Izenak dioen moduan, Oreka fisioterapia zentro bat da. Guk, baina, errekuperazio lana makinekin egin beharrean gehiago sinesten dugu eskuz egiten den terapian; makinek lagundu egiten dute, osagarri dira, baina haiek bakarrik ez dute inor osatuko. Eskuzko terapiak, berriz, emaitza hobeak ematen ditu, hor islatzen delako fisioterapeutak egiten duen lana.

> **"08:00etan hasten gara lanean eta eguerdian ere zabalik izaten ditugu ateak"**

Horrekin batera, logopedia eta osteopatia zerbitzuak ere eskaintzen dituzue.

Halaxe da. Gainera, Bergaran ez zegoen logopedia zerbitzurik. Logopediaren helburua da hizkuntzaren, ahotsaren, hizkeraren eta komunikazioaren arazoen prebentzioa, diagnostikoa, sendabidea eta ebaluazioa.

Osteopatiaren bitartez, berriz, lesio baten jatorrizko kausa topatu nahi izaten da; lesioa topatu eta tratatu. Horretarako, gorputzak berez dituen sendatzeko eta erregulatzeko mekanismoei ematen zaie lehentasuna. Hori guztia teknika ezberdinekin lortzen da, eta, teknika horiek behar den moduan erabiliz eta diagnostiko onarekin, gorputza orekan jartzea da gure helburua.

Eta fisioterapiak badu harremanik, esaterako, logopediarekin?

Bai, jendeak uste duena baino harreman estuagoa dute. Esaterako, ze zerikusi du ahotsak fisioterapiarekin? Logopeda baten helburua pertsona baten ahotsa berreskuratzea bada, hasteko erlaxazioa lantzen hasi beharko du, arnasa hartzeko ohiturak aldatu, posturak zuzentzeko ariketak egin... eta horiek guztiak fisioterapeuta baten lanak ere badira.

Hau da, ahotsa errekuperatzeko has zaitezke batek daki ze tratamendu egiten, baina lehenago aipatu ditugunak kontuan hartzen ez badira, seguruenik ez dugu inongo emaitzarik jasoko.

OREKA
fisioterapia zentroa

- **LOGOPEDIA**
- **OSTEOPATIA**
- ERREHABILITAZIOA
- MASAJEAK
- DRAINATZE LINFATIKOA
- RPG
- NEUROTAPE
- STRECHING
- ELEKTROTERAPIA
- TRAKZIO MAKINA
- ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA
- ASEGURUAK

Fraiskozuri 8, 1. A
20570 Bergara

Tel./Faxa: 943 76 71 74
oreka_bergara@hotmail.com

Iñaki Kortazar > Aitzorrotz kultura elkarteko kidea

"Aldizkari berriarekin herriko kultura ekintzen berri eman nahi dugu"

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Aitzorrotz elkarteak beste ekimen bat jarri du martxan: elkartearen eta herriko ekimenen berri emateko *Aitzorrotz* izeneko hilabetekaria egin du. Oraingoz, tabernetan baino ezin da lortu; baina, epe ertainera, bazkideei eta herriko beste hainbat tokitan banatu gura dute. Iñaki Kortazarrek horren gaineko azalpenak eman dizkigu.

Iñaki Kortazar, Aitzorrotz kultura elkarteko kidea. GOIENKARIA

Zer dela-eta aldizkariaren ideia?

Betidanik buruan izan dugun ideia izan da aldizkariarena, baina orain arte ezin izan dugu gauzatu. Asmoa da gure ekintzen berri ematea, elkartearen ekintzak, asmo berriak, herriko albisteak... Poliki-poliki hobetzen joango delakoan gaude.

Nolakoa da aldizkaria?

Aitzorrotz izena jarri diogu, herriaren eta elkartearen erreferentzia gisa. Lehen zenbakia argitaratu dugu dagoeneko, eta gure asmoa da hilero zenbaki berria ateratzea. Formatuari dagokionez, oraingoz lau orrialdeko aldizkaritxoa da, baina nork daki... Pozgarria izango litzateke orrialde kopurua igotzea, horrek herrian kultura mugimendua handitzen doala esan gurako bailuke.

Non eskura daiteke?

Herriko hainbat tabernatan debalde eskuratzeko aukera dago. Horretaz gain, elkarteko bazkideei etxera bidaltzea da asmoa; hori nola egin pentsatzen ari gara orain. Aurrera begira, dendetara zabaltzeko aukera ez dugu baztertzen; betiere ale kopuruaren arabera izango litzateke. Oraingoz, horretan ari gara, baina gure asmoa da bazkideendako 100 ale ateratzea eta beste 100 ale herriko tabernetan eta dendetan eskura jartzea.

Zer topatuko du barruan irakurleak?

Ideia da herriko kultura ekimenen berri ematea, bereziki Aitzorrotz kultura elkarteko ekintzen berri, baina baita udalaren agenda txiki bat, *Eskohitza* blog komunitatearen artikuluak, elkarrizketak eta gomendioak. Apurka osatzen joango gara.

Dena dela, aldizkariak helburu bikoitza du...

Hala da. Helburu orokorra informatzea da, baina bazkide berriak lortzeko ere balioko duelakoan gaude. Elkartea edozeini zabalik dagoela gogorarazi nahi dugu eta bazkide egiteko aukera ere edozeinentzat zabalik dagoela. Azken hilabete honetan, adibidez, jende asko etorri zaigu bazkide egiteko interesa erakutsiz.

Gainera, elkartearen bazkide txartela martxan jarri berri dugu. Hainbat abantaila eta deskontu lortzeko aukera ematen du elkarteak antolatzen dituen jardueretan: kontzertuetan salgai dauden materialetan, bazkarietan eta kanpora egingo diren bidaietan.

UDALA > LANAK

Iazko Estatu Fondoko hamar proiektuak amaitu dituzte

Horren harira, Udalak fondoaren %100 jaso zuen joan den astean; hain justu ere, 700.250 euro

M.B. > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak asteon jakinarazi du Espainiako Tokian Tokiko Inbertsioen Fondoaren kontura iaz udalerrian martxan jarritako hamar proiektuak amaitu dituztela. Gaineratu du joan den astean jaso zuela fondoaren %100; hain justu, 700.250 euro.

Honako egitasmoak egin dira kopuru horrekin: Aranburuzabala-Arana kaleetako zoladura eta azaleko drainatzea hobetzea; Txistularien arratea birgaitzea; Lete eta Eraña arteko bidea konpontzea; San Pedro auzoa berriro urbanizatzea; Zarimutz elizateko Mendibe eta Urubil-Buruntzano baserrien arteko bidea konpontzea; udal etxebizitza bat birgaitzea; Olaetako pilotalekua estaltzea; Bolibar, Eraña, Lete eta Mendiolako ur hornidura sarea konpontzea; Kulunka eta liburutegiko teilatua konpontzea; eta Luis Ezeizan su-detektagailuaren instalazioa hobetzea.

oharrak

UMEAK

> Ludotekan, PlayStation

Gaur PlayStationekin ibili ahal izango dira 7 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoak Tortolis ludotekan, 17:00etan.

IBARRAUNDI

> Erakusketa domekara arte

Ibarraundin *Natura 2000, bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak izeneko erakusketa* dago egunotan. Interesatuek domekara arte dute bisitatzeko aukera honako ordutegian: 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era. Domekan, gainera, *Super-bioak martxan* ikuskizuna egongo da museoan, 12:30an.

BERTSOAK

> Afaria dago bihar Apotzagan

Bihar bertso afaria dago Apotzagako San Migel jatetxean, 21:00etan. Uxue Alberdi eta Iñaki Gurrutxaga izango dira han.

GAZTEAK

> Maskara eta sukaldaritza tailerrak aste bukaeran

Gaztelekuan bihar maskara tailerrak egingo dute, 17:00etan. Etzi, berriz, sukaldari ibiltzeko aukera izango dute gazteek, ordu berean.

KIROLA

> Asteburuko kirol hitzorduak

Bihar, zapatua, hasiko dira norgehiagokak. 16:00etan, Ohorezko Ligako areto-futbol partidua egongo da Intxaurtxuetako kiroldegian, Eskoriatza eta Los Profesionales taldeen artean. 18:00etan, senior mailako nesken saskibaloi partidua izango da; 2. faseko lehenengo lehia jokatu da ordu horretan. Domekan, azkenik, Euskal Ligako areto-futbolaren txanda izango da. Etxekoek, berriz, Alegria taldekoak hartuko dituzte, 17:00etan.

Kukumarroekin agurtu zituzten Aratusteak

Urtero moduan, martitzenean ere mozorrotuta irten ziren eskoriatzarrak kalera. Goizean, umeek betiko jaialdia egin zuten; musika eta dantzak izan ziren han protagonistak. Arratsaldean, berriz, Patxin eta Potxin pailazoekin barre egin zuten Udal Pilotalekuan; ikuskizunean parte hartzeko aukera izan zuten hainbatek. Aurtengo Aratusteak agurtzeko, azkenik, kukumarroak irten ziren, 18:30ean, kultura etxetik. Ordurako ehunka ume zituzten zain hiru kukumarroek plazan.

MIRIAN BITERI

INGURUMENA

Herriko sei lekutan batuko dituzte pilak

Era guztietako pilak hartuko dituzte: alkalinoak eta botoidunak

A.E. > ANTZUOLA

Mankomunitatearekin elkarlanean, herriko sei lekutan jarri dituzte erabilitako pilak batzeko puntuak. Leku hauek dira: udaletxea, Juan Kruz argazki-denda, Charter-Eros-le janari-denda, Telleria Elektrizitatea, Itzar liburu-denda eta Antzuolako Herri Ikastetxea.

PILAK ETA BATERIAK

Puntu horietan mota guztietako pilak jasotzeaz gain –alkalinoak zein botoi-pilak–, bateria txikiak ere hartzen dituzte; esaterako, poltsikoko telefonoenak eta kamerenak. Mankomunitateak jakinarazi du, gainera, komeni dela pilak eramateko erabili dugun poltsa ere zabor arruntera ez botatzea, kutsatuta egon daitekeelako.

oharrak

DEIALDIA

> Emakumeei buruzko argazkiak bildu gura dituzte

Gizarte Zerbitzuek antolatuta, *Emakumea eta lana etxe barruan eta kanpoan* erakusketa egingo dute. Horretarako, argazkiak bildu gura dituzte. Argazkiak udaletxera edo Gizarte Zerbitzuetara eraman behar dira otsailaren 26a baino lehen.

KINTADA

> 1974an jaiotakoek kintada egingo dute martxoaren 6an

Hernaniko Iparragirre sagardotegian izango da bazkaria. Eguerdian irtengo da autobusa Antzuolatik.

KIROLA > FUTBOLA

Hiru partidu galdu ostean, irabaztea ezinbestekoa dute

Ligako 20. jardunaldian Zumaiakoren aurka jokatuko dute, 16:30ean, Estalan

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Bolada txarrari amaiera ematea beharrezkoa dute Antzuolako mutilek. Hiru partidu jarraian galdu ostean, bihar, zapatua, irabaztea ezinbestekoa izango dute etxekoek. Partidua 16:30ean hasiko da, Estala futbol zelaian Zumaiakoren aurka.

PARTIDU ZAILA

"Partidu zaila izango da, kontuan hartuta aurkaria sailkapenean bigarren postuan dagoela", azaldu du Iban Unanue Antzuolako entrenatzaileak. Izan ere, bi taldeen arteko aldea nabarmena da, sailkapenean, behintzat: Zumaiako 2. postuan dago 39 punturekin eta Antzuola, 22 punturekin, 11. postuan.

LEHENENGO ITZULIA, AMAITUTA

Lehenengo itzulia bukatzeko falta zuten partidua jokatu zuten joan den astean: Anaitasunaren aurka 3-2 galdu zuten. Itzuli "ona" egin dutela uste du Unanue entrenatzaileak, baina azkenaldiko bolada txarra nabarmendu du.

JUDITH MARTINEZ

Erdi Aroko 'Milady eta Milord' koadrila

Bukatu dira Aratusteak, giro ederrean, gainera. Irudikoak *Milady eta Milord* koadrila dira. Erdi Aroa irudikatu zuten Aratuste-domekan; horretarako, gaztelua eta ostatua eraiki zuten. Esan digute eurek egin zutela lan guztia: lau errubera ipini... eta kalera! Ederto pasa zuten kalean gora eta behera, haurrak gaztelu barruan sartuta. Trekutz elkartean hamarretakoa egin zuten, eta baita bazkari ederra ere.

KULTURA > ERAKUSKETA

Manolo Montielen argazkiak ikusgai Olaran etxean

A.E. > ANTZUOLA

Manolo Montiel elgetarrak txakurrei ateratako argazki sorta jarriko du ikusgai Olaran etxean bihartik aurrera.

GIPUZKOA OSOAN

Hogei egunetan Gipuzkoa osoa zeharkatu zuen Montielek txakurrei argazkiak ateratzen. Herri bakoitzeko txakur arraza bat aukeratu eta argazkiak atera zizkien. Hala, 88 argazki egongo dira ikusgai erakusketan. Antzuolakoei dagokienez, *Lassie* colliearen eta *Txiki* euskal artzainaren argazkiak egongo dira.

Erakusketa bihar eta etzi egongo da zabalik, 12:30etik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era. Gainera, datorren aste bukaeran ere zabalik egongo da, hilaren 27an eta 28an.

bere ustez

Iñigo Ramirez de Okariz

Parrokia, herriaren identitate ikur

Joan zen astea ez nuen oso lasai pasatu. Izan ere, zapatuan herriko parrokiaren obretarako diru laguntza eskatzen ibiltzea erabaki genuen. Aitortu behar dugu etxez etxe, ate joka joate hori ez dela eskatzeko modu erosoena; baina, tira, emaitzei begira txarrena ere ez. Egonezin horren arrazoia ere, dirua eskatzeko objektua izan zitekeen; herriko parrokia. Horren inguruan aurreiritzi bat edo beste "Joan zaitezte Vatikanora, han bai dagoela-eta dirua!", edo "Eskatu gotzain berriari, Munillari!" egon zitekeelako. Iritsi zen zapatua, eta Salbador bidelagun nuela, atez ate ibili ginen. Konturatu ginen gure aurreiritziak ez zirela benetakoak, etxeetan jasotako ongietorria paregabekoa eta eskertzekoa izan zelako.

"Parrokian herria eta herritarrak ikusten ditut"

"Zer da zuretzat herriko parrokia?" galdetu izan didate. Parrokian herria eta herritarrak ikusten ditudala erantzuteak, argibideren bat beharko luke. Herri batek identitate ikur asko dauzka, batzuk lehendik datozenak eta beste batzuk orain asmatutakoak. Euretako bat gure parrokia da, ideologia eta sinesmen guztien gainetik egon beharko lukeen ondarea, eta guk, herritarrok, bere mantentzean ahal den neurrian lagunduz, zaindu beharko genukeena.

Animatu, laguntza eskaintzen. Zerua irabaztea ziurtatu ez arren, bidea erraztuko dugu!

DEKORAZIOA ABAD PINTURAK ANTZUOLA PAPER PINTATUAK
Jose Gomez Abad
Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19
INDUSTRI MANTENIMENDUA

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

Arin Jatetxea
Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak
ETXEKO BEREZITASUNAK:
Buztana eta txuleta (zaharrarena).
Enkarguak ere hartzen ditugu.
Astelehenetan eta martitzenetan itxita
Kalebarren 7 • 943 78 62 45
ANTZUOLA

PATXI CASTRO

Era guztietako aulkien konponketa
•
Tapizatu lanak
•
Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
•
Besaulki, mahai, saskiak e.a
943 78 71 65
639 01 69 69

JENDARTEA > GAZTEAK

Azkenaldiko txikizioak direla-eta batzarra deitu du Udalak

Martitzenean osoko bilkura aretoan egingo den hitzaldia da 12-18 urteko seme-alabak dituzten gurasoendako

Udalak egunotan eskutitza bidaliko die adin tarte horretako kideak dituzten familiei

MIRIAN BITERI > ELGETA

Udala "oso arduratuta" dago azkenaldian herriko hainbat gaztetxok kalean eragin dituzten txikizio eta triskantzekin. Horiek ekar ditzaketen arazoetaz herritarrak "kontziente" izan daitezen, Elgetako Herri Eskola Gurasoekin eta Bergarako eskola kontseiluan dauden Elgetako gurasoen ordezkariekin adostuta, Udalak gurasoei zuzendutako hitzaldia gertatu du. *Gure adin txikiko eta gazteen artean delitu eta gizarte bazterketa ekiditea* izena jarri diote martitzenean, otsailak 23, udaletxeko osoko bilkuren aretoan 19:00etan egingo den hitzaldiari.

Udaleko Ongizate batzordetik jakinarazi dutenez, hitzaldia bereziki 12 eta 18 urte bitarteko seme-alabak dituzten Elgetako gurasoei zuzenduta dago. Horrekin batera, gaineratu dute datozen egunotan familia horiei eskutitza bidaliko zaiela, hitzaldi horretara joan daitezen eskatuz.

ARRATS ELKARTEA

Gazteen artean lanean urte asko daramatzaten Arrats elkarteko ordezkariek egingo dute hori. Lehenik eta behin, nerabezaroak dakartzan aldaketen gainean jardungo dute. Hain justu ere, nerabeek bizi duten nortasunaren aldaketaren gaineko azalpenak eskainiko dituzte; esaterako, gazteen gorputzak jasaten dituen aldaketaz, sexualitateaz edo dituzten erreferente berriez egingo dute berba atal horretan.

Jarraian, arrisku jarreren inguruan eta gizarteak horiek onartzeko duen erraztasunaz hitz egingo dute, hala nola asteburuetako aisialdiaz, gazteen balio materialistaz, droga kontsumoaz, sexualitatearekin lotutako arriskuez, eskola porrotaz edo delituez. Azken horretan, kaletako liskarrak, droga kontsumoa eta salmenta, lapurretak, herriko hiri-altzariak txikitu eta eskola jazarpenaren gaiak jorratuko dituzte.

LEGEDIA

Martitzenean egingo den hitzaldia amaitu aurretik, adinez txikiak direnen legediaren gainean informatuko dute, baita *bullying*-a eta horren harira aurreikusita dauden zigorren gainean eta zigor horiek non betetzen diren ere jakinaraziko zaie gurasoei.

Horren harira, Arrats elkarteko ordezkariek gurasoei azalduko diete adin txikikoen legearen helburua ez dela horiek zigotzea, zigorra, berreskuratzea baizik; eta bi arlotan egiten dela hor lan: norbanakoan eta nerabearen inguruan.

DATUA

6

TXIKIZIO

Udalak herrian izandako sei txikizio aipatu ditu. Besteak beste, patronatuan, pilotalekuan, kultura etxean eta Maala parkean gertatu dira horiek.

IZANDAKO TXIKIZIOAK

Bestalde, Udalak azkenaldian herrian izandako txikizioak gogorarazi nahi izan ditu. Honako hauek dira: patronatuko lokalei su ematea, patronatuan behin eta berriro sartzea guztiz debekatuta dagoen arren, eskola zaharrean triskantzak egitea, pilotalekuko kristalak apurtzea, kultura etxeko su itzalgailuak hustea eta Maala parkean apurketak egitea. Horren aurrean, Udalak jakinarazi du neurri "zuzenak" hartuko dituela. Tartean, esan bezala, martitzenerako deitutako hitzaldia dago.

HEZKUNTZA > AURRE-MATRIKULAZIOA

Datorren ikasturteari begira zortzi umek eman dute izena eskolako 2 urteko gelan

Eskola 2.0 programaren harira, arbel digitala eta ordenagailuak kargatzeko armairua jarri dituzte

M.B. > ELGETA

Dagoeneko amaitu da herriko herri eskolan aurre-matrikulazioa egiteko epea eta datorren ikasturteari begira 2 urteko zortzi umetxok eman dutela izena azaldu du hango zuzendari Emma Igartuak. Hain justu ere, sei neska eta bi mutil izango dira 2 urtekoen gelan.

Datu horiek kontuan izanda, 2010/2011 ikasturtean eskolak izango duen haur kopurua aurtengoaren parekoa izango dela esan digu: "Aurten, 87 ume ditugu eta datorren urtean ere kopurua hortxe egongo da. Hainbat baja izatea aurreikusten badugu ere, 85 eta 87 artean izango ditugula uste dugu".

ESKOLA 2.0

Bestalde, jakina denez, Jaurlaritzak martxan jarritako Eskola 2.0 programa iritsiko da laster herriko eskolara. Igartuak jakinarazi digu dagoeneko arbel digitala eta ordenagailuak kargatzeko armairua jarrita daudela eta umeendako ordenagailu eramangarriak noiz iritsiko diren zain daudela orain.

Igartuak gogorarazi digu programa berri horren bidez Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasgela digitalizatu egin nahi dela. Horretarako, besteak beste, miniordenagailu eramangarriak, arbel digital interaktiboa, bideo-proiektagailua eta armairu elektrifikatu metalikoa banatuko dira.

Dagoeneko instalatu dute 5. eta 6. mailakoen gelan arbel digitala. MIRIAN BITERI

5. ETA 6. MAILETAKOAK BATERA

Horren harira, eskolako zuzendariak esan digu arazoa dutela Elgetan Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleak gela berean daudelako eta egitasmo hori, hasiera baten, 5. mailakoendako bakarrik delako. Igartuaren esanetan: "Eskola txikiak guztiok batera kexu ginen esaten 5. eta 6. mailetakoak batera daudela eta ez dugula ondo ikusten 5. mailakoak ordenagailuarekin egotea eta ondoan dagoen umea koadernoarekin egotea. Erantzunaren zain gaude".

Bestalde, arbel digitala delaeta, datozen asteotan irakasleek ikastaroa dutela azaldu digu. Bada, tutorea, ingeles eta pedagogia terapeutikoko irakasleak joango dira, arbela nola dabilen ikastera.

frontenis txapelketa

Bihar, zapatua, partidu guztiak

Poliki-poliki aurrera doa Elgetako II. frontenis txapelketa. Aste bukaeran, zapatuan jokatuko dira norgehiagoka guztiak eta domeka goizean jai izango dute jokalariek.

Bost partidu daude aurreikusita, bat aurreko asteburuan atzeratutakoa.

AZKEN EMAITZAK

1. Asier Osoro-Adrian Gorostiza/Josu Arantzabal-Eneko Ojanguren	25-09
2. Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga/Eneko Maguregi-Andoni Elortza	25-13
3. Oskar Sarasua-Xanti Dosuna/Mikel Mandaluniz-Julen Barrutia	25-22
4. Josu Arantzabal-Eneko Ojanguren/Mikel Mandaluniz-Julen Barrutia	25-14
5. Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi/Eneko Maguregi-Andoni Elortza	atzer.
6. Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi/Sergio Bouzas-Mikel Arkarazo	25-20
7. Nagore Morales-Beatriz Zabala/Susana Jimenez-Olaia Jimenez	25-13

ZAPATUKO PARTIDUAK, 16:30EAN

1. Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi/Eneko Maguregi-Andoni Elortza
2. Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga/Mikel Mandaluniz-Julen Barrutia
3. Nagore Ojanguren-Leire Urgoitia/Nagore Morales-Beatriz Zabala
4. Iban Retolaza-Xabier Ubera/Oskar Sarasua-Xanti Dosuna
5. Josu Arantzabal-Eneko Ojanguren/Sergio Bouzas-Mikel Arkarazo

oharrak

> Eguaztenean mahai jokoak izango dituzte erretiratuek

Eguaztenean, Xalbadorpe erretiratuen elkarteak antolatuta, mahai jokoak izango dituzte Ozkarbi elkartean, 16:00etan. Bazkide guztiek parte hartu ahal izango dute. Interesatuak ordu eta egun horretan esandako toki baino ez dira pasa behar. Briska, mus eta tutean jokatu ahalko dute erretiratuek.

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

Abantailaz betetako kluba!
Goiena kluba
OTSAILEKO ZOZKETA
Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro

ESAIT-EKO TERMIKO BERDEA ETA BISERA
Bidali KLUBA ESAIT [Bazkidearen izena] 5195 zkra.
esait

UMEENTZAKO PUZZLEAK
Bidali KLUBA PUZZLEA [Bazkidearen izena] 5195 zkra.
Ikastolen Elkartea

SASKIBALOIRAKO SARRERAK
Bidali KLUBA SARRERAK [Bazkidearen izena] 5195 zkra.
LAGUN ARO SAN SEBASTIAN GIPUZKOA BASKET

EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA
Bidali KLUBA ZIRA [Bazkidearen izena] 5195 zkra.
EKFB Euskal Selekzioa

SARI NAGUSIA URTARRILA-MARTXOA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
JOCCA RACLETTE
• Grill-plantxa estaldura itsasgaitzarekin eta ateragarria, erraz garbitzeko.
• Ez du oliorik behar.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

OROIMEN HISTORIKOA > OMENALDIA

II. Oroimenaren Eguna ospatuko da Aramaion datorren zapatuan

Frankismoaren biktimei omenaldia egingo diete eta beste hainbat ekitaldi izango dira herrian otsailaren 27an, zapatua

EDU MENDIBIL > ARAMAIO

Ahaztuak 1936-1977 elkarteak II. Oroimenaren Eguna ospatuko du datorren zapatuan, otsailaren 27an, Aramaion. Frankismoak, errepresioak eta estatu kolpeak kaltetutakoak batzen ditu Ahaztuak 1936-1977 elkarteak. 2005ean sortutako elkartea da eta joan den urtean Adiskidetze eta Bakearen aldeko Gernika saria jaso zuen. Oroimenaren I. Eguna Gernikan ospatu zuten, iaz, otsailaren 7an. Bigarren ekitaldia, esan bezala, Aramaion egingo dute, datorren zapatuan.

Eguneko egitaraua guztiz zehazteke dago oraindik. Edozein modutan, goizean zehar frankismoaren biktimei omenaldia egingo diete eta jarraian hainbat hizlarik berba egingo dute kultura etxean. Ondoren, herri bazkaria izango da kultura etxean. Datozen egunotan aditzera emango dute zein lekutan eman ahal izango den izena bazkarira joateko. Jai kutsua eman nahi diote antolatzaileek Oroimen Egunari eta musikak ere bere tartetxoa izango du: Fermin Valencia musikariaren parte-hartzea dagoeneko konfirmatuta dago. Amaieran, Udalak deitutako elkarretaratzea egongo da.

NIKARAGUAKO ERAKUSKETA

Bestalde, gogoratu behar da *Nikaragua: atzo, gaur eta bihar* izenburuko erakusketa domekara arte dagoela ikusgai Sastiña aretoan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30ak arte.

> DEIALDIA

Odol ateratzea eguaztenean, otsailaren 24an, osasun etxean

Eguaztenean, hilak 24, odol ateratzea egingo dute Aramaioko osasun etxean. Odola emateko interesa dutenek arratsaldez jo beharko dute osasun etxera, 16:15etik 20:00etara, hain zuzen ere. Herriko odol emaileei dei egiten zaie odol ateratzean parte hartzeko.

> OSASUNA

Erretzeari uzteko hitzaldia izango da datorren zapatuan

Zuiako Koadrilako udalerrietako bizilagunei zuzenduta, erretzeari uzteko hitzaldia izango da otsailaren 27an. Hitzaldia zein udalerritan egingo den zehazteke dago eta tokia aukeratzerakoan kontuan hartuko dute jende gehiago apuntatzen den udalerria. Argibideak, udaletxean.

> KULTURA

Ipuin kontalari saioa gaur arratsaldean kultura etxean

Gaur, egubakoitza, *Munduko ipuinak* izenburuko saioa izango da kultura etxean, 17:30ean.

Bereziki, neska-mutikoei zuzendutako saioa da. Kultura etxera joaten direnek ipuin kontalariaren eskutik istorio magikoak entzuteko aukera izango dute. Sarrera doan da.

Hainbat gatzagar Loren Larrañaga Soraneko sukaldaria lagun dutela txotx egin ostean. ENRIQUE IGLESIAS

LEINTZ GATZAGA > GASTRONOMIA

Txarriboda egingo dute martxoko bi aste bukaeratan Soran Etxeko jatetxean

Domekan oporrak hartuko dituzte eta ondoren IV. gastronomia jardunaldiei helduko diete

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Geratu barik dabiltza lanean Soran Etxea hoteleko jatetxean. Joan den astean txotx egin zuten 50 litroko sagardo kupelarekin. Bazterrak zuri egon arren, giro beroa izan zutela jakinarazi digute elkartutakoek, eta "sagardotegi onenetako menua" dastatu zutela.

Zapatuan, ostera, Inauterietako herri afaria egin zuten eta 65 lagun elkartu ziren. Musika lagun, aparteko giroa sortu zuten: "Goizeko bostetan bota nituen azkenak", dio Montse Valerio ugazabak.

BENETAKO TXARRIBODAK

Bestalde, astean hasi dituzte IV. gastronomia jardunaldiak eta Soran ere bertan izango da, "benetako txarriboda" egiteko asmoarekin. Hala ere, domekan oporrak hartuko dituzte, martxoaren 10a arte, eta itzulitakoan antolatuko dituzte txarribodak bi aste bukaeratan: martxoaren 19tik 21era eta 26tik 28ra.

Eguazteneko hasierako hamaikakoa: goian, ezkerretik hasita Imanol, Eraña, Borja, Eden eta Oinatz; behean, ezkerretik hasita *Amutxas*, Raul, Irastortza, Astola, Igartua eta Alain. XABIER URTZELAI

HIRUGARREN MAILA > 26. JARDUNALDIA

Aretxabaletak argi gorriak piztuta egingo du bidaia bihar Santurtzira

Eguaztenean, atzeratutako lehian, akats gutxien egin zuen taldeak irabazi zuen, Arenasek

Biharko kontrario Santurtzik Aretxabaletak baino zazpi puntu gehiago ditu eta hamabigarren dago

ARETXABALETA
1-3
ARENAS

Aretxabaleta > Eden, Raul Sanchez (Kerman, 46.min), Alain (Zenitagoia, 72.min), Amutxastegi, Astola, Julen Eraña, Imanol (Orueta, 55.min), Borja, Haritz Igartua, Irastortza, Oinatz.

Arenas > Talledo, Ruben, Arkaitz (Rul, 35.min), Iban, Gorka, Imanol, Iñigo, Arkaitz (Borja, 77. min), Aritz (Mikel 88.min), Howard Miranda, Koldo.

Epailea > Fuentes jauna. Tejadas eta Sarasua izan ziren marrazain lanetan. Ibarrako zaleak ez ziren gustura geratu epaileak egindako lanarekin. Txartel horiak erakusterakoan ez zuen irizpide bera izan jokaldi guztietan. Baina UDAren kontrako penaltian asmatu egin zuen, eta baita Kermanen txartel gorrian ere.

Bestelakoak > Nahiz eta giroak lagundu ez eta eguazten iluntzea izan, UDAko zaleek ez zuten Aretxabaleta bakarrik utzi. Ez zen domeketan izaten den girorik egon, baina 350 ikusle egongo ziren Ibarran.

XABIER URTZELAI > ARETXABALETA

Futbolean gogo aldarteak eragin handia duela diote, eta hala bada, Gordobilen mutilek pizgarria behar dute, espabilatzeko. Izan ere, eguaztenean, azken hilabeteotan behin eta berriro ikusitako filma errepikatu zen, pare bat hanka-sartze eta partidua galduta. Joan den zapatuan atzeratutako partiduari etekina ateratzeko asmo biziz zelairatu zen hasierako hamaikakoa, eta bultzada horri esker lehenengo minutuetan Arenasen ate inguruan egon zen arriskua, batez ere baloi geldituko jokaldietan.

19. minutuan Igartuak faltaz egindako jaurtiketa gutxigatik joan zen kanpora, eta bost minutu geroago protagonista berak punteria doitu eta jaurtiketa ederra egin zuen, hesia gaindituz. Jokaldi hartan, baina, Arenasko atezain Talledok hilabete osoko nomina irabazi zuen: Igartuaren zartakoa maisuki urrundu eta azkar erreakzionatuta bigarren gelditua egiteko gauza izan zen, Eraña atea zulatzeko gertu zegoen-eta. Hor izan zuen Aretxabaletak lehenengo zatiko gol-aukera onena.

Arenasek, baina, gutxi behar izan zuen 0-1ekoa egiteko. Falta baten –ondo ateratakoa– Arenasko jokalari batek buruz orraztu zuen baloia, eta markaketa huts batengatik bigarren zutoinean zain zegoen kontrarioak ez zuen barkatu; bularraz baloia jaisteko ere astia izan zuen aurrelariak, eta Edenen aurrean bakarrik errematea egin zuen.

ATZEALDEAN ALDAKETAK

Lehenengo zatiak ez zuen gehiagorako eman, eta, Fuentes epaileak UDAko atzelariak txartel horiekin neurrigabe zigortu zituenez, Gordobilek Raul Kermanengatik aldatu zuen deskantsuan.

Bigarren zatiko 47. minutuan eman zuen Arenasek abisua, falta batek hesian jo eta aldaratzea Edenek defendatzen duen ateaaren eskuadra ondotik pasata. Segidan, pattal ibili zen Imanol Oruetagatik ordezkatu zuen Gordobilek. *Piru*-ri kosta egingo zaio zelaira irten eta egin zuen lehen jokaldia ahaztea: bere area inguruan zegoela loratuta iritsi zitzaion baloia, eta atezainari eman nahi izan zion, buruz. Ez zuen, baina, jokaldia ondo neurtu, eta Aretxabaletako defentsen artean burukomin bat baino gehiago ematen zebilen Howard azkar ibili zen jokaldi hartan –eta partidu osoan–. *Piru*-ren intentzioa antzeman, defentsari aurreratu, baloia lapurtu eta ordurako *salduta* zegoen Aretxabaletako atezainak ezin izan zuen ezer egin (0-2).

Egoera latza zelaira irten berri den jokalariarendako, eta baita talde osoarendako ere. Horri guztiari buelta emateko ardura Astolak hartu zuen, *Piru* bera eta talde osoa animatuta.

Eta orduan etorri zen partiduko irakurketa positiboetako bat, UDA gora etorri zelako; galtzeko gutxi eta irabazteko asko. Lehengoaz ahaztu eta *Piru*-k berak jokaldi on bat baino gehiago egin zuen eskumatik. Halaxe lortutako falta baten etorri zen 1-2koa. Alainen ordez zelairatu zen Zenitagoiak atera zuen falta, bikain –gol erdi berea–, eta Kermanek barrura bidali zuen baloia, buruz errematea eginda.

BERDINKETARAKO ESPERANTZAZ

Hamabost minutu geratzen ziren partidua amaitzeko, eta berdegunean ikusitakoagatik, Aretxabaleta gauza zen partidua berdintzeko. Orduan etorri zen zorigaiztoko jokaldia: epaileak ez zuen Aretxabaletaren alde zelai erdian falta garbia adierazi, eta etxeko defentsek zalantza egin zuten segundo erdiz. Nahikoa izan zen errebotez Arenasko aurrelariak baloia eramateko, eta Kermanek ostikoz geratu zuen, bakarrik zihoala. Txartel gorria. Txistuak epailearendako, baina hor zapuztu zen berdinketarako ametsa.

UDA hamar jokalarirekin eta lerroak aurreratuta, 88. minutuan Howardi egindako penaltia gutxienekoa izan zen, ordurako eginda zegoen dena (1-3).

19. minutuan Arenasko Talledok gelditu bikoitza egin zuen; hor aukera garbiena

Hamar jokalarirekin UDAk berdinketaren bila joateko indarra galdu zuen

> BERBALDIA

'Egiten duzun kirol hori aproposa da zuretako?'

Kirola egitea osasungarria da, egia biribila da hori. Bain kirola egiteak berak ere sor ditzake hainbat lesio. Eta gerta daiteke, baita ere, praktikatzeko aukeratu dugun kirol jarduera ez izatea guretako aproposena. Horren guztiaren gainean egingo dute berba datorren martitzenean, hilak 23, eta eguenean, hilak 25, Bergaran egingo duten berbaldian –Miguel Altuna Institutua.

Berbaldia Ane Remediosek eta Ane Corantik egingo dute eta doan izango da.

> PILOTA

Bergarako lau t'erdiko partiduak martitzenean

Joan den martitzenean Ander Mugurutzak (22-6) eta Onsalok (22-6) aurrera egin zuten lau t'erdiko amateur mailako txapelketan. Hurrengo jardunaldia, berriz, martitzenean, hilak 23, jokatuko dute (19:00etan hasita). Hasteko, Renobalesek eta Iturriotzek jokatuko dute. Hirugarren partiduan jokatuko du Antzuolako Mendizabalek.

Asier Penabad bergararra erdian, iazko Gorlako igoeran. GOIENKARIA

TXIRRINDULARITZA > AURKEZPENA

Lokatzak bihar aurkeztuko ditu ziklistak, eta egitasmoak

Gipuzkoan proba gehien antolatzen dituen klubetakoa da Lokatza ziklismo eskola

XABIER URTZELAI > BERGARA

Lokatza ziklismo eskolak bihar aurkeztuko du oraingo denboraldian ze ziklistak ordezkatuko duten taldea, eta baita babesleak eta urtean zehar antolatuko dituzten lasterketak ere. Alde horretatik, Lokatzak erronka ederra du aurrean, inoiz baino hitzordu gehiago antolatu behar dituzteta, hamarretik gora.

Lokatzakoak martxo hasieran hasiko dira lanean, gazte mailako Soraluce E. Koop sari nagusia antolatuta. Eta ondoren etorriko dira urtero antolatzen dituzten Gorlako igoera (martxoak 19), Gipuzkoako klasikoa, Labegaraieta saria... Aurten, baina, azpimarratzekoa da ekainaren 19an egingo duten emakumeen lasterketa, eta baita maiatzaren 2an egingo duten zikloturisten martxa antolatzen ere ibiliko direla. Argibide gehiago, *Astelehenekо Goienkaria*-n.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Bigarren maila
Girona-Real
Domeka. 17:00. Montilivi.

Hirugarren maila
Santurtzi-Aretxabaleta
Zapatua. 17:30. San Jorge.

Gazteen liga nazionala
Aretxabaleta-Reala
Zapatua. 17:45. Ibarra.

Gazteen euskal liga
Retuerto-Bergara
Zapatua. 16:30. Ibarreta.

Ohorezko erregiona maila
EHU Vasconia-Bergara
Domeka. 16:00. Herrera.

Trintxerpe-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Don Bosco.

Oiartzun-Mondra
Zapatua. 16:15. Oiartzun.

Erregional preferentea
Antzuola-Zumaiako
Zapatua. 16:30. Estela.

Aretxabaleta B-Amaikak Bat
Domeka. 16:30. Ibarra.

Lehen erregionala, igoera fasea
Vasconia-Bergara B
Domeka. 15:00. Martutene.

Irun 1902-Mondra
Zapatua. 19:30. Irun.

Lehen erregionala, kopa
UDA Arizmendi-Texas Lasart.
Zapatua. 15:30. Eibar.

Gazteen ohorezko maila
Aloña Mendi-Lagun Onak
Domeka. 16:30. Azkoagain.

Mondra-Beti Gazte
Domeka. 16:00. Mojategi.

Gazteen lehen maila, igoera fasea
Easo 08-Aretx.Arizmendi B
Zapatua. 19:15. Irun.

Gazteak, kopa
Begara-Ikasberri
Zapatua. 17:30. Ipintza.

Kadeteen ohorezko maila
Bergara-Añorga
Domeka. 11:30. Ipintza

Aretxa. Arizmendi-Kostkas
Domeka. 12:00. Ibarra.

Emakumezkoen igoera fa.
Arizmendi-Zumaiako
Zapatua. 15:00. Almen.

ARETO FUTBOLA

Euskal liga
Eskoriatza-Alegria
Domeka. 17:00. Intxaurtxu.

Senior autonomikoa
Ordizia-UDA Orly
Zapatua. 15:30. Ordizia.

SASKIBALOIA

Lehenengo maila
MU-ATE Asesores La Salle
Zapatua. 18:00. Iturripe.

Senior autonomikoa
UPV Alava-Aloña Mendi
Zapatua. 17:20. Gasteiz.

Senior emakumezkoak
Eskoriatza-Bera Bera
Eguna eta ordua zehazteke.

Gazteak, Euskal liga
Basconia-MU -A-
Zapatua. 11:00. Gasteiz.

Gipuzkoako seniorrak
Santo Tomas-Soraluce BKE
Zapatua. 20:00. Benta Berri.

Gazteak, giz. Partaidetza
Soraluce BKE-MU B
Domeka. 12:30. Labegaraiet.

Aloña Mendi-Billabona
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

ESKUBALOIA

Euskadiko txapelketa, gizonezkoak
Portugalete-Ford Mugarri
Zapatua. 18:30. Portugalet.

Euskadiko senior emak.
Verkol Aloña-IES Const.
Zapatua. 18:15. Zubikoa.

Euskadiko kadet, gizon.
Berezao Aloña-Aldaketa.
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

Euskadiko kadeteak, ema.
Verkol Aloña-Usurbil
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Lehen territorial maila
Hegialde-Soraluce
Zapatua. 19:15. Legazpi.

Ormaiztegi-Izarraitz Aloña
Gaur. 20:15. Zubipe.

Bigarren territoriala
Arrasate-Tolosa
Domeka. 12:00. Tolosa.

Federazio saria (gazt.)
Bergara Soraluce-Rotula
Zapatua. 16:00. Labegarai.

Aloña Mendi-Urola-Aspir.
Domeka. 12:00. Zubikoa.

Citroen Chapime-Aiadek
Zapatua. 16:00. Musakola.

Aiala Ost.-Verkol Aloña
Domeka. 12:30. Zarautz.

Foru aldundiko torneoa
Bergara Soraluce-Urola
Zapatua. 17:30. Labegarai.

Urnietako-Talleres Chap.
Zapatua. 16:00. Urnieta.

Verkol Aloña-Egia Servi.
Domeka. 10:30. Zubikoa.

'SIMPLEMENTE' DOKUMENTALERAKO SARRERAK
Otsailaren 26an Amaia antzokian izango den Jon Anduezaren *Simplemente* dokumentalerako sarrerak.

ELHUYAR-EN JOKOAK
Joko hauek opari gura badituzu, Interneten erosi; %5eko deskontua *www.elhuyar.org/edizioak* helbidean.

- **ZOO ZOROA (PANPINA ETA JOKOA)** *www.elhuyar.org/zoozoroa*
- **ARMIX KART** *www.elhuyar.org/armixkart*

Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba

Bi opari berri. Nahi?

Goiena Klubeko bazkide baldin bazara, deitu **943 25 05 05** zenbakira eta

LORTU SARIETAKO BAT DOAN*

*Deiak jasotzeko azken eguna: otsailaren 22a; zozketa eguna: otsailaren 23a.

GOIENA KLUBA | Telefonoa: **943 25 05 05** | e-posta: ***kluba@goiena.com***

> J.A. AZPIAZU
Bergarako labanagintzaz eta artazigintzaz hitz egin digu **> 32**

> PUNK KLASIKOA
UK Subs eta Vibrators taldeek kontzertua egingo dute bihar **> 32**

> IDURRE ELORTZA
Eskubaloian jokatzen du, eta atezaina da Aloña Mendiko bere taldean; entrenatzaile ere bai. Huhezin ikasten du **> 35**

Down sindromea duten neska-mutikoak ezagutarazteko lana

'SIMPLEMENTE' John Andueza arrasatearrak 'Simplemente' filma estreinatu du asteon

ARRASATEN Datorren egubakoitzean Arrasateko Amaia antzokian aurkeztuko du dokumentala

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Joan den martitzenean Donostiako Victoria Eugenia antzokian estreinatu ostean, John Andueza arrasatearrak gidatutako *Simplemente* dokumentala Debagoienera iritsiko da datorren astean; hain justu ere, egubakoitzean, otsailak 26, Arrasateko Amaia Udal Antzokian egingo dute aurkezpena, 19:30ean.

Dokumental horretan, Leioa aldeko Despertar los Sentidos izeneko dantza taldearen istorioa kontatu nahi izan dute. Hain justu ere, down sindromea duten 10 neska-mutikok dituzten bizipenak, sentimenduak eta emozioak kontatzen dituzte. Horretarako, Kantabrian dagoen Oriñon kanpinean 15 egun eman zituzten guztiek.

AURRETIK BI FILM LABUR

Ez da lehenengo aldia Anduezak down sindromearen gaineko lan bat egiten duena. Haren esanetan: "Arreba bakarra daukat, Bernardette. Down sindromea dauka, eta, familian bizi dudan neurrian, istorio hori oso presente izan dut beti". Horren harira, bere garaian, *Bernar* izeneko film laburra egin zuen. Gerora, tematika antzerakoarekin, *Bilintx* delako film laburra gidatu zuen. Anduezaren arabera: "Horiekin ziklo bat amaitu nuen; film laburrak ziren, 10 minutuko istorio laburrak. Oraingo lanean istorio osatuagoa egiteko aukera izan dugu; ikus-entzunezko ona egin nahi izan dugu".

Dokumental horrekin down sindromea dutenak nolakoak diren azaldu nahi du arrasatearrak. Horretarako, 80 minutu irauten duen dokumentala gertatu dute. Gaztelaraz da eta azpitituluak euskaraz ditu.

SARRERAK GAURTIK SALGAI

Bestalde, Arrasateko ekitaldirako sarrerak aste bukaera honetan salgai jartzekotan dira honako puntuetan: Monte, Txoko, Itzala eta Zuk Nahi tabernetan eta baita Al-Andalus elkartean ere. Sarrera bakoitzak hiru euro balioko du.

Horren harira, Anduezak azaldu digu emanaldia oraindik guztiz zehazteke dagoela. Dena dela, jakinarazi digu guztiak ez badira dokumental horretako hainbat protagonista Amaia antzokian egotea dela asmoa.

Bestalde, arrasatearrei gonbita egin nahi izan die aurkezpen ekitaldira joan daitezen: "Lasai asko esan nahi diot jendeari animatzeko, merezi duen proiektua delako; gauza ezberdina, ezohikoa da". Azkenik, eskerrak eman nahi dizkio Arrasateko Udalari, proiektua aurrera atera dadin laguntzeko gertu egon delako.

John Andueza > Dokumentalaren zuzendaria

"Filmaketan egunero sortzen zen egoera bereziren bat"

M.B. > ARRASATE

John Andueza arrasatearrak *Simplemente* dokumentalaren atzean dagoen lanaz hitz egin digu datozen lerroetan.

Nondik dator izenburua?

Dokumentalaren muntaketa egiten hasi ginenean konturatu ginen protagonistek askotan erabiltzen zutela *simplemente* hitza. Horrek grazia egin zigun eta guretako ere oso hitz sinbolikoa bihurtu zen lanean geundenean. Izenburua jartzeko ordua iritsi zenean, egokiena zela iruditu zitzaigun.

Noiz hasi zineten proiektua martxan jartzen?

Orain dela hiru bat urte abiarazi genuen. Lehenengo, gauzak lotu genituen: taldea ezagutu eta familiekin hitz egin eta azpiegiturak bideratu. Horrekin denbora luzea joan zitzaigun.

GOIENKARIA

Eta filmaketa noiz izan zen?

Orain dela pare bat urte, uda baten. Aspaldi egindako grabazioa bada ere, gerora etorri da lana. Kontuan hartu behar da Oriñondik 40 grabazio ordutik gora ekarri genituela eta horiek guztiak ikusi eta gero hasi ginela nolabait gidoia sortzen, baina, beti, errealitatean oinarritutako gidoia. Hori guztiori antolatu beharra zegoen, 80 minutuko lana ateratzeko. Dokumentala iazko uda amaierarako borobilduta zegoen. Handik aurrera, azken ukituak etorri ziren.

Ez zen lan samurra izango...

Hala da. Polita bai, baina nekeza. Dena dela, zinema proiektu bat martxan jartzen hasten denetik amaitu arte beti egoten da lan handia. Baina bidea polita denean, beti errazagoa egiten da dena.

Urte haietatik, baduzu gogoan anekdotarik?

Anekdotak protagonistak dira. Azkenean, filmaketak iraun zuen bitartean, egunero eta izkina guztietan sortzen zen egoera bereziren bat. Anekdota, hortaz, 200.000. Dena dela, ez nintzateke gai izango bakar bat aipatzeko.





Bizkai aldeko Despertar los Sentidos dantza taldeko partaideak dira dokumental horretako protagonistak.

GOIENKARIA

Jose Antonio Azpiazu > Historialaria

"Bergarako labanak eta artaziak Espainia osoan saltzen ziren"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Historia ikerketak sustatzeko egitasmoaren barruan, Jose Antonio Azpiazu historialariaren *Cuchillería y tijerería de Bergara en la Edad Moderna* izenburuko lana lagunduko du Bergarako Udal Artxiboak. Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundean lanean ibilitakoa, besteak beste, *La historia desconocida del lino vasco*, *La empresa vasca de Terranova* eta *Euskal burdinoletako bizimodua* eman ditu argitara Azpiazuk.

Nola sortu zen Bergarako labanagintza eta artazigintzari heltzeko ideia?

Oso mundu aberatsa iruditzen zitzaidan, oso gutxi ikasi eta ikusi dena, gainera. Lan pixka bat aurreratuta baneukan eta Bergarako Udal Artxiboari proposamena egin nion. Historia ikerketak diruz laguntzen dituzte, eta, nirea aztertu ondoren, baiezkoa eman zidaten. Hasita nago lanean eta asmoa da uda osterako, irail alderako, argitaratzea.

Nora jotzen zabiltza dokumentazio bila?

Alde batetik, Oñatiko Unibertsitateko Protokolo artxiboan dokumentazio askotxo dago, eskribauen aurrean egiten ziren kontratu mota guztiak hor gordetzen baitira. Milaka erreferentzia daude aipatutako artxiboan, inguruko herrietakoak zein Gipuzkoa osokoak. Bestetik, logikoa denez, Bergarako Udal Artxiboa beste informazio iturri garrantzitsu bat izango da, eta, azkenik, Valladolideko Real Chancillerian gauza interesgarriak topatuko ditut ziurrenik, sasoi baten epaiketa nagusiak han bukatzen zirelako, gaurko Epaitegi Gorena hura zen nolabait. Ikerketan buru-belarri sartuta nago dagoeneko.

Zein sasoiz ari gara Bergarako labanagintza eta artazigintza aipatzean?

XVI. mendeari buruz, nagusiki. Mende hartan kokatzen da garairik onena. Bergaran egiten zituzten labanak eta artaziak Espainia osoan saltzen zituzten: labana mota bereziak, sasoi hartan erabiltzen ziren artazi diferenteak... Produkzio mugimendu aberatsa zegoen eta horrek, nola ez, mugimendu ekonomiko izugarria ekarri zuen. Feria handienak, orduan, Medina del Campon eta Medina de Rio Secon egiten ziren, eta, horiez gain, Valladoliden, Toledon eta beste hainbat lekutan; Sevillan, tartean. Hain zuzen ere, Sevillakoa Amerikarako *tranpolina* izaten zen, nolabait.

Jose Antonio Azpiazu, eguenean, Oñatin. MIREN MANIAS

"Bergara merkataritzagune garrantzitsua zen, Gasteiz eta itsasoaren artean zegoelako"

Zein zen Bergararen tokia komertzio hartan?

Bergara oso merkataritzagune garrantzitsua zen, neurri handi baten Gasteiz eta itsasoaren artean zegoelako. Astean hiru egunez, martitzen, eguen eta zapatuetan, oker ez banago, gari feria egiten zen Bergaran, Bidekurutzetako plazan, eta beste merkataritza tipo bat ekartzeko aukera paregabea izaten zen.

Inguruko herrietan bazen Bergararen antzeko produkziorik?

Oñatin artazigileak baziren, Azpeitian labanagileak... Bergararekin harremanetan ziren, baina merkatu kontuetan Bergara zen burua. Sasoirik onenean, 60 bat maisu izango ziren Bergaran horrelako ofizioetan: Ipiñarrieta, Laudans, Ondarza eta beste asko.

Gainbehera noiz etorri zen?

XVII. mendean, esportaziorako arazoak sortu zirenean eta altzairua agortzen hasi zenean; izan ere, tresna gehienak Arrasateko altzairuarekin egiten zituzten.

Beste kontu bat: XVIII. mendeko euskarazko testuak ere argitaratu berri dituzue.

Azpeitiaren 700. urteurrena dela eta, Juan Madariaga, Jerardo Elortza eta hirurok artxiboetan aurkitutako izkribuak dira, 1740-1840 bitartean idatzitakoak. *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariaren 110. zenbakian argitaratu ditugu; interes historiko eta lingustiko handia dute, agiri publiko eta pribatuetan euskararen presentzia urria zen-eta orduan.

San Francisco de Borjari buruzko lan bat duzu esku artean?

Aurten 500 urte beteko dira jaio zena, eta, Oñatiko Madalena ermita ondoko etxetxo baten denboraldi luzetxoa egin zuenez, Jerardok eta biok eskuorritxo bat gertatuko dugu Madalenetarako, uztailerako.

MUSIKA > 3 ARETOA

UK Subs, Vibrators eta Disorders, zapatuan Arrasaten

Ingalaterrako punk-rock mugimenduko talde gidarietako bi izan ziren UK Subs eta Vibrators, 1970eko hamarkadan

E.M. > ARRASATE

UK Subs eta Vibrators taldeak ohiko bisitari bilakatu dira; izan ere, punk klasikoaren ikurretako bi berriro ere Arrasateko 3 aretoan izango ditugu gaur, egubakoitza. Urte pasatxoren bueltan hirugarren aldiz izango ditugu Arrasaten.

UK Subs, iaz otsailean Arrasaten emandako kontzertuan. JOSETXO ARANTZABAL

1970eko hamarkadaren erdialdetik aurrera Ingalaterrako punk-rock mugimenduko talde gidarietako bat izan zen UK Subs. Taldeak 30 urte bete zituen 2007an, eta, ikusitakoa ikusita, ez dute erretiratzeko inolako asmorik. Gainera, rock-and-rolla eta punka batzen maisuak direla erakutsi dute behin eta berriro. Charli Harperren gidaritzapean taula gainean ikusiko ditugu Nick Garrett gitarra-jotzailea, Alvin Gibbs baxu-jotzailea eta Jamie Oliver bateria-jotzailea.

Haien diskoen artean, besteak beste, *Another Kind of Blues* (1979), *Brand New Age* (1980), *Flood of Lives* (1983) eta *Riot* (1997) nabarmen daitezke. Esan beharrik ez dago hasierako kantu elektriko eta biziek eman diotela taldeari ospe handien; zaleak ez dira aspertzen lelo politikoz betetako kantu horiek entzuten.

BELAUNALDIKO LAGUNAK

The Vibrators talde ingelesak 1977an kaleratu zuen lehen diskoa, *Pure Mania* izenburukoa. Punk musikaren historian 50 diskorik onenen artean sailkatzen dute adituek. Aspaldian hirukote dira, baina talde trinkoa osatzen dute Ian Carnochan gitarra-jotzailearen eta abeslariaren gidaritzapean.

Disorders taldeari dagokionez, Zaldibarkoa da eta street-punk estiloa egiten dute. Gaurko kontzerturako sarrerak 12 eurotan (aurrez, Etxoste tabernan) eta 15 eurotan (leihatilan bertan) eskuratu ahal izango dira.

SEXTY SEXERS HURRENGO ASTEAN

Bestalde, hilaren 27rako Sexty Sexers eta The Riff Truckers taldeen kontzertua iragarri dute Arrasateko aretoan.

> ELKARTASUNA

Nikaraguari buruzko hitzaldia eta erakusketa Arrasaten

Gure proiektuak Nikaraguan azkenengo bost urte hauetan hitzaldia egingo dute Ima Escribanok eta Iñaki Agirianok eguenean, hilaren 25ean, Kulturaten, 19:00etan. Era berean, hilaren 27an eta 28an, *Una vueltecita por Nicaragua* argazki erakusketa jarriko dute ikusgai Harresi aretoan.

> MUSIKA

Euskarazko abesti onenaren saria Ruper Ordorikarentzat

Ruper Ordorikak jasoko du aurten euskarazko abesti onenari dagokion Musika saria, *Haizea garizumakoa* abestiagatik. Musika Zientzien eta Arteen Akademiak banatzen ditu sariok eta aurtengoa XIV. ekitaldia da. Martxoaren 4an egingo dute sari banaketa, Madrilen.

Maider Arregi, Goiena Telebistako kazetaria, Azkaraten zubisaltoa egin ondoren.

Salto ona!

Orain digitalera salto egin dugu:

> **ARRASATEN**

Goiena Telebista dagoeneko digitalean:
ARETXABALETAN, ESKORIATZAN
ETA LEINTZ GATZAGAN.

Laster digitalean:
BERGARAN, OÑATIN, ANTZUOLAN,
ARAMAION ETA ELGETAN.

Goitb
Goiena Telebista
Ikustekoa!

Idurre Elortza > Eskubaloi jokalaria

"Korrika egitea ez zait gustatzen, horregatik izan naiz beti atezaina"

Aloña Mendi eskubaloi taldeko atezaina dugu Idurre Elortza oñatiarra. Denbora luzea eskaintzen dio eskubaloiari, izan ere atezaina izateaz gain, nesken talde bat entrenatzen du. Gainera, eskubaloia ez ezik, igeriketa ere gustuko du Elortzak. Hala ere, hura aspaldi utzi zuen denbora faltagatik. Hori gutxi balitz, Psikopedagogia ikasketak egiten dihardu Huhezin.

NAROA ODRIOZOLA > OÑATI

Oñatiko kiroldegian ordu asko ematen ditu Idurre Elortzak eskubaloiaren konpainiaz, jokalari izateaz gain entrenatzailea ere bada-eta. Baina kirol hori ez ezik, umeak ere atsegin ditu oñatiarrak eta horregatik erabaki zuen Irakasle ikasketak egitea. Entrenatzaile lanarekin hasi aurretik tartetxo bat egin digu Elortzak.

NAROA ODRIOZOLA

Nondik datorkizu eskubaloirako zaletasuna?

12 urterekin hasi nintzen eskubaloian jokatzen, koadrilakoak hasi zirelako. Hasi ginenean hogei inguru izango ginen, baina orain, jarraitzen duen nire adineko bakarra naiz. Gustuko dudalako jarraitzen dut. Hasi nintzenetik atezaina izan naiz, korrika egitea gustatzen ez zaidalako. Eskubaloian jokatzeaz gain, talde bat entrenatzen dut. Horrez gain, 4 urtetik 18 urtera igeriketan ibili nintzen, aerobika ere egin nuen urte batzuetan, futbola, saskibaloia... Denetik probatu dut, baina gustatu zaizkidan kirolak eskubaloia eta igeriketa izan dira. Hala ere, igeriketa denbora faltagatik utzi nuen.

Euskadiko Txapelketa jokatzen ari zarete. Zer moduz doa?

Hamarretik seigarrenak gaude momentu honetan. Hau senior mailan nagoen bosgarren urtea da. Igo nintzen egunean ere Euskadiko txapelketan geunden, baina urte hartan puntu bat bakarrik lortu genuen eta jaitsi egin ginen. Bigarren urtean, igo egin ginen. Hurrengo urtean, berriz jaitsi ginen. Aurreko urtean lehenengoak izan ginen eta igo egin ginen. Aurten, ohitura gisa, jaitsi egingo ginela uste nuen baina jolasten hasi gara eta ondo gabiltza.

Entrenamenduek asko lotzen al dute?

Asko eskertuko nuke hilabetean aste bukaera bat libre edukitzea, baina, azkenean, zubi bat dela edo bestelako zerbaitengatik jai izaten dugu. Gehien bat bazkariren bat dudanean gura nuke jai izan, baina nik lehentasuna eskubaloiari ematen diot. Sekula ez diot hutsik egingo eskubaloiari bazkari batera joateko, familiako zerbait ez bada.

Talde kirolak edo bakarkako kirolak nahiago?

Igeriketa bakarkako kirola da eta eskubaloia taldeko kirola. Gauza desberdinak erakusten dituzte. Igeriketan nire burua gainditzen ikasi nuen, baita disziplina ere. Eskubaloian taldean jokatzen ikasten da; ez da "nik irabazi dut", "guk irabazi dugu" baizik. Hori da desberdintasuna. Biak gustatzen zaizkit eta guztioi biak probatzeko esango nizueke. Normalean, taldeko kirolak guztiok probatzen ditugu baina bakarkakoak egitea gehiago kostatzen da. Eta, nire ustez, nork bere burua ezagutzeko eta zure mugak non dauden ikusteko oso baliagarriak dira bakarkako kirolak.

Honez gain, Irakasle ikasketak egin zenituen eta orain Psikopedagogia egiten ari zara.

Haur Hezkuntza ikasketak bukatu nituenean oso berde nengoela pentsatu nuen eta horregatik erabaki nuen Psikopedagogia egitea. Hala ere, gero Irakasle ikasketekin lotutako zerbaitetan egin nahi dut. Psikopedagogia ikasketa osagarri gisa daukat.

Oñatiko ikastetxe baten egin dituzu praktikak. Zer moduz?

Psikopedagogiako ikasketetako praktikak orain dela astebete bukatu nituen, hiru asteko praktikak dira-eta. Aurreko praktikak orientatzailearen laguntzaile gisa egin nituen eta aurten Lehen Hezkuntzako bigarren mailako gela baten nago. Proiektua bertan bizi izandako esperientziarekin osatuko dut.

Zer moduz moldatzen zara umeekin?

Denek ondo moldatzen naizela esaten didate. Umeen artean egotea gustuko dut; egun osoa egongo nintzateke eurekin. Nekagarriak dira, baina nola ikasten duten ikustea oso polita da. Irakasle ikasketak egiten hasi nintzen irakatsi nahi nuelako eta konturatu naiz eurengatik ni nabilela gehiago ikasten.

Zerk huts egiten du hezkuntza sisteman?

Ume guztien beharrak asetzeko dagoen denbora motz gelditzen da. Baina denbora ez ezik, pertsonalak ere huts egiten duela esango nuke. Hau da, pertsona bakar batek ezin dio eman behar duen atentzioa talde handi bateko ume bakoitzari. Praktiketan irakasle askok esan didate hori.

NAROA ODRIOZOLA

PERTSONALA

Herria: Oñati. **Adina:** 22 urte. **Ikasketak:** Haur Hezkuntzan diplomatua naiz eta Psikopedagogia egiten dihardut HUHEZIn. **Zaletasunak:** Eskubaloia eta igeriketa. **Liburu bat:** John Boyneren *El niño con el pijama de rayas.* **Film bat:** *El codigo Da Vinci,* Ron Howardena. **Bizitzeko leku bat:** Zarautz. **Oñatiko lekurik politenak:** Arantzazu eta San Martin. **Bidaiatzeko leku bat:** Latinoamerikako edozein herrialde. **Amets bat:** Ikasgela bateko tutorea izatea. **Musika talde bat:** Berri Txarrak eta La Fuga.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com edo *www.goiena.net/sailkatuak*

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:
ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.
GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 20 € (BEZ BARNE).
Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. San Andres auzoan 58 m²ko etxea salgai edo errentan. Bi logela, bainugela bat, balkoi bat, sukaldea, egongela eta trastelekua. 635 73 94 91.

Oñati. 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. Bi logela, sukaldea, komuna, egongela eta trastelekua argi patioan. Igogailuarekin. 652 70 12 49.

Oñati. Kale Barrian eraikitzen ari diren etxeetako bat salgai. Oso prezio interesgarria. Lehenbailehen deituz gero, dena aukeratzeko aukera. Azulejoak, komunak... 665 73 96 51.

Oñati. Trianan eraikiko diren etxe berrietako bat salgai, garajearekin. 125 m². 665 73 96 51.

102. EROSI

Etxebizitza erosiko genuke Aretxabaleta, Eskoriatza edo Arrasaten. Hiru logela edukitzea ezinbestekoa, baita igogailua ere. 200.000 euroraino. Partikularrekin bakarrik hitz egingo dugu. 663 72 78 23.

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. 636 73 54 94.

Arrasate. Apartamentuak ematen ditut errentan. Jantzita. Galdetu Igonegatik. 677 21 87 81.

Bergarako alde zaharrean bi logelako etxebizitza ematen da errentan. Guztiz berritua. Altzariekin. Oso atsegina. Deitu 656 85 38 30 zenbakira.

Hendaian gelak ematen ditut errentan. Egonaldi luzeetarako, oporretarako edo asteburuetarako. Interesa baduzu idatzi mezu bat *davidlorea@aol.com* helbidera edo deitu 688 68 11 40.

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, bi komun, egongela eta sukaldea. 645 71 98 84.

Oñati. Olakua auzoan etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, sukaldea, bainugela eta egongela. Garajea aukeran. 665 72 87 89.

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Deitu 615 79 27 56 telefonora.

Bergara. Etxebizitza bila nabil; gutxienez, bi logela izan beharko lituzke. Hori bai, hiru logelakoa bada, hobeto. Deitu 636 80 87 68 telefonora.

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 943 76 32 85.

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 609 38 86 47.

Bergaran. Familia batek etxebizitza errentan hartuko luke. 650 62 12 94 edo 943 08 22 60.

Debagoiena. Bikote batek logela bakarreko etxebizitza hartuko luke errentan. Deiut 655 74 41 60 telefonora.

Donostian etxe bila errentan hartzeko, denbora luzerako. 661 33 85 87.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Erdigunean etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu otsailetik aurrera. Berogailua eta igogailua. Egoera onean. 250 euro hilean. 606 74 42 37.

Arrasate. Eskola Politeknikoko 3 Erasmus ikasle gara eta pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. 4 banakako logela, sukaldea, komuna, terraza handia. Unibertsitate aurrean. 200 euro + 30 euro (gastuak) hilean. Internetekin 12 euro gehiago. Otsailetik uztailera. Interesatuok idatzi helbide honetara: *septunova.zuza@centrum.cz*, edo deitu telefono hauetara. Emilia edo Chiara. 638 15 76 98 edo 638 15 77 00.

Arrasate. Etxea osatzeko gela bat dugu alokagai. 630 71 35 83.

Arrasate. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Lau logela eta bi bainugela ditu. Langileak bizi dira. 653 71 44 57.

Arrasate. Mutil arduratsua logela bila. Lan finkoa daukat. 647 28 82 41.

Bergaran etxebizitza osatzeko pertsona baten bila gabiltza. Bergarako erdialdean dago eta logelaren prezioa da 170 euro, bestelako gastuak barne egon barik. 696 02 68 30 edo 670 40 74 53.

Oñati. Logela hartuko nuke errentan partekatutako etxeren batean. 635 70 07 92.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Garaje itxia salgai Usaetxe plazan. 686 02 56 56.

Bergara. Garaje itxia salgai Martzial Agirren. Zabala da, baina ez oso sakona; hortaz, auto ez horren handiendako egokia. 616 22 33 78.

203. ERRENTAN EMAN

Oñati. Garajea ematen da errentan Ugarkalde auzoan. 645 71 98 84.

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Garaje bat errentan hartuko nuke Bolu auzoan. 658 73 35 96.

Oñati. Garaje bat hartuko nuke errentan San Lorentzon. 666 21 73 48.

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. Bulegorako egokitutako 90 m²ko inguruko lokala eta 100 metro koadro inguruko lokal industriala, errentan edo salgai. Atsegina eta bista ezin hobeak. 943 76 33 56.

304. ERRENTAN HARTU

Bergara. Lokala hartuko nuke errentan. 250 euro ordaintzeko gertu nago. 943 53 29 18.

4/ LANA

402. ESKAERAK

Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza. Emakumea gertu nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Umeak ere zainduko lituzke. Felisa. 943 53 33 92.

Arrasate edo Aretxabaletan batxilergora arteko eskola partikularrak ematen ditut. Deitu 653 01 76 67 zenbakira.

Arrasate. Emakume arduratsuak lan egingo luke etxeak garbitzen, tabernan edota mekanika lanetan. Eli. 630 94 68 37.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu 15:00etatik aurrera garbitasun zein plantxa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko. 699 54 17 27.

Arrasate. Emakume serio eta arduratsua gertu orduka garbiketak egiteko edo jatetxeetan plantxan zein sukalde laguntzaile jarduteko. 647 16 40 49.

Arrasate. Hemengo neska etxeko lanak egin, umeak zaindu eta edozein lanetarako prest, orduka ere bai. 659 55 27 16.

Arrasate. Hemengo neska umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo edozein lanetarako prest, orduka ere bai. Deitu 659 55 27 16 zenbakira.

Bergara. Asteburuetan edozein lan egiteko gertu. 654 98 69 14.

Bergara. Bikotea gertu edozein lan egiteko. 645 72 92 87.

Bergara. Garbiketarako eta pertsona edadetuen zaintza lanetarako gertu egongo nintzateke. Orduka egingo nuke, eta etxe barruan lan egiteko ez dut arazorik. 686 76 22 96.

Bergara. Neska bergararra etxeko lanak egiteko gertu. 943 76 28 12 edo 943 76 29 52.

Bergara. Neska euskalduna gertu goizetan umeak zaintzeko. Astelehenetik eguenera 11:30ak arte eta egubakoitzetan 13:00ak arte. Irakaslea naiz. Deitu 650 27 75 82 telefonora.

Bergara. Neska goiz eta arratsaldez etxebizitzak garbitzeko gertu. 696 84 19 51.

Bergara. Pertsona nagusiak edo umeak zainduko nituzke; etxean bertan bizi izaten. Deitu 679 09 25 31 telefonora.

Debagoiena. Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko edo sukalde laguntzaile jarduteko. Esperientziaduna. Deitu 637 18 07 23 telefonora.

Debagoiena. Egun erdiz lan egingo nuke: umezain, garbiketa, sukalde laguntzaile... Mondragon Unibertsitatean dagoen Txekiar Errepublikako Erasmus ikaslea naiz, gaztelania ikasten ari naiz eta ingelesez hitz egiten dut. Interesatuok idatzi mezu bat helbide honetara: *septunova.zuza@centrum.cz* edo 638 15 77 12 telefono zenbakira deitu.

Debagoiena. Emakume arduratsua esperientzia eta informeekin gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Zerbitzari lan egiteko prest. Esperientziarekin eta tituluarekin. Deitu 671 35 22 60 telefonora.

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu sukaldari laguntzaile lan egiteko. Esperientziarekin. Menuetan, plater konbinatuetan eta pintxoetan. Deitu 637 18 07 23 zenbakira.

Debagoiena. Emakumea gertu dago garbiketa eta pertsona edadetuen zainketa lanak egiteko. 691 03 25 02.

Debagoiena. Esperientziadun emakumea gertu sukaldari laguntzaile lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko. Deitu 697 93 73 32 telefonora.

Debagoiena. Esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23.

Debagoiena. Garbiketa lanetan edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak ditut. 638 89 98 60.

Debagoiena. Lan bila nabil, pertsona edadetuen zainketarako edo atarien garbiketa lanak egiteko. Gainera, peoi lanposturako ere gertu nago. Enpresen segurtasun zerbitzuetan lan egiteko gertu. 666 08 58 49.

Debagoiena. Lan bila nabil, pertsona edadetuen zainketarako edo edozein motatako garbiketa lanak egiteko.Igeltsero-laguntzaile edo peoi edo enpresen segurtasun zerbitzuetan, ere lan egiteko gertu. 697 54 28 76.

Debagoiena. Mutil gaztea gertu tabernan lan egiteko edo garbiketa lanak egiteko. Deitu 662 08 22 03 telefonora eta Christianengatik galdetu.

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zainduko nituzke orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak dauzkat. 663 65 78 43.

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zainduko nituzke. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak dauzkat. 680 30 24 64.

Debagoiena. Neska euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Arratsaldeetan, aste bukaeretan eta jaiegunetan. Klinika laguntzaile titulua daukat. Itxaso. 943 74 82 09.

Kamioi gidari baimena ateratzen ari naiz eta horretan lan egin gura nuke. Praktiketan ere bai. C+E baimena, ADR, zisterna edota lehengaiekin lan egiteko. 610 67 18 60.

Oñati. Neska euskalduna, arduratsua, haurrak zaintzeko eta etxeko gauzak egiteko prest. Deitu 618 09 47 87 edo 943 78 15 10 telfono zenbakietara.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergaran. Irakaslea behar da Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailetako eskolak emateko. Eskolak eguerdian jaso nahi nituzke. 639 03 43 58.

502. EMAN

Arrasate. Eskola partikularrak ematen ditut Santa Marinan. 696 37 92 29.

Arrasate. Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83.

Arrasate Goi mailako Ingeniaritza ikasten dabilen neska euskalduna eskola partikularrak emateko prest. 606 88 94 20.

Bergara. Aleman Filologian lizentziaduna eta irakaslea naiz. Ingeles eta aleman eskolak emango nituzke. 660 52 25 01.

Bergara. Ingeleseko irakaslea errefortzurako eta azterketak gainditzeko eskolak emateko prest. Oso merke. Arantzazu. 616 12 56 29.

Oñati. Ingeniaritza ikasten dabilen neska arduratsua Oñatin eskola partikularrak emateko prest. 667 52 83 29.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Esneko arkumeak saltzen dira, hilabetekoak, baserritik zuzenean. Debagoienean. Deitu 687 06 04 34 telefonora.

Mastina salgai. Gaztea. Deitu 943 79 62 63 telefonora.

703. EMAN

Arratoi txakurra ematen da. 943 79 62 63.

Setter ingelesa ematen da opari, ezin dudalako zaindu. 10 hilabete ditu. 646 47 58 84.

704. BESTELAKOAK

Bergara. Bost hilabeteko txakurra galdu nuen orain dela hiru aste. Mikrotxipa du eta 'Tekel' du izena. 150 eurorekin sarituko dut. 651 70 72 40.

Txakur txikitxoa aurkitu dut Bergarako Bolu kalean. Emea. 620 61 91 34.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Altzariak. Hiru plazako sofa beixa (300 euro), sarrerako altzaria (100 euro) eta kristalezko mahai luzagarria (100 euro). Ia berriak. Indesit garbigailua, 2009koa, 100 €. 635 74 27 43.

Bizikleta estatikoa salgai. Sinplea, arina eta berria. 670 08 12 16.

Boxeorako zakua salgai. Debagoienean. 638 89 78 76.

DJ maleta. Technics DJ maleta saltzen dut. 80 binilorendako lekua. 648 06 79 85.

DVD erreproduzitzaile unibertsala, Best Buy LTD sintonizatzaile eta guzti. USB bidez telebista grabatu eta multimedia edukiak ikus daitezke. Erabili gabea. 40 euro (dendan 60 euro). Easy Home Combo Rec markakoa. 659 55 27 16.

Eskiatzeko trajea salgai. 943 79 65 99 edo 639 48 60 49.

Ezkontza soinekoa salgai. 38-40 neurrikoa. 635 70 07 92.

GPSa. Mendirako GPSa salgai. Egokia oinez, BTT, motor eta abarrerako. Magellan Triton 500. Ordenagailura konexioa, memoria txartela mapendako eta Euskal Herri, Pirinio, Europako mendi eta abarreko mapa zehatzekin. 150 euro. 656 71 41 59.

Golf pilotak salgai Debagoienean. Deitu 943 79 65 99 edo 639 48 60 49 zenbakietara.

Pinarello bizikleta. 54 neurrikoa. Aluminiozko koadroa. Karbonozko Look urkila. Ultegra-Dura Ace. Argazkiak bidaltzen ditut. 700 euro. 677 24 31 98 edo 943 78 29 19.

Tabike-armairua salgai. Debagoienean. 670 08 12 16.

Telebista. 2 urte dituen 28 hazbeteko telebista salgai. 170 euro. 616 22 49 64.

802. EROSI

Autorako umeendako segurtasun aulkia behar dut. 9-36 kilo artekoa. 650 57 36 07.

803. EMAN

Somierra. 150x190ko somierra ematen da. Ohea, hankak eta somierra. Egoera oso onean. 635 12 87 82 edo 943 25 05 79.

804. HARTU

Trona. Erabiltzen ez duzun umeendako trona badaukazu, gustura erosi edo hartuko nuke opari. Aldez aurretik eskerrik asko. 635 75 54 53.

805. TRUKATU

Korrika egiteko makina trukatuko nuke bizikleta bategatik. Debagoienean. 638 33 03 01.

806. GALDU

Amantala Oñatin. Ikastolako amantal berdea galdu dut Bidebarrieta eta Errementari plaza inguruan, ostiralean, urtarrilaren 22an. 943 78 00 01 edo 943 78 08 09.

Autoko giltzak galdu ditut Arrasaten. Honda autoarenak. Otsail hasieran. 653 01 76 67.

Eraztunak Bergaran. Kilometrotako buelta egiten hiru eraztun galdu ditut. Norbaitek aurkituz gero, mesedez deitu zenbaki honetara. Eskertuko da. 670 26 46 35.

Kamera bila. Inauteri-larunbatean, otsailaren 13an, argazki kamera galdu genuen indiarrena egiten. Zorro beltz baten barruan sartuta dago. Inork aurkitu badu, eskertuko genioke itzultzea. 629 44 02 18.

Zorroa eta memoria. Astelehenean, hilaren 25ean, Oñatiko Bidebarrieta kalean, 18:30 inguruan, arkatzak eramateko laukidun zorro iluna galdu nuen. Informazio garrantzitsua duen memoria bat ere bertan neukan. Norbaitek jaso edo aurkitu badu, faborez dei dezala zenbaki honetara. Eskertuko dut. 653 71 79 81 edo 943 53 44 71.

807. AURKITU

Galdutako giltzak. Otsailaren 8an, giltza batzuk aurkitu nituen Bergarako poligonoko aparkalekuan. 630 62 15 97.

9/ HARREMANAK

902. HARREMANAK

Mutil bila. 39 urteko mutila naiz eta beste mutil batekin harremanak izan nahiko nituzke, ahal bada, gazteagoarekin. Interesa izanez gero, bidali SMS bat telefono honetara: 615 39 82 46.

903. DEIAK

Lekuko bila Bergaran. Azaroaren 11n, 17:00etan, Bergarako Super Amara supermerkatuaren aparkalekuaren kanpoaldean bi pertsonaren arteko erasoan parte hartu zuen mutil gazte baten bila gabiltza, lekuko moduan epaiketara etortzeko. 657 79 79 35.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
ESCUELA POLIT CNICA SUPERIOR

LAN ESKAINTZA

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK
behar ditu:

ENPRESA ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOAN LIZENTZIATUAK

Eskatzen da:
euskara eta ingelesa jakitea.

Interesatuok bidali curriculuma otsailaren 24a baino lehenago ondorengo helbidera:

Mondragon Unibertsitatea
Goi Eskola Politeknikoa
Loramendi 4 20500 ARRASATE
lanpostu@eps.mondragon.edu

INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:
- Aranerreka 85 m². Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Alkabieta 88 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m². Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, 196.200€.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

Antzuola:
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

Elgeta:
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

Soraluze:
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua, 132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.

SORALUZE
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

ANTZUOLA
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

ELGETA
- San Roke, 75 m², ia berria.

GOIENKARIA

Debagoieneko Aratusteen gaineko saioa

Irudi ederrak utzi dizkigute aurtengo Aratusteek Debagoieneko herrietan. Hotzari aurre eginez, benetan mozorro originalak ikusi ahal izan ditugu. Orain aukera Goiena Telebistan duzu, gaur bertan.

GOITB, 'Aratusteak 2010'
> Egubakoitza, 22:15
> Asteburua (ikus taula)

MIREN ARREGI

Kulturarekin duzu hitzordua eguenero

Batetik, Tolosako artxiboa gertutik ezagutzeko aukera izango dugu. Bestetik, Garbiñe Tolosak zuzentzen duen *Arrasto Bluak* umeentzako antzerkia. Eta amaitzeko, Gipuzkoako museoak antolatzeko plana.

GOITB, 'GipuzkoaKultura'
> Eguena, 22:15
> Domeka, 22:45

astea GOITBn

Egubakoitza, 19

13:15 Marrazki bizidunak .
13:45 Euskaldunak hizketan.
14:15 On ein.
14:45 Berriak.
15:15 Ur eta Lur.
15:45 Itsasoari begira.
16:15 Ikusten.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
18:00 Ilunpean.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Gipuzkoa kultura.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Aratusteak 2010.
22:45 Kiroleroak.
23:15 Kalekantoi.
23:45 Magazinea
00:45 Emisio amaiera.

Zapatua, 20

08:00 Marrazki bizidunak.
10:30 Barrebusa.
11:30 On ein
12:00 Goiena Magazinea.
13:00 Eltze beroa.
13:30 Erloklip
14:00 Aratusteak 2010
14:30 Barrebusa.
15:30 Marrazki bizidunak.
18:00 Erreportajea
18:30 Gipuzkoa Kultura.
19:00 Kalekantoi.
19:30 Itsasoari begira.
20:30 Aratusteak 2010.
21:00 Ilunpean.
21:45 sakonduz.
22:15 Ikusten.
22:30 Euskaldunak hizketan.
00:00 Harmailatik.
00:30 28 klip.
01:00 Erloklip.
01:30 Emisio amaiera.

Domeka, 21

08:00 Barrebusa.
09:00 Marrazki bizidunak.
11:30 28 klip.
12:00 Itsasoari begira.
12:30 Aratusteak 2010
13:00 Ur eta lur.
13:30 On ein.
14:15 Goiena Magazinea.
15:15 Gipuzkoa Kultura.
15:45 Marrazki bizidunak.
18:15 Barrebusa.
19:15 Ikusten.
19:45 Euskaldunak hizketan.
20:15 Kiroleroak.
21:00 Goiena Magazinea.
22:00 Aratusteak 2010
22:45 GipuzkoaKultura.
23:15 Kulturzulo.
23:45 Itsasora begira.
00:15 Emisio amaiera.

Astelehena, 22

13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Onein.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Erloklip.
15:45 Ikusmira.
16:15 28 Klip.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
17:45 Kalekantoi.
18:15 Sakonduz.
18:45 Ilunpean.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Kiroleroak.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Harmailatik.
23:00 Gipuzkoakultura.
23:30 Goiena Magazinea.
00:30 Emisio amaiera.

Martitzena, 23

13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Ur eta lur.
14:15 On Ein.
14:45 Berriak.
15:10 Harmailatik.
15:50 Ikusten.
16:20 Itsasoari begira.
16:45 Berriak.
17:10 Marrazki bizidunak.
17:35 Kurtulzulo.
18:15 Gipuzkoakultura.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Harmailatik.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Ilunpean.
23:00 28 Klip.
23:30 Goiena Magazinea.
00:30 Emisio amaiera.

Eguaztena, 24

13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Ikusmira.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:10 Ilunpean.
15:50 Kiroleroak.
16:20 28 Klip.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
17:35 Harmailatik.
18:15 Ur eta lur.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Ilunpean.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Erreportajea.
23:00 Kalekantoi
23:45 Goiena Magazinea.
00:45 Emisio amaiera.

Eguena, 25

13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Ikusten.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Gipuzkoa kultura.
15:45 Erloklip.
16:15 Ikusmira.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
18:00 Kalekantoi.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Euskaldunak hizketan.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Gipuzkoakultura.
22:45 Kulturzulo->Eskuokin.
23:20 Itsasoari begira
23:45 Goiena Magazinea.
00:45 Emisio amaiera.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua
10:00 Asteko gainbegiratua.

Domeka
10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera
10:00-12:00 Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
11:55 Arrasateko albisteak, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Albistegi laburra.

guardiako farmaziak

ARRASATE

Zapatua, 20	Irizar	Erguin 11	943 79 12 39
Domeka, 21	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Astelehena, 22	Español	Araba Etorbidea 14	943 79 18 65
Martitzena, 23	Ruiz Perez	Nafarroa Etorbidea 1	943 79 14 09
Eguaztena, 24	Etxeberria	Zarrugalde 42	943 77 16 30
Eguena, 25	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15
Egubakoitza, 26	Azkoaga	Iturriotz 17	943 79 79 99

BERGARA

Zapatua, 20	Zabala	Barrenkale 25	943 76 16 87
Domeka, 21	Zabala	Barrenkale 25	943 76 16 87
Astelehena, 22	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Martitzena, 23	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguaztena, 24	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Eguena, 25	Urritikoetxea	Oxirondo plaza 4	943 76 11 74
Egubakoitza, 26	Zabala	Barrenkale 25	943 76 16 87

OÑATI

Zapatua, 20	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Domeka, 21	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Astelehena, 22	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Martitzena, 23	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Eguaztena, 24	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Eguena, 25	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Egubakoitza, 26	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16

ARETXABALETA-ESKORIATZA

Zapatua, 20 (goiz.)	Agirre	Gorosarri Plaza (Esko.)	943 71 48 28
Zapatua, 20 (arrats.)	Anitua	Belorrieta auzoa	943 08 11 43
Domeka, 21	Agirre	Gorosarri Plaza (Esko.)	943 71 48 28
Astelehena, 22	Anitua	Belorrieta auzoa	943 08 11 43
Martitzena, 23	Anitua	Belorrieta auzoa	943 08 11 43
Eguaztena, 24	Anitua	Belorrieta auzoa	943 08 11 43
Eguena, 25	Anitua	Belorrieta auzoa	943 08 11 43
Egubakoitza, 26	Anitua	Belorrieta auzoa	943 08 11 43

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2010eko egutegia.
Bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,39 € + WAP deskarga kostua, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

herritarrak galdezka

ATSEDEN CIBER KAFEAREN ONDOKO SEMAFOROAK ARGI GUTXI

Aretxabaletako herritar batek posta elektronikoz bidali digu mezua honakoa galdetzen: "Atseden Ciber Kafearen ondoko semaforoak egunak pasa ahala gero eta argi gutxiago dauka; orain ikusten den bakarra beheko aldeko txikia da eta ez badute konpontzen ez da batere ikusiko. Gainera, arriskutsua da, Almenetik datozen ikasle asko pasatzen direlako bertatik. Hori dela eta, konpontzeko asmoa duten jakitea gustatuko litzaidake".

Askotan egon ohi dira arazoak semaforoen argiak gutxi ikusten direla-eta. Oraingo honetan, Aretxabaletako Atseden Ciber Kafetik gertu dagoen semaforoari tokatu zaio.

Gure irakurlearen zalantza argitzeko, Aretxabaletako Udaleko Hirigintza Sailarekin hitz egin dugu. Esan digutenez, ez dute arazo horren berririk izan aurretik, eta, semaforoa gutxi ikusten bada, lehenbailehen konpontzera bidaliko dute norbait. Izan ere, semaforoek funtzio garrantzitsua dute eta argi gutxi badute, ez dute eginbeharra betetzen. Beraz, herritarrak lasai ibili ahal izango dira Atseden Ciber Kafearen ondoan dagoen zebrabidea gurutzatzeko.

Egiguzu galdera eta geuk egingo diogu dagiokionari.
• Telefonoz: 943 25 05 05 • Faxez: 943 25 05 12
• Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
• Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

eguraldia

DEBAGOIENEAN

Zapatua, 20
Zerua hodeitsu izango dugu egun osoan zehar eta leku batzuetan euria ere egin lezake. Hego-mendebaldeko haize ahul-bizia ibiliko da.



Domeka, 21
Tenperatura berdin mantenduko da domekan; beraz, hotzarekin jarraituko dugu. Horrez gain, prezipitazioak egongo dira egun osoan zehar.

EUSKAL HERRIAN

Bihar, zapatua, hodeitsu egongo da eta kostaldean zaparradaren bat bota dezake, ekaitzarekin batera. Domekan, okerrera egingo du. Hego haizeak euria ekarriko du.

hildakoak

- **Jesus Guridi Iñurritegi.** Oñatin, otsailaren 10ean. 76 urte.
- **Angel Izuskitza Zubizarreta.** Bergaran, otsailaren 11an. 84 urte.
- **Irene Abio Gartzia.** Bergaran, otsailaren 13an. 83 urte.
- **Vicente Intza Iñurritegi.** Oñatin, otsailaren 13an. 93 urte.
- **Jose Luis Alberdi Igartua.** Bergaran, otsailaren 13an. 79 urte.
- **Jose Luis Miner Garate.** Bergaran, otsailaren 14an. 81 urte.
- **Angel Milikua Iartza.** Oñatin, otsailaren 16an. 87 urte.
- **Francisco Bueno Blazquez.** Arrasaten, otsailaren 16an. 81 urte.

OROIGARRIA

Jose Antonio Anduaga Arenaza

Aretxabaletan hil zen 2009ko otsailaren 17an.

Beti gure artean egongo zara.

Nieves, Idurre eta Urko
Aretxabaletan, 2010eko otsailaren 19an.

OROIGARRIA

Angel Milikua Yarza

Txomin Madina lankidearen aitaita

Oñatin hil zen 2010eko otsailaren 15ean, 87 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Oñatin, 2010eko otsailaren 19an.

ESKER ONA

Irene Abio Gartzia

Patxi Zangituren alarguna

Osintxun hil zen 2010eko otsailaren 13an, 83 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2010eko otsailaren 19an.

URTEURRENA

Jose Mari Aldanondo Ibabe

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 21ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko Patxi aitaginarrebaren izenean.

URTEURRENA

Jose Mari Aldanondo Ibabe

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 21ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.

—

Izandakoa, zarena eta izango zarenagatik, ondoan eta gure barrenean egongo zara beti.

Senitartekoen eta, bereziki, Belen emazte eta Xabier eta Unai semeen partetik.

ESKER ONA

Jose Luis Miner Garate

Bergaran hil zen 2010eko otsailaren 14an, 81 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2010eko otsailaren 19an.

URTEURRENA

Jesus Arizmendi Azpiazu

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 21ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Purificación Pinedo López de Audicana

Felix Lizarralderen alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 21ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Jesus Guridi Iñurritegi

Oñatin hil zen 2010eko otsailaren 10ean, 76 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko bere emazte Araceli Astiazaranen, seme-alaben eta iloben izenean.



Oñatin, 2010eko otsailaren 19an.

URTEURRENA

Magdalena Yabar Alegria

Pablo Berraondoren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 21ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Eusebia Akizu Ormazabal

Julio Retegiren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 21ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Angel Izuskiza Zubizarreta

Bergaran hil zen 2010eko otsailaren 11n, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2010eko otsailaren 19an.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zatoz ordezkaritza batera.

Eskelaren prezioa: 110 euro.
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.

GOIENKARIA: astero, 41.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: *euskalduna@harrespil.net*

Otsailak 19-25

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

Antzerkia

ARRASATE
> 'Kri, kra, kro' umeendako ikuskizuna, poesiaz beteta, zapatuan

Teatro Paraiso taldeak, Belgikako Guimbarde antzerkiarekin, *Kri, kra, kro* ikuskizuna egingo du, 3-6 urte artekoendako. Irudiak eta galderak erabilita, ikuspegi poetiko bat ematen du. Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.

Erakusketa

ESKORIATZA
> 'Bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak' erakusketa bisitatzeko aukera asteburuan

Natura 2000 Sareak antolatuta, *Bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak* erakusketa dago Ibarraundin. Etzi, domeka, da bisitatzeko azken eguna. Hau da ordutegia: 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era.

Ikuskizuna

ARETXABALETA
> 'La Pulga y Compañía' flamenko ikuskizuna, Askoa Etxebarrietarekin

La Pulga y Compañía flamenko ikuskizuna egingo du La Pulga Teatro Askoa Etxebarrieta *La Pulga*-ren taldeak. Ikuskizunean, dantza, abestiak, gitarra, biolina eta perkusioa nahasten dira. Gaur, egubakoitza, Arkupen, 19:00etan.

Antzerkia

ELGETA
> 'Xabinaitor' antzezlan arrakastatsua, orain Elgetan

Xabinaitor euskal super-heroiaren gaineko antzezlan barregarria egingo dute *Wazemank*-eko aktoreek. Oñatin eta Arrasaten oso harrera ona izan zuen antzezlanak joan den aste bukaeran. Aldonondo inspektoreak *Xabinaitor* atxilotu behar du. Euskal super-heroiak, poxpolinak salbatu eta, bide batez, guztiz aseta uzten dituenak, sortuko du zeresana antzezlan osoan zehar.

Gaur, egubakoitza, Espaloia antzokian, 22:30ean. Sarrerak salgai daude 12 eurotan (bazkideak) eta 15 eurotan (gainerakoak).

ARAMAIO
> Umeendako ipuin kontaketa saioa egongo da gaur, barikua

Munduko ipuinak delako ipuin-kontaketa emanaldia izango da gaur, barikua.

Kultura etxean, 17:30ean.

OÑATI
> 'El jardín de la alegría' antzezlana egingo dute erretiratuek

Pake Leku erretiratuen elkarteko Ikusi Makusi antzerki taldeak *El jardín de la alegría* delako antzezlana egingo du. Sarrerak salgai daude euren egoitzan, 3 eurotan.

Antzezlana bihar, zapatua, Santa Anan, 22:00etan.

ESKORIATZA
> Giza-balioak lantzeko umeendako ipuinak

Giza-balioak lantzen dituzten ipuinak kontatuko ditu Maite Arresek. 4 urtetik gorako umeendako dago gomendatuta.

Eguenean, hilak 25, Udal Liburutegian, 18:00etan.

BERGARA
> 'Cuentos mal contados' helduendako ipuin saioa

Oihulari Klown taldeak ahozko narrazio zirkuitua antolatu du, eta horren barruan, Toledotik etorriko da Margarita del Mazo ipuin kontalaria, emanaldia egitera. *Cuentos mal contados* izeneko emanaldia egingo du.

Eguenean, hilak 25, Pol-Pol tabernan, 22:30ean.

Musika

ARRASATE
> Hiru disko-jartzaileren emanaldia 3 aretoan

DJ Pablo Akaros, DJ Alkate eta DJ Odeik girotuko dute gaua. Sarrera 5 euro da.

Gaur, egubakoitza, 00:00etan.

ARRASATE
> 'Oñati 2zirik Euskal Herritik 2ran' kontzertua

Oñati 2zirik egitasmoaren barruan, kontzertua egingo dute Drakes, Klinesa ta Kakarrastua Kumunzuluan, Bitz, Ez! eta Galdu Arte taldeek. Borondatea kobratuko dute, eta dirua Bergarako gaztetxeko liburutegia finantzatzeko izango da.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 20:00etan.

Erakusketak

BERGARA
> Inauterietako elementu tradizionalak, erakusketan

Enza taldearen eskutik, Inauterien gaineko erakusketa dago egunotan Aroztegin. Euskal Herrian barrena dauden Inauterietako pertsonaiak daude: Miel Otxin, Maskaradetako protagonistak... Horrekin batera, euskal tradizioko beste hainbat elementu ere badaude erakusketan: mozorroak, zintzarriak, animalien larruak... eta espiritu txarrak uxatzeko eta animalia eta uztak babesteko erabili izan diren beste hainbat.

Aroztegi aretoan, 18:00-20:30 (gaur, egubakoitza), 12:00-14:00 (bihar, zapatua) eta 18:00-20:30 (etzi, domeka).

ARRASATE
> Birziklatutako zaborrarekin egindako sormen lanak

Zaborreria izeneko erakusketa ibiltaria dago egunotan Arrasaten. Kulturateko klaustroan dago.

Otsailaren 28ra arte.

PROPOSAMENA

ARRASATE

> Punk klasiko jaialdia UK Subs eta Vibrators taldeekin

Arrasaten ez dute lehen aldia punk rockeko aitzindari UK Subs eta The Vibrators talde ingelesek; aurrekoetan, jarraitzaileek aretoa bete zuten, eta bihar ere, zapatua, asmo horrekin itzuliko dira bi talde klasikook, sortzaileek gidatuta: Charlie Harper UK Subsekin (argazkian), eta Ian Carnochan, The Vibratorsekin. Disorders taldeak ere joko du. Sarrerak 12 eurotan daude salgai Etxosten.

Bihar, zapatua, 3 aretoan, 23:00etan.

OÑATI
> Cantero eta Gurrutxaga argazkilarien lanak, ikusgai

Natura eta mendia gaitzat hartuta, *Hegaletan* izeneko argazki erakusketa zabaldu dute Benito Cantero eta Agustin Gurrutxaga argazkilari bergararrek. 50 bat argazki dira.

Kultura etxeko erakusketa gelan hilaren 28ra arte, egunero, 18:00etatik 20:00etara.

ARETXABALETA
> 'Esklabotza Frankismoan' delako erakusketa

Esklabotza Frankismoan delako erakusketa bisita daiteke otsail osoan Arkupen. Sarrera doan da.

Ordutegia: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00 (astelehenetik egubakoitzera) eta 11:00-13:00 (zapatuetan).

BERGARA
> Nekane Munduateren 17 margolan daude Nahikarin

Otsail bukaerara arte, Nekane Munduate ataundarraren erakusketa dago Nahikari tabernan. Hainbat formatuko 17 margolan dira, gres, egurra, margo akrilikoak, argizariak... erabiliaz egindakoak. Gaiak dira natura, mitologia, paisaia atenporalak eta giza-parajeak.

Otsail osoan, Masterreka kaleko Nahikari tabernan.

Ikastaroak

BERGARA
> Hainbat ikastaro iragarri ditu Bizikasik

Defentsa pertsonaleko ikastaroa, otsailaren 22tik martxoaren 31ra, astelehen eta eguaztenetan 17:30etik 19:00etara; web orrien ikastaroa martxoaren 15etik 30era, astelehenetik eguenera, 16:00etatik 18:00etara; oinarrizko informatika, 22tik martxoaren 31ra, astelehenetik ostegunera, 15:00etik 17:30era; arrisku handiko elikagaien manipulazioa, martxoan.

Argibideak: 943 76 93 94 (Miren) edo *info@bizikasi.com* helbidean.

ARRASATE
> Biodantza jardunaldia egiteko aukera, doan

Arrasaten, martxoaren 3an, 10:00-12:00, biodantza ate irekien jardunaldia egingo dute, doakoa. Yoga elkartearen Altamirako lokalean izango da.

Argibideak: 626 66 12 92 (Mentxu).

ARRASATE
> Zeramika ikastaroa antolatu dute, hasiberriendako

Zeramika hasiera ikastaroa antolatu du Loixe zeramika elkarteak. Martxotik irailera arte izango da, eta eskolak izango dira eguaztenetan. Gaztetxoek (6-12 urte) 20 euro ordaindu beharko dute hilero, eta eskolak 18:00etatik 19:00eta-

ra izango dituzte; 13 urte edo gorakoek 30 euro ordaindu beharko dute hilero, eta eskolak 19:30etik 21:30era izango dira eurendako.

Loixeren lokaletan izango dira eskolak, Loli Pinedo Gasteiz irakaslearekin.

Argibide gehiago edo izenematea, Gazte Bulegoan (943 25 25 65).

ARRASATE

> Gazteendako larrugintza ikastaroa, Txatxilipurdirekin

Martxoko eguaztenetan, 18:00etatik 20:00etara bitartean, larrugintza ikastaroa izango da Musakolako gaztetxokoan. 17 urtetik beherakoentzako izango da ikastaroa eta Ainara Kortabarria arrasatearra izango da berau bideratuko duena. Ikastaroaren prezioa 3 eurokoa izango da eta materiala hantxe eskura izango dute parte-hartzaileek.

Izena emateko, joan Txatxilipurdira edo Gazte Bulegora, edo deitu 943 79 54 46 telefono zenbakira.

ARETXABALETA

> Flamenko dantza ikastaroa otsailaren 26tik aurrera

Flamenko dantza ikastaroa emango du Askoa Etxebarrieta *La Pulga*-k, Jaiki elkartearen eskutik. Otsailaren 26an eta martxoaren 5ean, 12an eta 26an, 18:00etatik 20:00etara.

Argibideak: 653 70 50 68 edo *jaikielkartea@yahoo.es* helbidean.

ARRASATE

> Emakume Txokoaren eskutik hainbat ikastaro

Arrasateko Emakume Txokoak hainbat ikastaro iragarri ditu otsailerako eta martxorako: bertso ikastaroa; emakumeak eta osasuna: gure emozioak; emakumeak eta osasuna: gure sexualitatea; autoestimua eta hazkuntza pertsonala; barreterapia; yoga; gorputzaren mugimendu kontzientea lantzeko ikastaroa; eta zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa.

Argibideak Emakume Txokoan, 943 79 41 39 telefono zenbakian.

ARRASATE

> Emakumeendako Jabetze Eskola, abian

Honako saioak antolatu dituzte: *Emakumeak euskal kulturan eta jendartean*, otsailaren 25etik; *Grafikoki esparru publikoa aktibatzen,* martxoaren 12tik; eta *Jostailu erotikoen tailerra,* otsailaren 19an eta 26an.

Argibideak Emakume Txokoan, 943 79 41 39 telefono zenbakian.

Deiak

ARRASATE

> Herria Abesten delako saio irekia egingo dute etzi, domeka

Portaloi taldeak Herria Abesten delako kantu saio irekian parte hartzera deitzen du. Taldeko kideak abestera batuko dira Maixa Lizarribar trikitilariarekin.

Etzi, domeka, AEDren lokalean, 18:00-20:00.

Zinema

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Teniente corrupto
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Nico, el reno que quería volar
Domeka: 17:00.

In the loop
Eguena: 20:30.

ARETXABALETA

ARKUPE

Celda 211
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

Nico, el reno que quería volar
Zapatua eta domeka: 17:00.

La caja de Pandora
Eguena: 19:30.

OÑATI

KULTUR ETXEA

Celda 211
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Vicky bikingoa
Zapatua eta domeka: 17:00.

Encuentros en el fin del mundo
Eguena: 20:00.

BERGARA

ZABALOTEGI

Asalto al tren Pelham 123
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.

Donkey Xote (euskaraz)
Zapatua eta domeka: 17:00.

GAZTETXEA

Encuentros en la tercera fase
Domeka: 18:00.

ELGETA

ESPALOIA

Gran Torino
Eguaztena: 21:30.

ARAMAIO

KULTUR ETXEA

Up
Domeka: 17:00.

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA

Percy Jackson y el ladrón del rayo
Egubakoitza: 20:30.
Zapatua: 19:45, 22:30.

Arthur y la venganza de Maltazard
Domeka: 17:00.

COLISEO 1

La cinta blanca
Egubakoitza: 20:30.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

Percy Jackson y el ladrón del rayo
Zapatua: 17:00.

COLISEO 2

Arthur y la venganza de Maltazard
Egubakoitza: 20:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.

Percy Jackson y el ladrón del rayo
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

GURIDI

Shutter Island
17:00, 19:45, 22:30 (egubakoitza eta zapatua); 17:00, 19:45 (domeka).

Arthur y la venganza de Maltazard
17:00, 18:50, 20:40 (egubakoitza eta zapatua); 17:00, 18:50 (domeka).

La carretera
22:30 (egubakoitza eta zapatua); 20:30 (domeka).

Percy Jackson y el ladrón del rayo
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitza eta zapatua); 17:30, 20:00 (domeka).

Up in the air
17:30, 22:30 (egubakoitza eta zapatua); 17:30 (domeka).

El hombre lobo
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitza eta zapatua); 17:30, 20:00 (domeka).

Tiana y el sapo
17:00 (egubakoitzetik domekara).

Historias de San Valentín
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitza eta zapatua), 17:30, 20:00 (domeka).

En tierra hostil
20:00, 20:30 (egubakoitza eta zapatua), 20:00 (domeka).

Nacidas para sufrir
20:00 (egubakoitzetik domekara).

FLORIDA-GURIDI

I'm not there
17:00, 19:45, 22:30 (egubakoitza eta zapatua); 17:00, 19:45 (domeka).

El solista
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitza eta zapatua); 17:30, 20:00 (domeka).

Amores locos
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitza eta zapatua); 17:30, 20:00 (domeka).

La cinta blanca
17:00, 19:45, 22:30 (egubakoitza eta zapatua); 17:00, 19:45 (domeka).

Un hombre soltero
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitza eta zapatua), 17:30, 20:00 (domeka).

Precious
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitza eta zapatua), 17:30, 20:00 (domeka).

Invictus
17:00, 19:45, 22:30 (egubakoitza eta zapatua); 17:00, 19:45 (domeka).

Egubakoitzetik domekara.

YELMO CINEPLEX

Avatar (3D emanaldiak)
15:30 (zapatuan eta domekan), 18:45, 22:00.

I'm not there
16:10 (zapatua eta domeka), 18:55, 21:40, 00:25.

Nine
22:25, 00:45.

Sherlock Holmes
17:35, 20:05.

Up in the air
17:50, 19:50, 21:50, 23:50.

Tiana y el sapo
Zapatua: 16:00, 18:00, 20:00.
Domeka: 16:00, 18:00.
Gainerako egunak: 18:00.

El hombre lobo
16:15 (zapatua eta domeka), 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Invictus
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30, 22:10, 00:45.
Gainerako egunak: 17:30, 20:00, 22:30.

Percy Jackson y el ladrón del rayo
15:45 (zapatua eta domeka), 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

La carretera
15:55 (zapatua eta domeka), 18:05, 20:15, 22:25, 00:35.

Shutter Island
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 19:00, 21:45, 00:30.
Gainerako egunak: 17:30, 20:05, 22:40.

Todo incluido
22:25, 00:35.

Rompedientes
15:50 (zapatua eta domeka).

Historias de San Valentín
15:35 (zapatua eta domeka), 17:45, 20:05.

Celda 211
18:15, 20:20, 22:25, 00:30.

Un hombre soltero
Zapatua: 22:00, 00:00.
Gainerako egunak: 20:00, 22:00, 00:00.

En tierra hostil
15:30 (zapatua eta domeka), 17:40, 19:55, 22:10, 00:25.

Alvin y las ardillas
16:30 (zapatua eta domeka).

Arthur y la venganza de Maltazard
16:20 (zapatua eta domeka), 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

Planet 51
15:40 (zapatua eta domeka).

Otsailaren 19tik 25era. Gauerdiko emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan.

ÁBACO BOULEVARD

Avatar
18:25, 21:45.

Sherlock Holmes
17:00, 19:35, 22:15, 00:45.

Historias de San Valentín
17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

Invictus
17:00, 19:40, 22:20, 01:00.

Shutter Island
16:15, 19:!5, 22:00, 00:45.

Percy Jackson y el ladrón del rayo
15:45, 18:05, 20:25, 22:45, 01:00.

Tiana y el sapo
16:20, 18:30, 20:30.

Todo incluido
20:25, 22:40.

La carretera
15:55, 18:00, 20:10, 22:25, 00:40.

Alvin y las ardillas 2
16:30, 18:30.

El hombre lobo
16:15, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.

Up in the air
22:30.

Rompedientes
16:05.

Arthur y la venganza de Maltazard
16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:30.

Otsailaren 19tik 25era. Gauerdiko emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan.

EN TIERRA HOSTIL ****

Gudu barruko sentsazioa

> **Zuzendaria:** Kathryn Bigelow.
> **Aktoreak:** Jeremy Renner, Anthony Mackie, Brian Geraghty.
> AEB, 2008. 131 min.

Kathryn Bigelowk Irakeko guduan edo Irakeko inbasioan, zuek nahi duzuen bezala, kokatu du *En tierra hostil*. Istorioaren protagonista lehergailuen desaktibapenaren ardura duen talde bat da. Taldea hiru pertsonaz osatuta dago, eta horien lana detaile osoz deskribatuta dago: lehergailua dagoen tokira nola heltzen diren, lehergailutik gertu dagoen eskualdea nola garbitzen duten eta nola zaintzen duten eskualde osoa desaktibatze lanak egiten duen pertsona ahal den eta seguruen lan egin dezan. Pauso horiek guztiak zehatzmehatz erakusten dira. Zuzendariak kamera desberdinak erabiltzen ditu detaile, keinu eta egoera bakoitzaren tentsioa eta arrisku guztiak angelu guztietatik jaso dezagun. Bigelowk ikuslea batailaren barruan sartu nahi du eta hori benetan lortzen du: kamera eskuan eramanaz, eszena bakoitzean mugitzen den jende guztia erakusten du; kameraren kulunkak irudiei tentsioa eta errealismoa ematen die, baita muntaiaren mozte lehorrak. Horrela momentuan jasotako irudiak dirudite; fikziozko film bat baino gehiago, erreportaje bat ematen du, eta horrek filmaren egiatasun sentsazioa areagotzen du.

En tierra hostil-en eszena luzeak agertzen dira. Bakoitzean hirukotearen ekintza bat ikusten dugu, eta ekintzon bitartez kide bakoitzaren jokaerak eta izaerak ezagutzen joango gara: horietako batek gudu eta tentsioaren eragina jasaten du eta beldurturik bizi da; beste batek, agian orekatuenak, arriskuak kontuan izaten ditu bizirik jarraitu nahian; eta hirugarrenak arriskuan bizitzea bere droga eta bizimodua bihurtu du. Horrela guduak soldatuengan izan dezakeen efektu desberdinak ezagutuko ditugu.

Filmak ez ditu azaltzen guduen eta inbasioen zergatiak, batailaren barruan egoteraren sentsazioak eta izaten diren emozio guztiak aditzera ematea da helburu nagusia.

Antonio Zabala

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

bono fotoa

Oñati, armarriz eta jauregiz josita dago. Non dago harmarria hau?

Argazkia eta galdera > Jose Fernandez

ZORIONAK AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEARI:

Arrasateko **Elen Kortaxarena.**
Erantzun zuzena: Ruper Ordorika - Haizea Garizumakoa

ETXEZ ETXEKO BANAKETA
Larchago ardoak eta produktu ekologikoak
943 76 98 51

GARMENDIA ARDOEK EMANDAKO
BOTILA ARDO PACKA*
ZOTZ ASMATZAILEON ARTEAN!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa: botila bat.
Larchago beltz berezia: botila bat. Lerchago kriantza: botila bat.

ERANTZUNA .....
IZEN-DEITURAK.....
HERRIA ..... TELEFONOA .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2010-02-19

Txorizoa beharrean gozokiak

KARAPAIXOA Garizuman aita ponteko edo ama pontekoak besoetakoari opari egiten dio opila

GAUR EGUN Txokolatezko arrautzekin eta esne-gainarekin egindakoek dute arrakasta handien

KARAPAIXOA Arrasateko Bolintxoko Paqui Chavesek okindegian saltzen dituen karapaixoak erakutsi dizkigu. ARRITXU BARRUSO

ARRITXU BARRUSO > ARRASATE

Eguaztena ezkero garizuman gaude; horrek esan nahi du askok eta askok egunotan ama ponteko edo aita pontekoarengandik karapaixo bat jasoko dutela. Horixe dio tradizioak; askorendako ohitura hori ezezaguna izango da, akaso, baina Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Aramaion eta Oñatin eutsi egiten diote oraindik ere.

TXOKOLATEZKO ARRAUTZAK

Tradizioari eutsi bai, baina, gauza guztiekin gertatzen den moduan, karapaixoek ere urteekin aldatu eta eboluzionatu egin dute. "Hasierako karapaixoak ogiarekin egindakoak ziren: ogia eta arrautza egosia. Gero, txorizoa gehitzen hasi ziren eta orain bizkotxoz egindakoak ere badaude: gozotegietakoak", azaldu digu Bolintxoko Iñigo Muxikak.

Egia esatearren, karapaixo *modernoak* koloretsuagoak eta deigarriagoak dira. Kontuan izan behar da, gainera, gehienetan umeak direla jasotzen dituztenak.

Arrautza egosiei txokolatezko arrautzek hartu diete tokia eta txorizoei, berriz, txokolatezko kolorezko pepitek, *gominolek* eta denetariko gozokiek. Umeek badakite zer den ona; gehienek nahiago dute gozotegikoa, eta esne-gaina edo krema badaukate, are hobeto.

PERTSONALIZATUAK ERE BAI

Bergarako Bolintxo enpresak, gainera, karapaixo pertsonalizatuak ere egiten ditu: "Umearen izena ipin daiteke edo *zorionak* eta horrelakoak". Bolintxon lanpetuta ibiliko dira datozen asteotan; egun baten 40 karapaixo egitera ere iritsi izan dira. Enkarguz eskatu behar dira eta tamainaren arabera sei eta hamazazpi euro aurten kostatzen dira.

ahobero

"Espainiaren alde egiten dut lan; nire herria hobetzeko"

Letizia Ortiz > Espainiako printzesa

Vanity Fair aldizkarian Espainiako printze-printzesen inguruko erreportajea kaleratu dute. Leonor infantak bere amari zertan lan egiten duen galdetuta, horixe erantzuten omen dio printzesak: "Espainiaren alde". Zelako azkarrak diren umeak, ezta? Antza, neskatilak zalantzak ditu, sariak banatzea eta hedabideen aurrean posatzea lan egitea den...

iturri onetik

Maiatzaren 29an Ojos de Brujo taldeak joko du Antzuolan egingo den Mundumira festan

Aurten Antzuola izango da munduko kulturen topagunea; maiatzaren 29tik 30era bitartean Mundumira festa ospatuko da. Egitaraua zehaztu dago oraindik, baina asteon jakin dugu Bartzelonako Ojos de Brujo taldeak kontzertua eskainiko duela Zurrategi plazan maiatzaren 29an. Talde kataluniarrak hip-hopa, musika elektronikoa, rocka eta flamenkoa uztartzen ditu.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Zergatik Aramaio?

Elorrion aspaldian egin zen AHTri buruzko galdeketa eta bi milatik gora lagunek hartu genuen parte. Beste hainbat herritan ere egin dira antzekoak eta, trabaren bat gorabehera, ez da aparteko arazorik sortu, nik dakidala. Eta Aramaioko alkatea, berriz, auzipetu egin dute, hain zuzen, galdeketa deitzeagatik. Zergatik?

Espainiako justiziak askotan erakutsi du irizpide ez juridikoak erabiltzeko duen joera arriskutsua. Eta delituak asmatzeko abildade aparta. Ez da ahaztu behar Ibarretxe lehendakari zenean hari ere egin ziotela auzipetzeko mehatxua kontsulta famatua deitzen bazuen. Baina... nola izango da delitu galdeketa bat deitzea? Zein buru ez oso demokratikotan jaio daiteke hori egiteagatik agintariak auzipetzeko ideia?

ai, ene!



Arrautza karratuak ere apurtu egiten dira

Beharbada, laster arrautza karratuak ikusiko ditugu supermerkatuetan. Dena dela, ikusten denez, berdin-berdin apurtzen dira.

www.lospimentoneros.com